

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-09-22
ASTELEHENA
466. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM



UBANE MADERA

"Hildakoez gain, beste 5.000 daude ebolaz kutsatuta; kaltea handia da"

Jose Mari Txabarri | Medikua | 8

Txirritola egunean hiru sukaldari omendu dituzte Aramaion | 14



Arrasateko bizikleta bideak gaurtik ikusgai Kulturaten | 06



Ointzek garaipenarekin aurkeztu du denboraldi berria | 26



Arrasateko Biteri plaza umez eta gurasoz gainezka, atzo eguerdian. | JOSETXO ARANTZABAL

Zapi gorridunen elkartasun uholdea

- Bizipozaren Jaia egin dute Arrasateko erdigunean
- Txatxilipurdik jaso du Irrizale sarietako bat | 12

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 | ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

SINADURAK

- On... zer? | 9
NAGORE IPIÑA
- 9 | Erretratuak noren esku itxi
XABIER URZELAI
- Kolonia munduaren erdian dago | 16
JOSU ZUGASTI
- 17 | Munilla vs Frantzisko I.a
ANDRES OSA 'SAKONA'
- Bizi momentua | 19
HECTOR PRIETO
- 37 | Txabelita koitadua
IMANOL GALLEGU
- Hirugarren Mundu Guda? | 40
IXIDOR SOLUPE



Enrike Mendiguren txapelarekin 'Riki' txakurra alboan duela. | JON BEREZIBAR

Mendiguren eta 'Riki' txapeldunak

Oñatiko Nazioarteko 55. Artzain-txakur Txapelketan nagusitu da bizkaitarra | 15

Atera etekina zure argazki kamerari



Ikastaroa Arrasaten, Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan

Noiz: Urriaren 21etik azaroaren 20ra.
Egunak: Martitza eta eguna.
Ordua: 18:00-20:00.
Guztira: 20 ordu.

- Argazki kamerei, edozein direla hauek, eta adimendun telefonoei, ahalik eta etekin handiena ateratzea da ikastaroaren helburua.
- Argazkiak ateratzeko gailuak ezagutu eta menderatzeko, argazkiak manipulatzeko, eta sare sozialen bidez zabaltzeko moduak erakutsiko dira: baita app ezberdinak ere, iOS zein Androiden.

Izena emateko azken eguna: irailak 25
www.kutxabank.com/kutxaikasgelak
Informazio gehiago: 943 25 05 05

LAGUNTZAILEA: **goiena**



Eskoziarren erabakia, bailarakoen berbetan

Independentziari ezetz esan diote eskoziarrek

IRATI GOITIA | ARRASATE

Eskoziara begira izan da Europa azken egunotan, eta baita Euskal Herria ere. Izan ere, han egin den erreferenduma Europarako erreferentzetat jo dute askok.

Bada, eskoziarrek hartu dute erabakia. Botoen %55,3 eskuratu-ta, ezezkoak irabazi du independentziari buruzko galdeketa. Gainera, inkestek aurreikusi baino alde handiagoa atera dute batasunaren aldekoek, hamar puntuko, hain zuzen ere. Beste datu azpimarragarri bat partehartzearena izan da, %85ekoa izan da-eta.

David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak independentziaren alde bozkatu dutenei esan die haien ahotsa "entzun" duela, eta aukera izango dutela orain "gobernu eredia aldatzeko". Parlamentu eskoziarrari "eskumen gehiago" aitortuko omen dizkio. Urtarrilerako eskuduntzen nondik norakoak finkatuko dituen legea kaleratzea espero dute. Alex Salmond Eskoziako lehen ministroak, bere aldetik, porrota onartu eta herriaren epaia errespetatadin eskatu du. Kargua utziko duela ere iragarri du.



Gallastegi arrasatearra Eskozian. | T.G.

Bide luzea

Erreferenduma gauzatzeko bidea luzea izan da. 2007an hasi ziren erreferendum hotsak entzuten, Eskoziako Alderdi Nazionalak -SPN- Eskoziako Parlamenturako hauteskundeak irabazi ostean, eta poliki-poliki ozentzen joan dira. 2011n SNP alderdia gehiago osoarekin nagusitu zen eta Salmond erreferenduma egingo zuela agindu zuen. 2012ko urtarrilean Cameron, prest agertu zen galdeketa baimentzeko eta urte bereko urrian gauzatu zen hori, Salmond eta Cameronek sinatutako hitzarmenaren bidez. 2013ko azaroan argitaratu zuten independentziarako urratsak batzen dituen Liburu Zuria.

Bi urte iraun ditu kanpainak, eta baiezkoaren aldekoak hasieran %30era iritsiko ez zirela pentsatzen bazen ere, amaierarako estutu zen lehia.

Ez da lehena izan

Honakoa ez da izan eskoziarren lehen erreferenduma. 1979an legebiltzar propioa izatea bozkatu zuten. Baiezkoa nagusitu zen, baina ez zen iritsi errolda osoaren %40ra, eta ez zen balizkotzat hartu. Hemezortzi urte geroago (1997), berriz bozkatu zuten. Orduan baiezkoak aurrera egin zuen. Oraingoan, baina, ez zen gauza bera bozkatzeko. Erresuma Batutik bereiztu ala ez zegoen jokoan.

1603ra arte, erresuma zen Eskozia eta errege propioa zuen. Urte horretan Ingalaterrarekin eginiko akordioa medio, bi koroak elkartu ziren. Ehun urte geroago (1707), parlamentuak batu zituzten. Orain, 1707ra arteko egoerara itzuli nahi zuten independentistek: eskumen guztiak izango lituztekeen parlamentua izatera eta erregina bera konpartitzera.

Gurean ere oihartzuna

Gurera ere iritsi zen erreferendumen oihartzuna. Bailarako hainbat herritan egin dituzte agerraldiak. Oñatin, adibidez, Gure Esku Dagok antolatuta. Arrasaten eta Bergaran EH Bilduk deituta. Erabakitze esku-bidearen alde batu ziren.

HELEN PATRICIA COOPER | ESKOZIARRA

"Heldutasuna falta zaio Madrili"

Arrasaten bizi da Cooper. Ingalaterran jaio zen, baina 18 urterekin Eskoziara joan zen bizitzera. Bertan du familia guztia.

Nola bizi izan duzu prozesua Euskal Herritik?

Batez ere Facebooketik jarraitu dut. Baita BBC-ko albistegietatik ere, baina ez naiz BBCrekin asko fidatzen. Honetan ez. Uste dut BBCko albistek *Better Together* kanpainaren eragina izan dutela. Bestalde, maiatzean han izan nintzen, eta baita abuztuan ere.

Zer giro zen abuztuan?

Jende guztiak hitz egiten zuen erreferendumaz. Lagun batzuekin asteburu pasa joan ginen Eskoziako iparraldera. Familiako hiru belau-naldi. Gaiaz hizketan hasi ginen eta batzuk baietz zioten eta besteek ezetz. Guztiak errespetutik hitz egiten zuten, ordea, inolako haserrik sortu gabe. Hori batean, hori da demokrazia. Hori ikusten nuen.

Ondo deritzozu eskoziarreuren etorkizunaz erabakitzeari?

Oso ondo, hori da egin behar dena. Uste dut munduko toki guztietan izan beharko luketela herritarrek euren iritzia adierazteko eskubidea.

Erreferendum eguna...

Hunkituta. Denbora asko zen horrelako sentipenik bizitzen ez nuela. Gaur -egubakoitza- nekatuta



IRATI GOITIA

nago. Atzo 1:30era arte egon nintzen iratzarrita albistegia ikusten eta gaur 6:00etan jaiki naiz emailtzak ikusteko. Goizean, izugarriko beharakada bizi izan dut, baina horrela da demokrazia. Salmond esan du onartu egin behar dela gehiengoak aukeratu duena. Hala ere, interesgarria izango litzateke jakitea zein izango litzatekeen emaitza, *Better Together*-eko kanpaina zintzoagoa eta gardengoa izan balitz -beldurra erabili gabe liberarengatik eta diru kontuengatik, adibidez-.

Londresetik agindu dutena beteko dela uste duzu?

Ez naiz Cameronen fidatzen. Espero dut baietz. Zerbait egin beharko dute. Populazioaren %45ak ez du orain bezala jarraitu nahi.

Eskoziaren erreferente izango da?

Bai. Nik uste dut beste herrialde batzuek esnatu egin behar dutela. Erresuma Batuan demokraziaren bizia luzeagoa da Espainian baino. Espainiari heldutasuna falta zaiola uste dut; ez Katalunian, Madril en baizik.

IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

BASLIDA

INGELESA

- PET.
- FIRST.
- ADVANCED.

- Irailetik aurrera, ikastaro trinkoak prezio ezin hobean!
- Azterketak Arrasaten bertan, Bastida akademian egiteko aukera.
- IRAILEAN INGELESEAN IZENA EMAN, ETA MATRIKULA DOAN IZANGO DUZU.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Sarbide probak
- Ingeniaritza
- Enpresa Ikasketak

INFORMATIKA

- Word.
- Excel.
- Access.
- Power Point.
- Mekanografia.
- Internet.
- Sistema eragileak.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33
bastida@bastida.es • www.bastida.es



PELLO URIZAR

EH BILDU EH Bilduko ordezkari bat Eskozian izan da, tartean, Pello Urizar arrasatearra. "Ikusi duguna izan da herri bat bere etorkizuna erabakitzen, askatasun osoz. Hau erreferente izango da Europako estaturik gabeko nazioentzat. Emaitzatik harantzago, garaipena izan da erabakitzeko eskubidea gauzatu delako", esan du.



JOXE MIGEL URIBARREN

EAJ Gipuzkoa Buru Batzarreko ordezkari bat ere izan da Eskozian. Bertan izan da Joxe Migel Uribarren aretxabaletarra. "Kalean ibili gara zegoen giroa bizitzen. Zoragarria izan da. Erreferendum egunean hautesleku baten ere egon ginen, herritarrek nola bozkatzeko zuten ikusten. Interesgarria izan zen", adierazi du jeltzaleak.

Debagoiendarrak Eskozian



KEPA MENDIBIL

"HARRO EGOTEKOA" 17 urte daramatza Eskozian bizitzen Kepa Mendibil bergararrak. Bishopbriggs-en bizi da, Glasgow kanpoaldean. Erreferendumean bozkatzeko aukera izan du. Baiezkoa izan da bere hautua. Ilusioa eta urduritasuna bizi izan zituela esan du. Eguna lanean pasa omen zuen, baina ahal zuen aldiro albisteei begira. Kanpaina luzea izan dela ere badio, baina garrantzitsua, "ideiak lantzeko eta gizarteak beharrezko elkarriketak izateko". Hala, eskoziar gizarteak prozesu guztian izan duen partaidetza ere nabarmendu du: "Adin, kultura, herrialde eta pentsaera ezberdinetako jendeak elkarrekin izandako elkarriketak benetan azpimarratzekoak izan dira. Emaizta alde batera utzita, eskoziar gizarteak harro egoteko arrazoi mordoa dauka. Politikariek herriak sortutako lurrikara benetan sentitu dute. Ea lurrikara honen uhinak Euskal Herrira heltzen diren".



PELLO URIZAR

"EGUN HISTORIKOA" Aitor Ziarsolo ere bergararra da eta hamar urte daramatza Eskozian. Baiezkoaren alde eman du bozka. "Hasieratik nekien baiezkoa bozkatzeko nuela eta nire iritzia ez da aldatu. Hala ere, bi aldeen arrazoiak begiratu ditut bozkatu aurretik", azaldu du. Eskoziak, prozesu guztian zehar, "transformazioa" bizi izan duela esan du. "Sekula politikaz interesatu ez den jendeak kanpainen parte hartu du", azaldu du. Botoa ematerako orduan "izugarriko emozioa" bizi izan zuela dio, "egun historikoa denaren sentsazioa". Emaizta jasotzean, "tristura eta etsipena" bizi izan zituela ere esan du bergararrak. "Goizeko 4:30ean jaiki nintzen emaitzak ezagutzeko", kontatu du. Eta gaineratu eskoziarrek bozkatzeko aukera izatea "demokraziaren funtsa" dela. "Europako eta munduko beste herriek eskubide bera izan beharko lukete horrela nahi izanez gero", amaitu du.



JON IRIZAR

"ERRESPETUA" Erasmus programarekin Galesera joan da ikastera Jon Irizar oñatiarra. Oraindik eskolak hasi ez dituela-eta, astebeterako Eskoziara joan da, bertako giroa bizitzera. "Eguztekin Edinburgo zehar ibili nintzen, hautesleku inguruetan zein leku turistikoetan. Arratsaldean, han ginen euskaldun guztiok elkartu eta triki-kantu-poteoa egin genuen hirian barrena, Eskoziako Parlamentuaren aurrean amaituz. Hura izan zen baiezkoaren aldeko bilgune eta bertan igaro dugu gaua emaitza guztiak jakin arte. Gaitaren laguntzarekin, kantuak eta dantzak etengabeak izan ziren emaitzak iristen hasi ziren arte. Kontaketak aurrera egin ahala etsipen aurpegiak ziren nagusi, eta emaitza guztiak entzun aurretik jende gehienak etxerako bidea hartu zuen", kontatu du. Egunean zehar bizitako "normaltasuna" nabarmendu du, baita kalean bizi zen "errespetua eta elkarriketa". Demokraziaren garaipena izan dela ere badio.

Politikarien iritzia erreferendumari buruz

EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta Ezker Anitza-IUko ordezkariak izan da GOIENA, Eskoziako erreferendumaren gainean. Emaiztaren balorazioa egin dute eta herri galdeketa bera antolatu

izanaren gainean ere erantzun dute. Alderdi Popularreko ordezkariak ere jarri da harremanetan GOIENA. Ez dute gai honen gainean erantzun nahi izan.

IBAI REDONDO

EH BILDU



Nola baloratzen duzu emaitza?

Eskoziarrek eurek erabaki dute batuta jarraitzea eta oso errespetagarria da. Guk beste emaitza bat nahiago izango genukeen, erakutsiko lukeelako Europako mapa aldatzea ez dela inolako arazo.

Erabakitze aukera izan dute eskoziarrek.

Xapeau. Guretzat Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzea hori bezain simplea da. Eskoziarrek bezala, gure etorkizuna erabakitze aukera izanda. Guretzat bikaina izan da eman duten eredu; bai Eskozian eta baita Britainia Handian ere. Zoritxarrez, Madril eta Paris beti egon dira itxita. Guk uste dugu ezin garela beraien zain izan eta hemen egin behar ditugula akordioak.

PACO GARCIA

PSE-EE



Nola baloratzen duzu emaitza?

Irtzen den emaitza desira nuen. Aldea nahiko handia izan da, %11koa. 380.000 herritar inguruk adierazi dute Europako zatiketaren aurka daudela, Europako muga berriak ezartzearen aurka. Argi esan dute autogobeneraren alde daudela. Hain zuzen, Euskadin dugun bezalakoaren alde. Egin duten prozesua errespetatzen dugu eta emaitzarekin pozik gaude.

Erabakitze aukera izan dute eskoziarrek.

Erabakitze eskubidea ez da eskubidea; aldarrikapen nazionalista baizik. Demokratikoki egiten diren prozesu guztiak errespetatzen ditugu, baina sozialistok mugak irekitzearen aurka gaude. Beraz, errespetatu bai, baina gogoratu erabakitze eskubide hori ez defendatzea-gatik gure lagunak hil dituztela.

LOURDES IDOIGA

EAJ



Nola baloratzen duzu emaitza?

Alde batetik, penaz. Pentsatzen nuen baietzaren aldeko emaitza irtengo zela. Hamar puntuko aldea ere ez nuen espero. Londresek, Cameronek, egin duen kontreraso gogorak —autogobernu gehiago eskainita—eragina izan duela uste dut. Hala ere, pozik. Europako ikusi da nazioek euren lekua izateko aukera izango dutela eta bide bat zabaldu digutela. Bestetik, erabili duten kodigo demokratikoaren inbidia ere bai.

Erabakitze aukera izan dute eskoziarrek.

Ezin dut modu negatiboan baloratu. Erresuma Batuko eredu eman du. Madril egiten ez duen bezala, Cameronek herriari hitza utzi dio. Izugarriko aldea dago.

JOSE LUIS MERINO

EZKER ANITZA-IU



Nola baloratzen duzu emaitza?

Lehenik, parterhartze altua positiboki baloratu nahi dut, %85 ingurukoa izan da-eta. Bigarrenik, eskoziarrek zoriandu Europako eman duten demokrazia lezioagatik. Emaiztari dagokionez, Eskoziak hitza hartu du eta gure errespetu osoa adierazten dugu. Eskoziarrek izan dira irabazle. Emaizta izan da borondate politikokoaren eta euren errealitate zehatzaren analisiaren ondorio. Ezker Anitza-IUtik estatu federalen aldeko apustua egiten dugu.

Erabakitze aukera izan dute eskoziarrek.

Auzi nazionalak konpontzeko eredu bezala ikusten du Eskoziakoa Ezker Anitza-IUk. Gure ustez, konponbidea demokrazian oinarritzen da, parte-hartzean eta herri-tarren erabakian. Horregatik, normaltasunez ikusten ditugu kontsulta prozesuak, edozein gairen ingurukoak.

30 urtean
50.000 lagunek
ikasi dute jadanik
euskara gure
100 euskaltegietan

eman izena

Esperientzia. Metodologia. Gertutasuna. Modulazioak. Efikazia.

673 200 100
 946 464 000
www.aek.eus

MATRIKULA ZABALIK, IRAILAREN 30A ARTE
 Bekak Arrasateko Udalaren laguntzarekin.
 Jubilatua, langabetuak eta ikasleak
%50eko beharpena
 matrikula egiterakoan.

DEBAGOIENKO AEK
 Garibai etorbidea 14, 3
 Tel.: 943770369-607605879
[facebook.com/debagoieneko.aek](https://www.facebook.com/debagoieneko.aek)
twitter.com/debagoienekoAEK

ORDUTEGIA:
 Goizez: 10:00-13:00
 Arratsaldez: 17:00-20:00



UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

Aukeratu zure argazki gustukoena!

Irabazi otarre eder bat munduko hainbat kafe motarekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

Eman botoa: blogak.goiena.eus/argazkiak irailaren 25etik urriaren 1era

Jarraitu gaitzazu:  udakoargazkiak  udakoargazkiak

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTAILEAK:

kb
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Mondragon Unibertsitateak hasiera eman dio ikasturte akademiko berriari

- ▶ Iñigo Urkullu Lehendakariak "MUK garai berrietara egokitzeko izan duen gaitasuna" azpimarratu du
- ▶ Etorkizunerako, euskal unibertsitate sistema ezinbestekotzat jo du Josu Zabala MUko errektoreak

A.T./M.T. | ARRASATE

Egubakoitzean egin zuen Mondragon Unibertsitateak ikasturte akademiko berriaren irekiera ekitaldi ofiziala, MUko Goi Eskola Politeknikoaren ondoko Iturri pilotalekuan. Bertan izan zen Iñigo Urkullu lehendakaria, Cristina Uriarterekin, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarekin batera.

Autoritateei ongietorria aureskua dantzatzen eman ondoren, joan zen ikasturteko memoria akademikoa aurkeztu zuten. Besteak beste, iaz 4.567 ikasle izan zituen MUK, eta graduoko 15 titulu eta 13 unibertsitate master eskaini zituen. Goi Eskola Politeknikoko irakasle Jon Aurrekoetxea arduratu zen irekitze-hitzaldiaz.

Josu Zabala MUko errektoreak esku hartu zuen ondoren. Azpimarratu zuen Euskal Unibertsitate Sistema "ezinbestekoa" dela Euskadiren etorkizunerako, eta unibertsitateak, berriz, garapen ekonomikoaren "eragile eta motor"



Josu Zabala, MUko errektorea, izan da hizlarietako bat, ikasturte akademiko berriaren irekiera ekitaldian. | A. TXINTXURRETA

direla. Mondragon Korporazioaren eredu kooperatiboaren defentsa ere egin zuen errektoreak, eta gaineratu zuen "ezinezkoa" dela unibertsitateak eta "gizartea mugiarazten duten enpresa eta erakundeek" bi komunitate bereizi osatzea. Era berean, gogorazi zuen MUK gizartearekiko duen konpromisoa: "MUn uste dugu gure prestakuntza eskaintzak,

ikerketak, langileen zerbitzu jarre-
rak bat etorri behar dutela unibertsitateak dituen gizartearekiko helburuekin".

Ikuspegi akademikotik, Europako Unibertsitate Eremura egokitzearen ondorioz unibertsitatean sortu den agertoki berriaren berrikuntzarako aukerak azaldu zituen Zabalak: "Gure kasuan, eskaintzen ditugun 15 gradueta-

tik 5 guztiz berriak dira", esan zuen errektoreak, unibertsitateak azken urteetan egin duen "hedapen ahalegina" azpimarratuz.

Urkulluk, berriz, MUK garai berrietara egokitzeko izan duen gaitasuna azpimarratu zuen: "Aldatzeko gaitasuna erakutsi du, eta orain al2daketa hori mundura zabaldu behar dugu, gure herriaren etorkizuna bertan delako".

Lehendakariak jarraitu zuen esanez "epe luzeko ikuspegi batekin" ari direla lanean, Europak 2020rako markatu duen norabidearen baitan, eta unibertsitate plana "azken txanpan" dagoela. Gainera, plan hori urtea bukatu aurretik onartzeko konpromisoa hartu zuen lehendakariak.

Bitartean, eta Iñigo Urkullu Arrasaten izan zela aprobetxatuz, Ordaindu eta Eskuratu plataformakoei elkarretaratzea egin zuten Iturri pilotalekuan, lehendakariari eta MCCri euren aldarrikapenak helarazteko.

Errektoreen erreleboa

Egun MUko errektore den Zabalak urtarrean utziko du kargua, zortzi urteren ondoren. Hortik aurrera, Bixente Atxak hartuko du errektore ardura eta hari ongietorria egin nahi izan diote, bai Zabalak, baita Urkulluk ere.

Atxak kargu berria "ilusioz eta errespetuz" hartuko duela adierazi zuen. Izango duen lantaldearekin ere gustura agertu zen, dagoeneko "ondo" ezagutzen baititu bere lankide izango direnak eta argi du "erakundea bultzatzen jarraitzeko jende egokia" dela.

Horrez gain, aurrerantzean erakundeekin eta enprekin elkarlanean jarraitzeko "konpromiso argia" duela azaldu zuen.

Zabalak, bere aldetik, esker-eman nahi izan zizkien bere taldeari eta Mondragon Korporazioari, zortzi urteko ibilbidean jasotako babesagatik.

zenbaki

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK

CERT
ISO 9001

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es



Birzikleta azokak jende ugari erakarri zuen Mondragones kalera. | IMANOL SORIANO

Mauka eta aukera ugari aurtengo Birzikleta azokan

- Txikienek mugikortasun iraunkorra barneratzeko, tailerrak egin zituzten
- Gaur, bizikleta ibilbideen gaineko erakusketa zabalduko da Kulturaten

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Bigarren eskuko bizikleta eta material azokak jende ugari erakarri zuen zapatuan. Mauka eta aukeren bila, lehen ordutik gerturatu zen jendea Mondragones kalera. Inoiz baino bizikleta gehiago jaso dute aurten, gainera. "158 bizikleta jaso ditugu, iaz baino gehiago. Horietatik erdiak baino gehiago umeendako bizikletak izan dira. Aurten ez da horrenbeste mendiko eta helduendako bizikletarik izan", azaldu du Nerea Laspiurrek, Agenda 21eko teknikariak.

Urteik urtera geroz eta eskaintza eta eskaera handiagoa daukan

ekimena da. "Asko saldu da. Jendea oso pozik; baita geu ere. Gertatu diren bizikletak prezio altua zutenak ziren, desproporzionatuak". Asko begira ikusi arren, erosi ere egin dutela dio Laspiurrek. "Salduenen artean, mendiko bizikleta dago. Errepidekoak, aldiz, ez dira horrenbeste saldu. Umeendako bizikletak ere ondo saldu dira; asko zeuden eta prezio oso onean", adierazi du.

Indartuz doan azoka

Mondragones kalean egin da lehenengoz Birzikleta azoka. Goizean goizetik ilarak zeuden arren aukeraturako bizikleta eskuratzeko,

bestelako osagaiak ere izan dute eskaria. Hala, kaskoak, patineteak, patinak, arropa eta bestelakoak eskuratzeko aukera izan zen zapatu eguerdira arte.

Txikitxoendako tailerrak

Biteri plazan, berriz, umeendako tailerrak eta emisio txikiko ibilgailuen erakusketa egin zuten. "Mugikortasuna iraunkorra izan behar da. Mezu hori daraman bandera txikiak egin ditugu bizikletan jartzeko. Bizikletaz eta oinez ibiltzen bagara askoz hobea!", azaldu du Udala ingurugiro eskolako Naiara Corcuera, eta gaineratu: "Aurten gainera, umeek



Arrasatearrak eta oñatiarrak Zubillagako pilotalekuan. | RAFA UGARTE



Eskoriatzarrak eta aretxabaletarrak elkarrekin, Urkulun. | ROSA LASAGABASTER

Bizikleta, debagoiendarren aukera

Asteburuan, ibarreko askok eta askok egin duten aukera bizikletan ibiltzearena izan da. Batzuek bidegorrian barrena, besteek errepidea lagun hartuta. Hala, mugikortasun astearen baitan, domeka goizean arrasatearrek oñatiarrekin bat egin zuten Zubillaga auzoko pilotalekuan. Bertan, mokadutxoak egin zuten.

Eskoriatzarrek eta aretxabaletarrek, berriz, bat eginez, Urkulu aldera joateko aprobetxatu zuten domeka goizeko giro aparta.

aukeratuko dute urrian hasiko dugun ikasturterako maskota eta horren izena".

Herriko bizikleta bideak

Nobedadea, baina, bizikleta-bideekin lotuta, gaur, Kulturaten zabalduko den erakusketa da. Etxaluzetik Musakolako kiroldegirainoko bizikleta-bidea-

ren aukerak aurkeztuko dira han. Hamazazpi tartetan banatu da bidea, eta aukera ezberdinak erakutsiko dituzte.

Era berean, herritarren parte-hartzea bultzatu gura da eta ibilbideen gainean herritarrek duten iritzia jaso. Izan ere, bizikidetzaz lortzea da erakusketa horren helburu nagusia.

AHTaren Bergarako lotunearen bigarren zatia atera da lehiaketara

2,9 kilometroko luzera eta 133 milioi euroko aurrekontua du zati horrek

M.A. | ARRASATE

Espainiako Ministroen Kontseiluak AHTaren Bergarako lotunearen bigarren zatia lehiaketara ateratzeko erabaki du. Euskal 'Y'-aren ibilbide osoaren gune garrantzitsuetako bat da hori. Izan ere, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako adarren elkargunea izango da. Lehiaketara atera berri den zatiak, 2,9 kilometroko luzera dauka eta 133 milioi euroko aurrekontua du (131 milioi BEZ gabe). Arrasate eta Bergara arteko Kobate inguruko zatia da lehiaketara atera dutena, hain zuzen. Zumelegi eta Angiozarrekin batera Bergara eta Arrasate artean kokatzen den lotunea osatzen du horrek.

Kortazar eta Udaltz

Bergarako lotune horren bigarren zatiaren eraikuntzan bi



Abiadura handiko trenaren Bergarako zatia. | GOIENA

tarte dira aipagarrienak: Kortazarreko tunelaren azken 1.905 metroak eta Udaltzako tunelaren azken 1.885 metroak. Horrez gain, Angiozarren, 199 metro

dituen tunel artifiziala egingo da. Arantostelen, aldiz, lau bide dituen bide-zubia eraikiko dutela nabarmendu du Espainiako Gobernuak.

Argazki ikastaroan izena eman daiteke barikura arte

Argazki kamerari etekina ateratzeko ikastaroa urriaren 21etik azaroaren 20ra eskainiko da

M.A. | ARRASATE

Argazki ikastaroa edozein edozein dela gailua, argazkiak ateratzeko zaletasuna dutenentzako. Eta ikastaroan jorratuko diren gaiak asko: argia, koadroa, konposaketa, ikuspuntua...; irudiak manipulatzeko programak (Photoshop); zela atera argazki informatiboak; smartphonea ala argazki kamera; reflex kamerak eta objektiboak; zela zabaldu argazkiak sare sozialak erabiliz: Instagram, Facebook, Twitter, Fotoblogak... Eta horiekin batera norberak dituen zalantzak argituko dira.

Kutxa Ikasgelak antolatu du ikastaroa eta Arrasaten eskainiko da, Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan hain zuzen. Hona helbidea: Otorala Lizentziaduna 31 (943 25 05 05).

Helburua

Argazki kamerei, edozein direla hauek, eta adimendun telefonoei, ahalik eta etekin handiena ateratzea da helburua. Argazkiak ateratzeko gailuak ezagutu eta menderatzeko, argazkiak manipulatzeko, eta sare sozialen bidez zabaltzeko moduak erakutsiko dira ikastaroan: baita app ezberdinak ere, iOS zein Androiden.

Izen-ematea zabalik

Ikastaroa urriaren 21etik azaroaren 20ra artekoa da. Martitzen eta eguenetan emango da, 18:00etatik 20:00etara. Irteera bat ere egingo da, ikasitakoak praktikan jartzeko. Izen emateko azken eguna, irailak 26: www.kutxabank.com/kutxai-ikasgelak webgunean.

Bihartik aurrera Oñatin egongo da Kimu Berriko proiektuen erakusketa

Mondragon Unibertsitateko ikasleen 80 proiektu inguru jasotzen ditu, eta ostiralera arte bisitatu ahalko da Enpresagintza fakultatean

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Sukaldean aritzeko astirik ez duten gazteei elikadura ekologikoa eskaintzeko zerbitzua, surf taulak garraiatzea ahalbideratzen duen sistema, beharren arabera handitzen edo txikitzen den autoa... Kimu Berri proiektu berritzaileen

V. erakusketan ikus daitezkeen ia 80 proiektuetako batzuk dira horiek. Zapatura arte Arrasateko Kulturaten egon da ikusgai erakusketa, eta bihartik egubakoitzera arte, Oñatiko Enpresagintza fakultatean bisitatu ahalko da, 11:00etatik 17:00ak arte.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko, Huheziko eta Enpresagintza fakultateetako ikasleek egindako proiektuak dira, hainbat formatutan aurkeztuta daudenak: muraletan, maketetan zein euskarri informatikoetan.

da jasotako proiektu kopurua: "Guretzat beti izan da garrantzitsua ekintzailetasuna, eta gaur egun gehiago; bai unibertsitateko ikasleen, bai langabetuen eta baita lana dutenen artean ere. Izan ere, enpresa barruan ere izan zaitezke ekintzaile, eta gauzak hobetu eta aldatu ditzakezu".

Kimu Berriko koordinatzaileetako bat den Goi Eskola Politeknikoko irakasle Osane Lizarralderen hitzetan "ikusgarriak" dira erakusketako proiektu batzuk, eta egun gazteak ekintzaileak diren galdetuta, oraindik ere sentibilizazio lan handia egin behar dela dio: "Akaso ekintzailetasuna hori dute, baina aurkitu eta sustatu egin behar da".

Ekintzailetasuna sustatzen

Debagoieneko Mankomunitateak, Mondragon Unibertsitateak, Iseak, Saiolanek eta Athlonen antolatutako ekimena da Kimu Berri, eta MUko ikasleek egindako lanak erakustez gain, gazteen artean ekintzailetasuna sustatzea du helburu. Mankomunitateko Garapen Agentziako Lehendakari Igor Ezpeletaren arabera, pozgarria



XABIER BADIOLA ETA LEIRE TORRES "Sistema Txertatuen Masterra ari gara egiten, eta *Smirror* proiektua da guk ekarri duguna: auto-gidariaren arabera euren kabuz egokitzen diren ispiluak".



ANE GOIKOETXEA ETA GORKA HURTADO "Gure proiektuaren helburua da errepidean doan gidariari bidaia erraztea, informazioa emanda. Kimu Berri ekimen interesgarria da, ikasitakoa praktikan jartzeko balio digulako".



Hainbat proiektuaren maketak daude erakusketan. | T.M.

Hainbat ekimen ekintzailetasuna bultzatzeko asmoarekin

T.M. | ARRASATE

Irailaren 30ean amaitzen da Debagoieneko Mankomunitateak ekintzailetasunarekin lotuta dituen hiru ekimenetan izena emateko epea.

Horietako bi, Lanbiderekin elkarlanean emango diren laguntzak dira. Programa baten helburua da negozio ideia bat dutenei tutorizazio, aholkularitza eta laguntza ematea ideia hori aztertzeko eta garatzeko. Zerbitzu bera eskaintzea da bigarren programaren helburua, baina kasu honetan negozio plan bat egin eduki eta enpresa-idea hori martxan jartzea gura dutenei dago zuzenduta. Derrigorrezkoa da bi programetan egongo diren saio guztiak joatea. Adinaren arabera, laguntzak 1.500 euro eta 2.000 euro artekoak dira.

Turismoarekin, aisialdiarekin eta hauen zerbitzu osagarriekin lotutako negozio ideia bat duten pertsonei zuzendutako ikastaro bat ere emango du Mankomunitateak urriaren 13tik azaroaren 20ra arte. Hiru ekimen hauen inguruko informazio guztia, www.debagoiena.net-en dago.

Ikasketadun gazteei lana emateagatik, diru-laguntzak

T.M. | ARRASATE

Lanbideak kudeatzen duen Eusko Jaurlaritzaren *Lehen Aukera* programako diru-laguntzak jaso gura dituzten enpresek urriaren 3a baino lehen egin behar dute horretarako eskaria. Programa honekin, Lanbiden erregistratuta dauden 30 urtetik beherako langabe ikasketadunei lan merkatura sartzeko aukera eman gura zaie. Hala, Jaurlaritzatik adierazi dutenez, 2014an gutxienez 1.800 gazteren lan aukerak "hobetu" gura dituzte.

Ekimenarekin bat egiten duten enpresa pribatuei, ondasun erkidegoei, sozietate zibilei, elkartei eta fundazioei, Lanbideak kudeatuko dituen bost milioi euro bideratuko dizkie guztira Eusko Jaurlaritzak. Enpresak jasoko duen hoberia kontratatutako gazteak jasoko duen soldata gordinaren arabera (2.450 eta 3.620 euro artean) izango da, eta diru-laguntzak lanaldi osoko eta gutxienez sei hilabeteko iraupeneko kontratuetarako dira.

Asanblada orokorra egingo du Ordainduk eguaztenean

Azken asteotan egindako mobilizazioak positiboki baloratu dituzte, "gehiagora" joan direlako

T.M. | ARRASATE

Fagor Etxeresnetako kapital sozialeko eta borondatezko ekarpenen kaltetuak ordezkatzen dituen Ordaindu plataformak asanblada orokorra egingo du etzi, eguaztana, Amaia antzokian. Lehenengo deialdia 10:00etan izango da, eta bigarrena, 10:30etan. Lanagatik bertara joan ezin dutenentzako eguenean, asanblada informatiboa egingo dute Kulturaten, 18:00etan hasita.

Plataformaren egoera ekonomikoaz berba egiteaz gain, Ordain-

du erraminta moduan hobetu gura dute asanblada orokorrean. "Gauzak hobetu egin gura ditugu,

eta horren helburua da, Mondragon Taldearekin negoziazioak lortzeko egin behar diren harreman instituzionalak eta betebeharrak juridikoak burutu ahal izatea", azaldu du plataformako kide Mikel Olabek.

Asteotako mobilizazioak

Egubakoitzean amaitu zuten Ordaindu plataformakoek, Eskuratuokekin batera azken bi aste-

tan egin duten akanpada, eta plataformatik balorazio positiboa egin dute, euren esanetan, egunak pasa ahala, bai akanpadan eta baita manifestazioetan ere "jende gehiago" egon delako. Egubakoitzean gainera, Mondragon Unibertsitatearen ikasturte irekiera ekitaldia zela-eta Iñigo Urkullu Arrasaten zegoela aprobetxatu zuten lehendakariari justizia eta bitartekari lanak egitea eskatzeko.



Egubakoitzean, Urkulluren bisita dela eta egindako protesta. | AMAIA TXINTXURRETA

Jose Mari Txabarri | Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko erizaintza saileko burua

"Ebolaren hedapena saihestea da lehentasuna, eta gaixo daudenei osasun zerbitzua ematea"

- Txabarrik gertutik ezagutzen zuen Miguel Pajares, ebolarekin abuztuan hil zen espainiarra
- Ebolaren hedapena kontrolpean izaterako hilabete batzuk pasako direla uste du

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Jose Mari Txabarri Imañak (Leiva, Errioxa, 1953) gertutik ezagutzen zuen Miguel Pajares abadea, abuztuan ebolak jota hil zen espainiarra. Bera kide den San Juan de Dios kongregazioak du Monroviako (Liberia) San Jose ospitalearen ardura.

Zeintzuk dira handik jaso dituzuen azken berriak?

Monroviako ospitaleko hiru abade eta bost langile hil direla badakigu. Liberiarekin muga egiten duen Sierra Leonan, berriz, beste zortzi langile hil direla ere jakin dugu.

Ze neurri hartu dira?

Lehena izan da herrialde bietako ospitaleak ixtea, garbiketa lanak egiteko eta desinfektatzeko. Irailaren 9an Sierra Leonakoa ireki genuen, baina Liberiakoa itxita dago oraindik. Hala ere, abuztuaren 25ean joan ziren hara gure ordena barruan dagoen Juan Ciudad gobernuz kanpoko erakundeko hiru kide. Monroviako ospitalea berriz zabaltzeko lanean dihardute.

Zein da hango egunerokotasuna?

Lehengo egoera bera bizi dute, gutxi gorabehera. Oraindik ez dute ebola kontrolatzea lortu eta hori lortzerako hilabete batzuk pasako direla uste dut.


Zein da lehentasuna orain?

Lehentasuna hedapena gelditzea da, ebola gaitza gehiago ez hedatzea lortu behar da, bai herrialde barruan baita herrialdeetik kanpora ere. Hori lortzea, baina, oso zaila da han. Herrialde batetik bestera joateko ez daude aireportuak edo bide nagusiak bakarrik, basotatik eta bigarren mailako errepedetatik ere joan daiteke batetik bestera.

Obamak ere esan du egoera larria dela eta Nazio Batuak martxan jarri du laguntza bidaltzeko protokoloa. Zenbaterainoko larria izan behar du egoerak nazioarteko erakundeek laguntza emateko?

Ez ginateteke tamaina honetako egoeraraino heldu behar laguntza jasotzeko. Lehen salaketa, lehen kasua, ezagutu zenean ez zitzaion kasurik egin, eta hori akatsa izan da. Aldiz, kaltea Europako herrialdeetako batera heltzen bada, orduan hasten da jendea mugitzen eta gaia serioa dela esaten.

Pobrezian bizi diren herritarrei, baina, sinesgarritasun txikia ematen zaie. Orain egoera ez dago kontrolpean eta baliabide ekonomiko asko behar dira egindako kaltea konpontzeko. Orain arte hil diren pertsonen gain, beste 5.000 lagun ei daude kutsatuta.



Txabarri, Arrasateko San Juan de Dios ospitalean, abuztuan. | UBANE MADERA

Miguel Pajaresi ere horixe gertatu zitzaion, ezta?

Bai. Gobernuari eta erakundeek laguntza eskatu zuten ebolaz kutsatu zela jakin zuenean, baina ez zioten kasurik egin. Egoera benetan larria zenean erreazionatu zuten jendeak.

"Urrian egon zen Pajares azkenekoz Arrasaten, lagun asko zituen hemen"

"Pobrezian bizi diren herritarrei sinesgarritasun txikia ematen zaie"

Baina orain ere antzeko egoera ari da gertatzen. Pajaresena pasa da, eta arazoa bukatu da askorendako. Ez da horrenbeste hitz egiten arazoaz, eta hori ez zen horrela izan beharko. Arazoa hor dago oraindik. Gaitza hedatzen ari da eta egoera lehengo baino larriagoa izan daiteke.

Berdin gertatzen da malaria edo heriotza arriskua izan dezaketen beste gaixotasunekin ere?

Hemeretzi urtez egon naiz Afrikan. 27 urte nituela joan nintzen lehen aldiz eta Ghanan, Togon, Beninen, Sierra Leonan eta Senegalen izan nahiz, gehien bat. Behin baino gehiagotan izan dut malaria baina gaitz ezberdina da hori. Malaria ez da hilkorra, ez, behintzat, kasu guztietan. Umeak kaltezen baditu eta buruko malaria baldin bada, orduan bai, orduan hilkorra da.

Malaria, baina, gaixotasun zaharra da, aspaldikoa, eta gar-

bitasun ezak sortzen du. Hala ere, adibidez Espainian ohikoa balitz, haren kontrako txertoa aterako zuket.

Ze neurri hartu behar dute orain erakundeek?

Lehentasuna, hedapena saihestea da. Horrez gain, baina, gaixo

"Nazioarteko erakunde guztien laguntza da beharrezkoa"

"Hildako pertsonen gain, beste 5.000 daude kutsatuta; kaltea handia da"

daudenak artatzea eta osasun zerbitzuak babestea eta bermatzea. Malaria edo apendizitisa dutenek ere behar dute osasun zerbitzua. Gainera, kutsatzea prebenitu behar da.

Gaixorik dauden guztiendako sendagaiak behar dira, eta garbitasun sakona egin behar da, herri osoa desinfektatu behar da ebola gehiago hedatu ez dadin. Hori, baina, oso zaila da eta jakitun izan behar gara herrialde denetako erakunde guztiek lagundu behar dutela. Baita, noski, Nazio Batuak ere. Horretarako, baina, diru asko behar da.

Oraingo laguntzek, baina, izango dute jarraipenik?

Baietz uste dut. Gu han gaude, ospitalea zabaltzeko lanetan ari gara orain eta gaixo daudenei irtenbidea ematen saiatuko gara.

Bestalde, tamaina handia hartu du arazoak eta hori saihesten saiatuko direla uste dut, bai sendagaiak bidaltzen eta baita gaitzarekin bukatuko duen txertoa ateratzeko ikerketak egiten ere.

Liberia, Ginea eta Sierra Leona dira herrialde kaltetuenak, ezta?

Bai. Senegal ere gertu dago, baina badirudi herrialde horretara ez dela oraindik heldu, mugak ondo zaindu dituzte.

Noiz egon zen Pajares azkenekoz Arrasaten?

Joan den urrian egon zen. Bere izaera naturalarekin bat eginez, San Jose ospitalerako proiektu berriak landu guran, dirua lortzera etorri zen. Espainiara etorzen zen aldiro zetorren Arrasatera bisitan, hemengo lagun asko ezagutzen zituen-eta, tartean Mikel Tellaetxea. Donostiara joatea ere gustatzen zitzaion. Etengabe egon zen harremanetan Euskal Herriarekin.

Tellaetxeak, gainera, Pajaresekin egon zuten lan Monroviako San Jose ospitalean, ezta?

Bai, horrela da. Aita Menni ospitale psikiatrikoko egungo zuzendari Mikel Tellaetxe Monroviako San Jose ospitaleko zuzendari izandakoa da, eta hark ere bertatik bertara ezagutu ditu gaixotasun bortitz horren eraginak.

Zenbat lagun ematen dio zerbitzua San Jose ospitaleak?

Hiriburuan dago eta bera da herri-tarrek kontuan hartzen dutena. Gerra asko bizi izan ditu Liberiak, eta hango gobernuaren ospitaleetan ez dago sendagairik.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Hilabete batzuk barru egoera kontrolpean izango den esperantza dut. Bide batez, elkartasun mezua zabaldu gurako nuke.

ZABALIK



NAGORE IPIÑA
goiena.net/komunitatea/

On... zer?

Badirudi *on line* egotea gure izaeraren parte bilakatu dela. Whatsappen sartu eta *on line* gaude, telebista *on line* ikusteko aukera dugu, komunikazio kanal berriak ditugu *on line*, publizitatea ere *on line*... Eta gero eta gehiago, *on line* ikastea.

Bizitza osoan zehar ikasteko paradigman murgilduta, *on line* ikasteko aukera kokatu da top 10-ean. Eta bereziki, orain, irailean!

Blablaba egiten ari naiz *on line!* Zenbat aldiz entzun duzue esaldi hori?

Zuetako askok bezala, nik ere egin dut horietako bat edo beste; baina, orain, horiekin eta horietan egiten dut lan... eta hortik dator nire kezka nagusia.

Zer da *on line* ikastea?

On line ikasi izan dudanean, edo, hobeto esanda, kurtsuak *on line* egin ditudanean –orain ulertuko duzue zuzenketa– pedagogia igarri izan dut faltan.

Badakit *pedagogia* hitz potoloa dela eta baieztapen gogorra bota dudala, baina horrela sentitu izan dut.

On line-ak eredu berri bat eskatzen duela iruditzen zait. Izan ere, egin ditudan kurtsuetan *on line*-a teknologian zentratu izan da. Teknologia garrantzitsua da, bai, baina non dago pedagogia?

Pedagogia, edukiak, horien ezagutza eta elementu guztien artean, teknologia barne noski, sortzen diren harremanak jotzen ditut nik oinarritzotzat.

Uste dut aipatutako elementuen erdigunean sortzen diren inter-harremanek lagunduko digutela prozesuen malgutasuna eta *on line*-ko ikasleen protagonismoa bermatzen, *on line*-ko eredu erreal batera hurbiltzen. Hau da, *on line* kurtsuak egin beharrean, *on line* ikastera.

Horra hor *on line*-ak aurten planteatzen didan erronka, *on line*-darrek kurtsuak egin beharrean, *on line*-darrak ere hezte.

"Teknologia garrantzitsua da, baina non dago pedagogia?"

USTEAK USTE


XABIER URZELAI | xurzelai@goiena.com

Erretratuek noren esku itxi

Astien berbaldi interesante baten egon naz, Jorge Campañas abogauek emunda. *Nork hartu du nire argazkia?* titulue euker, gutxi gorabehera. Laburketie gatxa da, hiru ordu izen zuelako, baiñe geure erretratuek zein esku ixten ditugun komentetan ibilli zan, bestiek beste. Hau da, garbi ete daukogun erretratuek sare sozialetara igoten ditugunien ze eskubide emuten dutzogen Facebookei, Twitterrei, Whatsappei-eta. Bai, komunikabide batek herritar soil batek baiño aukera haundixuek dauko beste baten erretratuek ibiltteko, eta bai, zure ezkontza egunerako kontratatu zeuen argazkilariek zeure baimena biher dau, esaterako, erretratuek eskapararien jarteko.

KALE INKESTA

Zein iritzi duzu Eskoziako erreferendumaren gainean?



HODEI BALANTZATEGI
ARRASATE

"Jarraitu dut gaia eta egia esan harritu egin nau emaitzak eta pena pixka bat ere eman dit; beste gobernu batzuek eredu hori jarraitu beharko lukete".



JOSE ARROTXA
ARRASATE

"Goizean jaiki eta begiratu dut emaitza. Euren iritzia eman dute behintzat eta ni horrekin gelditzen naiz. Ezetza ezetza da eta errespetatu egin behar da".



MADDI MENDIZABAL
DONOSTIA

"Harrituta gelditu naiz emaitzarekin, egia esan espero nuen baieztapen aldeko irabaziko zutela. Horrela da eta onartu egin behar da".



MIKEL FERNANDEZ
AZPEITI

"Independentziaren aukeraren aldekoa nintzen; uste dut, baina, beste elementu interesgarriago batzuk egon direla, botoa emateko aukera, alegia".

HANDIK ETA HEMENDIK

Oñatin inora ez daraman bidegorria

Inazio Arregi
blogak.goiena.eus/margola/

Aretxabaletatik edo Bergararik bazatozte, bidegorri dotore batetik etortzeko aukera izango duzue. Berria, ondo seinaleztatua eta laua ahal den heinean. Gauza ederra da txirrinka gainean edo oinez arrisku barik ibili ahal izatea. Eta osasungarria. Arlo honetan Europako herri aurreratuenen artean gaudela esango neuke. Kostata, baina lortu dugu.

Oñatira iristen zarenean arazo larri batekin egingo duzue topo.

Bapatean, bidegorriak markatzen duen bidea amaitzen da, zirkulazio seinale egizidun batek esango dizu bidegorriak iradokitzen duen bidetik jarraitu behar duzula, eta beste batek beste aukera, Kale Zaharrean gora jarraitzea debekatuta dagoela. Lasai! Segi debekatutik.

Kale Zaharrean arauak betetzen badituzu dontsu edo inuzente baten parean geratuko zara.

Bidegorri hori eta bere amaiera harrigarria abuztuan margotuta dago eta ez neukan honi buruz ezer idazteko asmorik pentsatzen nuelako lehenago edo beranduago margotzen jarraituko zutela horrela jasota baitago Oñatiko udaleko mugikortasuneko ekintza planean.

Asmoa hori bada, *pedagogia* egiten hasteko une ona ere bazela pentsatzen nuen.

Kaleko tabernetako terrazetan sarri entzuten da: Hara! Nora doa hori?; ikusi duzu beste horrek daraman abiada? Zuk ez duzu ikusi arratsaldeko fabriketako txanda amaitzen denean kalean gora kontrako noranzkoan igotzen den txirringulurari uholdea!

Astean adineko emakume batek (laurogei eta hamar pasa izan behar ditu gure ama zena baino zaharragoa baita), *egunen baten horreittako batek aurrian eruango gaitu eta hor fango dira gure egunak* bota dost txirringulurari batek gu bioi iskin egin ondoren.

Orduan animatu naiz hau idaztera, are gehiago, ikusita udal zinegotziek (pluralean) arauak errespetatzen eredu

izan behar direnek, debekatutako noranzkoan gora egiten dutela txirringulurari jaitxi ere egin barik.

Nekez egin daiteke *pedagogia* araua ezartzen dutenek araua hausten badute.

Ez dakit zein den Udalaren asmoa. Edo mugikortasun planak dioena aurrera eramatea, edota Kale Zaharrean txirringulurari bi noranzkoetan onartzea.

Bigarrena bada, eskatuko nioke lehenbailehen egitea, bidegorria argi markatzea, autoen tokia ere garbi uztea, eta oinezkoie geratuko zaigun zatitxoa ere, ondo markatuta uztea defentsa bezala baliagarri gerta dakigun.

Neurea eta beste inorena ez da azken pasarteko iritzia.

Beste guztian asko gatoz bat.

Festetatik orgietara

Bixente Serrano Izko
berria.eus/blogak/bixente/

Zezenaren tragedian baldin badautza haien festak, hekatonbeetan haien orgiak gero!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altior Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Asteburuko edizio arduraduna
Mirari Altube
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martín, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Goiena Klubeko iraileko zozketak!

Goiena Klubeko bazkidek irabaz ditzakezun sariak hauek dira. Hartu parte!



Telebista

32 hazbeteko LG
Telebista.

Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista

Arrasateko hipermerkatua



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Arrikutz sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



Argia

Argiako jokoak
Atlantika 2 joko

Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoa

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK



Andra Mariko Ama Birjina. | JOKIN BEREZIARTUA



Mezaren osteko urteroko batzarraren une bat, irailaren 14an. | CRISTINA ETXENAUZIA

ARAMAIO

Ibabeko Kofradia bizirik oraindik, fedeari eta ohitura ludikoari esker

- Sorrera urte zehatza ezjakina bada ere, 1562ko testamentu baten anaidia aipatzen da
- Irailaren 14ko ospakizunean 70 bat lagun elkartu ziren; egun, 134 kofradiakide ditu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko Andra Mari ermita ezaguna izango da hainbat debagoiendarrendako. Leku ederra da, eta uda aldean hainbat dira bertan parrillada bat edo beste era bateko ospakizunen bat egiten dutenak. Hala ere, askok ez dute ezagutuko Andra Mari birjinaren atzean Ibabeko Kofradia gordetzen duen historia luzea. Izan ere, ez dago ondo zehazterik noiz jaio zen Ibabeko Anaidia. XVI. mendean egon liteke haren sorrera; 1562. urteko testamentu baten kofradiaren gaineko lehen erreferentzia idatzia dago.

Bizirik geratzen den bakarra

Egun bizirik geratzen den kofradia bakarra da Ibabekoa, baina, Josemari Velez de Mendizabal idazle eta ikertzaile aramaioarren arabera, beste zenbait kofradia ezagutu ditu Aramaiok. Horien artean dago, esaterako, XVI. mendean sortutako San Sebastian Kofradia eta XVII. mendeko Rosarioko Ama Birjinaren Anaidia.

Edozelan ere, XVII. mendeko Aramaioko eskualdeko Apaiz Agurriaren Kofradia da, Ibabekoarekin batera, jarraitzaile gehien izan zituena: "Izan zirenaren gaineko erreferentzia dokumentalak ditugun arren, euren amaiera noiz gertatu zen ezin dut esan zehazki. Hori bai, ohituren aldaketak eragin zuen batzuen zein bestean

desagerpena". Hortaz, Ibabeko Kofradia da bizirik geratzen den bakarra, Andra Mari ermitan gurtzen den birjinarekiko egon den eta dagoen debozio handiaren erakusle: "Andra Mariko Ama Birji-

narekiko debozio handia dago oraindik; herritar askok loreak eta kandelak jartzen dizkiote", dio Cristina Etxenauzia. Etxenauzia da egungo presidentea, anaidiak izan duen lehen emakumezkoa

kargu horretan. Kofradiak egun 134 kide ditu eta horietatik 43 Aramaiotik kanpo bizi dira. Irailaren 14an egin zuten urteroko ospakizuna; meza egin zuten azken urtean hil diren kofradiakideen omenez eta gero batzarra egin zuten, diru kontuak eta bestelakoak argitzeko. Ondoren, 70 bat kide elkartu ziren bazkaltzeko.

Liburu bat anaidiaren gainean

Velez de Mendizabal bera ere kofradiako kide da eta hilaren 14ko hitzorduan ez zuen hutsik egin: "Ospakizuna beti bezain apala izan zen. Ni hasi nintzen 1975 inguruan eta urtero antzeko erritua betetzen dugu. Batzuek ikuspuntu erlijiosotik ospatzen dute, puntu ludiko batekin, eta beste askok ohituraren geruza ludikoa bakarrik estimatzen dute". Gainera, kofradiaren gainean liburu bat egiteko asmoa dauka: "Oraindik buruan daukat, baina

joango da itxura hartzen. Batez ere orain arte Gabriel Jauregik, Micaela Portillak, Jesus Mari Elejaldek, Gerardo Lopez de Gereñuk eta nik neuk idatzitakoa bildu nahiko nuke eta gidoi bati jarraitu. Nire asmoa da liburu xehea eta gertuko egitea".

Bitxikeriarik aurrera dezakeen galdetuta, honakoa dio idazle aramaioarrak: "Kofradiaren iraupena bera da bitxikeria. Hasiera bateko aitonen semeen *-hidalgoen-* anaidia izatetik herriko andre-gizon guztiak egon ahal izatera pasatzeak sendotasuna eman zion kofradiari, eta horrekin indarra iraun ahal izateko".

Beste datu aipagarri bat ere badago, haren ustez: "Arreta pizten du bazkarira bildu ohi garenon batz besteko adina gero eta txikiagoa dela. Aldi berean, baina, kudeaketarako gertu dauden adina ez da jaitsi; gizartearen beraren joera dela uste dut".



Kofradiakideak mokadutxoaz gozatzen, hilaren 14ko ospakizunean. | C.E.

ESANAK

"Debozio handia dago, kandelak eta loreak jartzen dizkiote oraindik"

CRISTINA ETXENAUZIA | PRESIDENTEA

"Nire asmoa da liburu xehea eta gertuko egitea; buruan daukat"

J. VELEZ DE MENDIZABAL | IDAZLEA



Ane eta piraten ikuskizuna, atzo arratsaldean, Biteri plazan, Bizipozen Jaian. | AITZIBER ARANBURUZABALA



Txatxilipurdiko Naroa Elortza saria jasotzen Porrotx eta Porrotxinen eskutik. | M.A.



Erakustaldia (Bocalan Biak Bat). | A.A.



Puzgarrietan jende asko, Seber Altuben. | JOSETXO ARANTZABAL

IRATI GOITIA | ARRASATE

Piratek abordatu zuten Arrasate atzo, buruan zapi gorria eta aurpegian irribarrea zutela. Izan ere, Bizipozen Jaia egin zuten bertan, Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek (ILGE), Arrasateko Udalak eta hainbat eragilek elkarlanean antolatuta.

Jendetza batu zen festarako. Biteri plaza eta Seber Altube bizipozez gainezka izan ziren. Besteak beste: puzgarriak, eskulanak, apar festa eta ikuskizunak izan ziren umeentzako. Goizean, Pirrotx, Porrotx eta Marimototsek alaitu zituzten Biterin batutakoak. Arratsaldean, berriz, Ane eta piratak igo ziren taula gainera.

Elkarteen lana

Atzoko festa, baina, elkartasun jaia ere bazen. Irrien Lagunak Gizartegintzako Elkartekoek postuak jarri zituzten, euren lana

Bizipozez abordatu dute Arrasate

- Jendetza batu zen atzo, domeka, egin zuten Bizipozen Jaian
- Irrizale sariak banatu zituzten; tartean, Txatxilipurdik jaso zuen bat

ikusarazteko helburuarekin. Bertan izan ziren, esaterako: Aspanogi; Chernobilen Lagunak; Bocalan Biak Bat; eta Ume Alaiak. Izan ere, jai erraldoi honen helburua euskal haurrek eta familiek elkar laguntzea ere bada, auzolan sare euskaldun eta alaiak osatuz.

"Nik, Aspanogi, guraso bezala ezagutu nuen. Minbiziak harrapatzen zaituenean blokeo une bat bizitzen duzu eta elkartekok laguntza eskaintzen dizute, bidea errazten dizute. Sarri, baina, ez dugu jakiten norengana joan. Helburua da jendeari erakustea

asko direla laguntzeko prest daudenak eta horretarako gaude hemen", adierazi zuen Jasone Giraldo, Aspanogiko gurasoak.

Sarituk

Irrizale sariak ere banatu zituzten goizean egin zuten ekitaldian.

Txatxilipurdik jaso zuen horietako bat. "Hogei urte bete ditugu aurten, eta egia esan, dena borbildu dugu honekin. Hala ere, gaurkoan konpromiso handia hartu dute herriko eragileek eta herritarrek. Ehun boluntario inguru gabilta lanean. Beraz, saria guk jaso dugu, baina Arrasate osoarentzat dira eskerrak", esan zuen Ainara Kortabarriak, Txatxilipurdiko kideak. Beste saria Ziburuko ikastolako gurasoek jaso zuten. Arrasateko ikastetxeetako marrazkilari onenek ere hartu zituzten opariak eta baita Porrotxinek -Beñat Barrutia- ere Porrotxen eskutik. Pozik zen Barrutia: "Oso polita izan da, hunkigarria. Sei urte daramatzat dagoneko eurekin kolaboratzen. Niretzako onena umeak pozik ikustea da". Horixe zen festaren helburua: bizipoza. Eta ume zein heldu askok zuten irribarrea ahoan.

INHAR
BELAR

"Eskulanak egiten ari naiz. Lehen haziekin aritu naiz eta orain Realeko ezkutua margotzen nago. Izan ere, Real zalea naiz. Oso gustura nabil festan".

AMAIA
ARTETXE

"Andoaindik etorri gara eta goiz pasa ederra egin dugu. Bero dago, baina txikiak gustura, eta beraz, gu ere bai. Horrelakoetan parte-hartu behar da, gainera".

AMALUR
CABALLERO

"Puxikak puztu ditugu eta galtzetan jarri. Orain, buruan sartu dugu galtza alderantziz eta jolasean ari gara. Oso ondo gabilta. Lagunekin disfrutatzen".

LEIRE
ARBELAITZ

"Eguna pasatzera etorri gara Osintxutik. Nik uste dut helburuak merezi duela. Gainera, eguraldi honekin... Ikuskizunean izan gara eta orain puzgarrietan gabilta".

AINARA VELA /
IRAIA DIAZ DE GEREÑU

"Zapiak jarri ditugu buruan, piratek bezala. Bizipoza ikuskizuna ikusten izan gara, eta amaitzean, Porrotxengana joan gara. Ainara Kataluniatik etorri da festara".



Pedro Mari Uberaren postuan hainbat bezero, zapatu goizean Elgetako plazan egin zuten azokan. | IRATI GOITIA



Seigarren mailako ikasleak euren postuan. | I.G.



Intxortako igoerako parte-hartzaileak. | I.G.



Gaztetxeko afarian, sagardoarekin topa egiten. | I.SORIANO



Vespa eta Lambretta motorrak. | JOSETXO ARANTZABAL

Etxean baino, kalean pasa dute asteburua Elgetako herritarrek

Herriko baseritarren eta artisauen azoka; Sagardo Eguna; eta motor erakusketa izan dituzte

IRATI GOITIA | ELGETA

Kalera irten dira elgetarrak aste-buruan. Izan ere, hainbat izan dira zapatuan zein domekan izan dituzten ekintzak.

Herritarren azoka

Zapatuan Elgetako baseritarren eta artisauen azoka egin zuten herriko plazan. Denetarik zen: barazkiak, fruituak, loreak, eskuz eginiko poltsak, eskumuturrekoak... "Ekarri ditudan porru, leka eta piper guztiak saldu ditut. Guk azoka honetan bakarrik saltzen ditugu gure produktuak", adierazi zuen Pedro Mari Uberak. Lorena Ibeas artisaua pozik zen: "Etxean beti ondo. Gainera, hemen, saldu ere egiten dut". Baziren herritarren interesa piztu zuten txakur-kume jaioberriak ere. Seigarren mailako ikasleek ere jarri zuten euren postua. Bizko-txoak, gazta tarta, erroskillak... saldu zituzten. Helburua ikas bidaiarako dirua batzea.

Plazan bertan jarri zituzten ikusgai txorimalo lehiaketako lanak ere. "Kostatu zaigu txorimaloa belar eta lastoz betetzea", adierazi zuten parte-hartzailetako batzuek. Guraso elkarteko bi ordezkari egin zituzten epaimahai lanak eta saritua izan zen Artotxo txorimaloa, Arkaitz eta Alazne Errastik eginikoa.

Intxortara igoera

Zapatuan egin zuten Intxortako igoera proba ere. Lau izan ziren lasterketan parte hartu zutenak eta helmugara iristen lehena Hodei Zenitagoia 22 minutu eta 32 segundoko denbora eginez. Beraz, ezin izan zuen Iñaki Egizabalek eginiko marka gainditu (16 minutu 15 segundo). Lehen emakumea Elena Elkoro izan zen (27 minutu 15 segundo). Umeak ere animatu ziren korrika egitera. Denera bostek eman zuten izena eta azkarrena Martin Egizabal izan zen (4 minutu eta 13 segundo). Neska-mutikoak ez ziren, baina, Intxortaraino igo; Salvador ermitaraino baizik.

Sagardo Eguna

Arratsaldean tortilla lehiaketa egin zuten eta herriko tabernetan sagardoa eskaini doan. Giro bikaina eta jende asko izan zen. Iluntzean triki-poteoa eta eguna amaitzeko afaria gaztetxean. 38 lagun elkartu ziren eta Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariek girotu zuten afalostea. Saio polita eta berezia izan zen, kandelen goxotasunean.

Vespak eta Lambrettak

Atzo, domeka, ere izan zuten non gozatu herritarrek. Vespa eta Lambretta motorren erakusketak jende asko elkartu zuen.



I.G.

Kongora eta Senegalera dirua bidaltzeko elkartasun tortillak, Antzuolan

Anelkarrek antolatutako Elkartasun Festa egin zuten egubakoitz arratsan

I.G. | ANTZUOLA

Elkartasun Festa egin zuten egubakoitz arratsaldean Antzuolan, Anelkarrek antolatuta. Helburua dirua batzea zen, Afrikara, Kongora eta Senegalera hain zuzen, bidaltzeko. Bada, 760 euro lortu zituzten.

35 tortilla

Dirua batzeko marmitakoa, pastak eta tea eskaini zituzten Zurragi plazan. Baita antzuolarrek eurek eginiko tortillak ere. Izan ere, herritarrek patata tortillak egiten dituzte; ondoren, Anelkarrekoei eman eta eurek saltzeko. Erakundeko kideak pozik azaldu dira jendeak izandako parte-hartzearekin. "35 tortilla jaso ditugu eta 200 lagun inguru etorri dira festara", adierazi du Jabier Etxaniz, Anelkarreko kideak. Prestatuta zituzten mahaiak ere jendez bete ziren. Horrela, balo-



Anelkarrekoek egubakoitzean egin zuten Elkartasun Festa. | IMANOL SORIANO

razio positiboa egin du Etxanizek; nahiz eta, iluntzean botatako euri zaparradak festa pixka bat goibeldu. Izan ere, bota zuen euriaren ondorioz, marokoar tea eta pastak Zurragi arkupean hartu behar izan zituzten.

Afrikarako laguntza

Batutako dirua oso lagungarria izango da. "Orain jasotako diruarekin eta gure boluntarioen laguntzarekin, Kongoko eta Senegaleko proiektuek beste bultzada bat jasoko dute", esan du Etxanizek.

Herriko lorategiak ezagutzen

Bergarako lorategi historikoak ezagutzeko bisita gidatuak egin dituzte asteburuan. Zapatuan 25 lagun batu ziren euskarazko bisitan, adibidez. Herriko lorategiek bizi izan duten eboluzioa ezagutzeko aukera izan zuten bisitariak; zuhaitz batzuk zergatik landu ziren edo beste batzuk zergatik kendu ziren jakiteko aukera ere izan zuten.



Santi Elejalde, Gema Arriolabengoa eta Mikel Arantzabal omenduak Txirritola egunean | JOSETXO ARANTZABAL

Txirritola egunean: festa, euskara eta sagardoa

- ▶ Omendu dituzte: Gema Arriolabengoa, Santi Elejalde eta Mikel Arantzabal
- ▶ Adierazi dute gutxi direla elkartean eta egoerari buelta eman nahi diotela

IRATI GOITIA | ARAMAIO

Sagardo eta talo artean ospatu zuten atzo, Aramaion, Txirritola eguna XI.enez. Helburua izaten da Txirritola elkarte bera ikusaraztea, bazkideak lortzea eta euskararen festa ospatzea.

Omenduak

Herriko sagardogileen sagardoa dastatzeko aukera egoten da, beraz, eta urtero, herriko norbait arduratzen da txotx egiteaz. Aurten, Gema Arriolabengoa, Santi Elejalde eta Mikel Arantzabalek izan

dute ohorea. Euren urtetako lana omendu nahi izan dute Txirritola elkartekoek horrela. "Lan handia egiten dute egun hau aurrera ateratzeko -eurek egiten dute lan sukaldean- eta ez dute sekula hutsik egiten. Ezkutuan aritzen



Herriko sagardogileen postuetan jendea, atzoko egunez. | J.A.

dira, eta honekin eskertu nahi izan diegu", adierazi zuen Olga Parrak, Txirritola elkarteko presidentea. Pozik hartu zuten hirurek ere izendapena. "Ustekabea izan da, ez genuen horrelakorik espero. Pozik jaso dugu", esan zuen Arantzabalek.

Errotuta dagoen jaia da eta jende asko erakartzen du. Ume zein heldu gustura izan ziren. Trikitilariek girotu zuten goiza eta bertso eskolako kideek abestu zuten -Peru Abarrategi, Martin Abarrategi eta Aitor Ugarte-

"Horri buelta eman nahi diogu. Hala, estrategia berrien bila gabil-tza", esan zuen. Hala ere, esperantza ere azaldu du: "Kanpotik datorren jendea arduratzen da. Saiatzen dira bai umeak eta baita eurak ere euskarara hurbiltzen".

ESANAK

"Ez genuen horrelakorik espero eta pozik gaude"

MIKEL ARANTZABAL | OMENDUA

"Estrategia berrien bila gabil-tza elkartekoak"

OLGA PARRA | TXIRRITOLAKO KIDEA

Euskararekin, "lasaitu"

Euskarari dagokionean, Parrak adierazi zuen lan asko dagoela egiteko oraindik: "Arabako herri-rik euskaldunena da Aramaio, baina jendea lasaitu egin da. Adibidez, umeek eskolan euskara erabiltzen dute, baina kalean gaztelaniarako joera dute". Bestalde, elkartean gutxi direla ere badio, eta baita euren ekintzetan gutxi parte-hartzen dutela ere.



Sukaldaria burruntziko moxala zatitzen zapatuan, Seber Altuben. | M.A.

Bertan hazitakoa

Bertan, Arrasateko lurretan, libre hazitako moxala zen burruntzian erretakoa. Egubakoitz gauerdian jarri zuten sutan, eta gau guztian egon poliki-poliki egiten, brasa azpian zuela eta ukitu gehiegirik egin gabe. Hala, eguerdirako puntu-puntu zegoen, eta 800 bat pintxo banatu zituzten. Arrasateko Udalak moxalaren okela kontsumoa sustatzeko abian jarri duen kanpaina barruko ekitaldia izan zen zapatukoa, eta antolatzailak pozik zeuden: "Badirudi arrasatearrak hasi direla moxal-okela gehiago ezagutzen, eta gustuko dute, gainera".

Nafarroako produktuak

Hilabeteko hirugarren zapatuetan egiten den baserritarren azokarekin bat egin zuen moxal eguneko ekimenak. Hamalau bat postu elkartu ziren oraingoan udazken garaiko produkturik ederrenekin, horien artean, Tolosako piperrak eta Nafarroatik ekarritako berakatzak.

Ohi bezala zozketak ere egin zituzten azoka itxi baino lehen, eta oraingoan moxal-okelaren bi sorta ere banatu zituzten.



Zaharren egoitzako egoiliarak Garagardo Ferian, egubakoitzean. | M.A.

Garagardoa eta jatekoa gura beste izan da zaharren egoitzari laguntzeko

M.A. | ESKORIATZA

Garagardo Festa solidarioak jai giroa ekarri du aste bukaeran Eskoriatzara. Eguraldia lagun, herritarrek bete egin dute plaza erdian jarritako karpau egunetan. Herritarrak bakarrik ez, zaharren egoitzako egoiliarak ere han izan ziren egubakoitzean.

Garagardo mota ugari, horien artean alkoholik gabekoa

eta limoarekin nahastutakoa; eta jatekoa gura beste, saltxitxak, ukondoa, oilaskoa, tortillak... izan dituzte plazan jarritako tabernan. Zaharren egoitzari laguntzeko dirua batzea helburu duen hirugarren festa izan da, eta beste behin, herritarrek ez dute hutsik egin. Helduak, gazteak eta umeak, tonbolak erakarrita horietako asko, elkartu dira egunotan.

"Hau bai okela goxoa" esan dute arrasatearrek

Moxalaren okela kontsumoa bultzatzeko ekimena izan da eta ia 800 pintxo banatu dituzte

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

"Goxoa eta jateko biguna, grasa gutxikoa eta merkeagoa", halaxe jakinarazi zuten zapatu eguerdian moxal-okela banatu zuten antolatzaileek. Eta arrasatearrek -umeek, helduek eta nagusiek-

gustura baino gusturago jan zuten mokadutxoak sagardoak lagun eginda: "Bai okela goxoa", zioten Seber Altuben elkartutakoek. Eta bien bitartean behorak, zaldiak eta moxalak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.

San Migelek entzun ditu danbor hotsak

Haurren danborrada egin zuten zapatuan, Oñatin

IRATI GOITIA | OÑATI

Danbor hotsekin iragarri dute neska-mutiko oñatiarrek San Migel jaiak bertan daudela. Berotu dute giroa eta prestatu dituzte txantxikuarrak herriko festa nagusietarako. Zapatu arratsaldean izan zen. 18:00etan irten ziren Santa Marina plazatik, eta herriko kale nagusiak zeharkatu ostean, Foruen plazan amaitu zuten. Bertan jo zituzten abesti guztiak, tartean, San Migel. Santuak entzungo zituen danborrak eta honezkerok prestatu da festarako.

Denera 170

Gogor astindu zituzten danborrak sukaldari, kantinera, barril-joleek eta danbor-joleek ibilbide guztian zehar. Eurekin batera irten ziren, besteak beste: inudeak euren panpinekin; kale-garbitzaileak; sukaldariak, beharrezko tresna guztiak; eta banderadunak, herriko elkarte guztiak ordezkatzeko. Denera zortzi eta hamaika urte bitarteko 170 neska-mutiko.

Euren atzetik karroza ere bazihoan. Aurten, bigarren urtez, Potx eta Motx pailazoek alaitu dute danborrada. Euren atzetik ume asko mozorroak jantzita –indiarrak, sevillarrak, pailazoak...–.

Etxeko txikienek ez zuten animorik falta izan bidean zehar; izan ere, guraso, familiako kide edo lagunek kaleak bete zituzten animoak emateko.

Argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Haurren danborrada Santa Marina plazatik irteten zapatu arratsaldean. | IMANOL SORIANO



Inudeak euren panpinak eskuetan dituztela. | I.S.



Danbor-joleak eta euren zuzendaria. | I.S.

Enrike Mendiguren orozkoarra garaile, Oñatiko Artzain-txakurren txapelketan

Santa Lutzian atzo bosgarren txapela eskuratu zuen, oraingoan Rikirekin

JON BEREZIBAR | OÑATI

Enrike Mendiguren orozkoarra eta haren txakur Riki dira Oñatiko Nazioarteko 55. Artzain-txakurren txapelketako irabazleak. Atzo lortutakoarekin bosgarren txapela du jada Oñatin Mendigurenek, baina lehena Rikirekin,

atzoko txakurrarekin. "Oso urdu-ri" egon zela aitortu zuen txapela jasotzerakoan artzain irabazleak baina akatsik gabeko lana egin da, 327 punturekin, hura izan zen atzo Santa Lutzian garailea. Fernando Etxebarria aramaioarrak, Argi txakurrarekin, Ara-

bako txapelketa irabazi eta gero, lehen aldia zuen Oñatiko txapelketan. Hamargarren postua eskuratuta, pozik zegoen aramaioarra ere, txapelketaren maila eta lehia-kideen txakurrak ikusita. Guztira 12 artzainek hartu zuten parte atzo; euskaldunak, kataluniarrak eta frantziarrak.

Akatsik gabeko lana

Enrike Mendigurenek lan bikaina egin zuen Santa Lutzian, nerbioak nerbio. Azken ariketarako lauren artera bost puntutako desabantailarekin heldu arren, azken aukeran, artzain zein abere, ezin finago jardunda, gainontzeko hirurek baino lan hobea egin zuten Mendigurenek eta Rikik. Gainera, azken laneko lau txakurren artean Riki izan zen bakarra euskal arrazakoa; Border Collie artean. Pozarren, txapela jantzi berri, Oñatiko txapelketa-



Txapelketako ariketako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

ren zailtasuna nabarmendu zuen orozkoarrak, ze "akatsik ezin da egin eta zehaztasun handia behar da", azaltzen zuen. Zioenez "hamabost bat bider aurkeztu eta bostetan besterik ez da lehen geratu". Apaltasunez esan arren, Bizkaiko zortzi txapelketa, Euskal Herriko

sei eta Oñatiko bost garaipenak aitortu behar zaizkio. Rikiri dago-kionez, lehenengoz aurkeztu zuen atzo, Oñatikora, 4 urteko zakurra. Aurretik garaile izan diren Noizarte eta Riki txakurren ondorengo da atzoko Riki euskal artzain-txakur gaztea.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI



Kolonbia munduaren erdian dago

Ez naiz Kolonbian egon inoiz. Askapeneko brigadak paramilitarrek mehatxatu zituztenetik zaila da euskaldunendako Kolonbiako egoera bertatik bertara ezagutzeko.

Mugatik 300 kilometrora gerturatu naiz gehien, Venezuelan egon naizenez. Venezuelan egon naiz, baina Kolonbiak hunkituta itzuli.

Ehunka mila kolonbiar dabilta Venezuelan ihesi: nekazariak, sindikalistak, politikari ezkertiarak...

Gehienak hirietako auzo behartsuetatik harago eraikitako txaboletan bizi dira miseria hutsean. Miseria hutsean,

baina agintariek bidalitako txakur paramilitarren bala eta motozerrek txikituko ez dituzten lasaitasunez.

Hego Amerika eta Karibe ingurua da munduan lehengai erreserba handienak dauzkan eremua eta, zoritxarrez, Estatu Batuetatik gertu egotea egokitu zaie.

"Mundu librearen" zaindariai direnek, euren boterea mantentzeko edozer egiteko prest daudenez, Latinoamerika egiten ari den ezkererako bidea eten behar dutela ondo dakite; orain arteko lehengaien lapurretari eutsi nahi badiote.

Kolonbia da gakoa. Kolonbiako gobernu txotxongiloa jausten bazaie, *yankiek* Latinoamerikako kontrola galduko dute hein handi batean. Latinoamerika sozialista bat, mundu berri baten eredu izan daiteke.

Horregatik, Kolonbia munduaren erdian dago.

Besarkada bat hango herri duinari.

Ekintza bereziak ludoteketan, ate irekiak direla iragartzeko

J.B. | ARRASATE

Txatxilipurdiren Okendo, Usaxe eta Santa Marinako ludoteketan ere hasi dute ikasturtea. Irailaren 15etik hilaren 30era arte ate irekiak izango dituzte eta horren berri emateko ekintza bereziak iragarri dituzte: bihar Arimazubin egongo dira eta egubakoitzean, hilak 25,

berriz, Biteri plazan. 17:00etan elkartuko dira.

Ikasturte osoa 30 eurotan

Izena eman gura duten 3 eta 12 urte arteko umeek matrikulazio-orria hiru ludoteketako baten eta Gazte Bulegoan entregatu beharko dute. Ikasturte osarako kuota 30 euro da.



Okendoko ludotekan giro ederrean hasi dute ikasturtea. | TXATXILIPURDI

Olandixoko tunela itxita egongo da bihar, 08:00etatik 15:00etara

Mantentze-lanak direla-eta Olandixoko tunela itxita egongo da bihar 08:00etatik 15:00etara. GI-2620 errepideko ertzak garbitzeko eta sastrakak kentzeko errepidea itxiko dela jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Errepidea itxita egongo den orduetan herrian barrena desbideratuko da zirkulazioa.

'La rueda medicinal' liburuaren aurkezpena etzi, Kulturaten

Sun Bear eta Wabun Wind-en *La rueda medicinal. Astrología de la tierra* liburuaren aurkeztuko du hilaren 24an Mudra Gabriele Kulturaten (18:30). Norbera ezagutzeko bidaia proposatzen du liburuak: nor zaren, zer dakizun eta bizitza honetan zer egin dezakezun ulertzeko hainbat gako ematen ditu, besteak beste.



Buzkantzak jana izaten da jaietako ekitaldi arrakastatsuenetako bat. | GOIENA

Garagartzako festak dira aste bukaeran

Aurten ere 300 bat kilo buzkantza prestatu dituzte Agirre-Etxe eta Otamendi harategiek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Heltzear dira sanmigelak Garagartzako auzora. Eta jaiekin batera buzkantza usaina dator. Izan ere, jaien bereizgarri den buzkantza jana izango da egubakoitzean eta zapatuan, auzo-etxean, 19:00etan hasita. Aspaldiko ohi-tura dira buzkantzak Garagartzako jaietan, eta, garai berrietara egokitu behar izan duten arren, jende asko erakartzen dute oraindik ere.

Bittor Etxagibel auzo-alkate ohiak uste du Garagartzako jaietarako egiten diren buzkantza guztiak daudela onak: "Esaera batek dio sanmigeletarako egiten diren buzkantza guztiak onak direla, San Migelak bedeinkatzen dituelako".

Bada, aurten, azken urteetako kopuru bera izango dute Patxi-xenean: "Hor jarraitzen dugu, urteetako ohi-turari eusten. Lan handia egin beharra dago eta auzotar ugariaren laguntzari esker aurrera ateratzen dugu. Kilo kopurua iazkoaren antzerakoa izango da, 300 kilo inguru. Guk auzoan gure toke berezia emango diogu", adierazi du Pedro Mari Jauregi egungo auzo-alkateak. 1980a ezkerreko egiten duten moduan, Otamendi eta Agirre-Etxe harategiek prestaketa berezia egingo dute Garagartzako festetarako.

Ibilgailurik ez jai-gunean

Egitarauari dagokionez, badira zenbait nobedade aurten. Haste-ko, azken urteetan galdutako rock kontzertua berreskuratuko dute: Arrasateko eta Aretxabalako Screammers & Sinners eta Arrasateko The Potes izango dira gonbidatuak. Gainera, Patxi-xeneko etxe ostean beste txosna bat jarriko dute.

Bestalde, aurten ez dute ibilgailurik nahi festa-gunean: "Denok lasaiago eta arrisku barik

ibiltzeko izango da. Denon onerako izango delakoan, barkatu eragozpenak", diote jai batzordetik. Hala, egubakoitz arratsaldetik domeka arratsaldera arte ezingo da auto edo ibilgailuan plazara sartu; 108 aparkaleku egongo dira -horietatik lau elbarriendako izango dira- jai-gunetik oso gertu.

Amaitzeko, jai batzordeak eskerrak eman ditu: "Batzordearen izenean alde zuretik eskerrik asko babesleei eta jaietan lan mordoa egiten duten guztiei".

SANMIGELAK GARAGARTZAN

IRAILAK 26

19:00 Jaien hasiera: ikurrinen igoera eta suziri jaurtiketa.

19:30 Trikitilarien kalejira.

22:30 Rock kontzertua: Screammers & Sinners eta The Potes.

03:00 Berakatz-zopa.

IRAILAK 27

11:30 Umeendako jolasak.

12:00 Meza auzoko hildakoen alde.

17:30 Gorriti eta haren animaliak, umeendako.

19:30 Dantzaldia Gau Alai taldearen eskutik.

IRAILAK 28

10:00 Kobateko X. futbol partiduak.

11:00 Meza San Migelen oroimenez.

12:30 Euskal dantzak Txikitxu taldearen eskutik.

14:30 Auzo bazkaria.

IRAILAK 29

19:00 Meza San Migelen oroimenez. Ondoren, luntxa egingo dute.

Egubakoitzean eta zapatuan buzkantzak egongo dira auzo-etxean, 19:00etan hasita.



Jose txo Aranzabal

2014 - 2015
ikastaroak

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

URRIA - MAIATZA / Hasiera: Urriak 6

1. maila: Asteazkena 19:30

2. maila: Astelehena 18:00

Dantza-txokoak: astelehena / asteazkena

Informazioa eta egitarauak: www.herrixadantzan.com

IZENA EMATEKO EPEA: Irailak 26

AED: 943 77 12 28 / GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
HERRIXA DANTZAN: herrixadantzan@gmail.com

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Gaur irekiko dute Ageriko Pintura Lehiaketako lanen erakusketa

Margolari bakoitzak bere ikuspegitik erretratatu du Bergara, txoko bakoitzari bere ukitua emanda

MAIALEN TORRES | BERGARA

Aurten 41 urte bete dituen Ageriko Pintura Lehiaketako lanak osoko bilkuren aretoan izango dira ikusgai gaurtik aurrera. Sanmartinetan margotu zituzten lanak partaideek, eta orain, Beart elkarteak erakusketa bakarrean bildu ditu guztiak, gaurtik urriaren 5era arte.

Astelehenetik ostiralera bitartean, 18:00etatik 21:00etara bisitatu ahal izango da erakusketa. Igande eta jaiegunetan, berriz, arratsaldeko ordutegiaz gain, 12:00etatik 14:00etara ere egongo da zabalik eguerdian.

Beart elkarteak lehendakari Juanjo Altunak esan duenez, urtero errepikatu arren, lehiaketak beti azaleratzen du zerbait berria. "Bergarako txoko guztiak daude dagoeneko erretratatu, eta ez behin bakarrik, baina margolari bakoitzak bere ikuspegia ematen dio, koloreak formak eta teknikak aldatu egiten baitira".

Jesus Mari Saez de Bikuñak irabazi du aurtengo lehiaketa, eta, Altunaren esanetan, gasteiztarrak "lan figuratiboa baina era



Alacantetik etorritako bi parte-hartzaile Bergarako kaleetan. | JOSETXO ARANTZABAL

berean oso modernista egin du" eta "frogatu du kale kantoi bat ere arte izan daitekeela". Bigarren saria irabazi duen Jokin Telleria beasaindarraren eta bergarar onenaren saria poltsikoratu duen Xabier Larrañagaren margolanak ere osoko bilkuren aretoan izango dira, gainontzekoekin batera.

Parte-hartzearekin gustura Hamalau margolarik hartu dute parte aurtengo lehiaketan, eta, Altunaren esanetan, "ez dira asko izan, baina maila ona erakutsi dute". Izan ere, Ageriko Pintura Lehiaketak, bere 41. aldian, ez du hasiera batean zuen indarra. "Lehiaketak bere

gorabeherak izan ditu, eta azken urteetan beherakada egon da parte-hartzean. Pentsa, garai batean 60 margolari ere izaten ziren", dio Altunak.

Dena den, antolatzaileak pozik daude aurtengo jasotako lanekin eta sortu duten bildumarekin.

Sorosle eta sorospen ikastaroa DYArekin

M.B. | BERGARA

Gipuzkoako DYAk sorosle eta sorospen ikastaroa antolatu du irailaren 29tik aurrera. Ikastaroak hiru aste iraungo du, urriaren 17ra arte, eta eskolak astelehenetik barikura izango dira, 19:00etatik 21:00etara, DYAk Martokoan duen egoitzan.

Interesa duten guztiak eman dezakete izena; aurrez ez da beharrezkoa ezagutzarik izatea eta egunerokotasunean gerta daitezkeen arrisku egoerei nola aurre egin irakatsiko dute: bihotz eta birika suspertzea, zauriak, erredurak eta hausturak nola zaindu... Oinarrizko eskolak izango dira, baina laguntza handia eman dezaketenak, alderdi teorikoa eta praktikoa batuta.

Gainera, ikastaro amaierako probak gaindituz gero, Gipuzkoako DYAk eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera egongo da. Matrikulari dagokionez, 110 euro da, eta ikasle kopurua, mugatua. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

Egubakoitzean, hilaren 26an, abiatuko du Jardunek jolasleku ibiltaria, Matxiategin

Horri beste bi saio gehituko zaizkio: urriaren 3an eta 10ean, hain zuzen

M.B. | BERGARA

Udazkena gainean da, eta Jardun elkarteak Jolasleku ibiltaria antolatu du beste behin.

Irailaren 26an egingo dute lehen saioa, Matxiategin, 16:30ean hasita. Bigarrena urriaren 3an izango da, Espoioian, 16:30ean; eta hirugarrena urriaren 10ean, Irala kalean, 17:00etan. Jolaslekuak bi ordu iraungo dute eta bertan, euskarazko kantu eta jolasak landuko dituzte umetxoek Jardun elkarteak begiraleekin batera.



Umeak Irala kalean jolas egiten begiraleekin batera. | JARDUN

Ludotekan izen-ematea irekita

Agorrosingo ludotekari dagokionez, zabalik dago izen-ematea. 4 eta 12 urte arteko umei eskainitako aisialdi zerbitzua da, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Jardunek kudeatuko du eta gaztetxoek aisialdia modu hezitzailean eta euskaraz disfrutatzeke aukera izango dute.

Interesa dutenek Jardunen eman behar dute izena. Prezioari dagokionez, urte osoa 50 euro ordaindu beharko da ume bategatik; 44 euro, bigarrenagatik; eta hirugarrenetik aurrera doan izango da. Hiru hilabete behin ordaintzeko aukera ere egongo da: ume batengatik 20 euro ordaindu beharko dira; bigarrenagatik, 18 euro; eta hirugarrenetik aurrera doan izango da.

Txiki txokoak zabaldu dituzte dagoeneko, ikasturte berrirako

Udalak zabaldu ditu dagoeneko Zabalotegiko eta Martoko txiki txokoak. Interesa duten guraso eta umetxoek erabili ahal izango dituzte. Astelehenetik domekara egongo dira zabalik, 16:30etik 20:00etara, eta, ohi bezala, guraso eta seme-alabek elkarrekin jolasleku aukera izango dute bertan. Hain zuzen, eguraldiak laguntzen ez duenean, gurasoek umetxoekin jolas egiteko lekua izan zezaten egokitu zituen txokook Udalak.

Zabalik dago Deba ibaia auzolanean garbitzeko izen-ematea

Erreka Garbitzeko Batzordeak gogora ekarri du urriaren 18rako Deba ibaia auzolanean garbitzeko izen-ematea zabalik dagoela. Agorrosingo sarrean, kultura etxean, Udaltzaingoa zein errekagarbitzeko@gmail.com helbidean eman daiteke, urriaren 6a baino lehen. 500 lagun batzea da helburua. Garbiketa egunean San Martin plazan, Osintxun eta Labegarailetako kiroldegian batuko dira parte-hartzaileak, 08:30ean, garbiketa puntura abiatzeko.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Munilla vs Frantzisko I.a

Aspaldian, Donostiako elizbarrutian ez dago bake handirik. Apaiz multzo handi bat gotzainaren jokabidearekin bat ez datorrela dirudi. Apaizekin ez ezik, harreman zitalduak eliztarren artean ere zabaltzen ari dira.

Gizarte honetan edozein kargu hartuta ere, laguntzeko, elkar ulertzeko eta bideak leuntzeko izan behar du, eta horretarako, besteek diotena entzun behar da.

Ondorengo adierazpenak zerbait bidezkoa ez dena plazaratzen du: Gipuzkoan ia 80 urteko apaiz zintzo bat, eliztarrak begirune osoz tratatzen dituen agurtzen dut, kaixo zer moduz aspaldiko! Aurpegia goibel, tristura sumatzen zaio eta erantzuten dit: "Ez gabilta gustura. Ez gu apaizok ezta eliztar fededunak ere. Gotzainaren jokabidearekin desadostasun mingarriak ditugu. Ondorioz, tamalez tartea areagotzen ari da".

Begirada batean nabaritzen da Munillak jendea batu ordez sakabanatzea lortzen duela. Fededun herritar xumeak epeltzen, apaizak protestan, elizatik at daudenak ere haserre. Frantzisko aita santuak kanporatzen duen irudia bestelakoa da eta elizatik at daudenak ere gizartearekiko duen jarrera eta mezua txalotzen ari dira. Zergatik? Munduko behartsuen alde apustua egiteagatik. Gotzain jauna, hor duzu erredua.



Ganbara abesbatza Ganbara Txikiren 10. urteurreneko ospakizun festan, Santa Anan. | GANBARA

Ahots eta aurpegi berrien bila dabil Ganbara

Ume zein nagusiendako deia egin du 'Zure ahotsaren bila' kanpainarekin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ahots berriak, aurpegi berriak, ikusi gura ditu Ganbarak bere taldeetan, eta herritar guztietandako deialdia egin gura du. *Zure ahotsaren bila* izeneko kanpaina jarri du martxan, eta Ganbarako kide izan gura duen edozein herritarrek eman dezake izena.

"Asko gara Ganbaran. Guztira, 300 bat lagun izango gara. Baina ahots berriak ere entzun gura ditugu, eta horretarako egin dugu deialdia. Ganbara Txikin

zein Ganbara Abesbatzan parte hartzeko deialdia da, ume, gazte zein nagusiendako", adierazi du Aitor Biainek.

Hiru bide

Ikasturtea irailaren 8an hasi zuen Ganbarak, baina parte hartzeko interesa duenak edozein momentutan eman dezake izena.

Ikasturte berri honetan ere hiru bide paralelotan egingo dute lan Ganbarako kideek. "Batetik, umeen kantu eskola dugu; bes-

tetik, helduen kantu eskola; eta hirugarrena Ikastetxeak Kantari ekimena da. Aurten ere egongo da. Irail osoan egongo da izen-ematea zabalik herriko ikastetxeetan", zehaztu du Biainek.

Urte osoko emanaldien agenda ere lotuta dute. Kantu eskolak, gainera, kontzertu tematikoak egingo ditu hiru hilean behin.

Urteurrenen jarraipena

Bestalde, Ganbara Txikiren 10. urteurrenaren eta Ganbara Abes-

batzaren 20ak jarraipena izango dute aurtengo kurtsuan.

Ganbarako zuzendari Aitor Biainek azaldu duen moduan, urteurren bietako ekitaldi gehienak joan den ikasturtean egin zituzten, baina oraindik ekitaldi bi gelditzen dira egiteko. "Ganbara Txikik, esaterako, *Altxoraren bila* izeneko musikala egingo du urtarrilean. Nagusien abesbatzak, berriz, *Carmina Burana* opera egingo du Gabonetan", aurreratu du Biainek.

Aisialdiko begirale titulua Oñatin ere atera daiteke

Euskaraz emango dira titulua lortzeko eskolak eta oñatiarrek lehentasuna izango dute izen-ematean

O.E. | OÑATI

Eusko Jaurlearitzak homologatutako *Haur eta gazteen aisialdirako begiralea* izeneko titulua euskaraz eta Oñatin bertan ateratzeko aukera eskainiko du Udalak. Donostiako Urtxintxa eskolako irakasleak etorriko dira Oñatira ikastaro hori ematera eta teoria eta praktika orduak izango ditu.

Zapatuetan emango dituzte ordu teorikoak, 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Asteburu osoko hiru saio ere egingo dituzte, baina datak zehazteke daude oraindik.

Ikastaro horrek 200 orduko formazioa izango du, eta, Urtxintxa eskolako adituek azaldu dutenez, hamaika ezagutzatan banatu dute irakasgaia. Hala,

jorratuko dituzten gaien artean daude, adibidez: pedagogia, kultura aniztasuna, jolasak, euskararen erabilera nolakoa izan behar duen aisialdi taldeetan, sexu heziketa, gizarte trebetasunak, heziketa premia zehatzak, arte adierazpena eta talde dinamika. Titulua lortzeko 120 orduko praktikak egin beharko dituzte ikasleek.

Diru laguntza

Ikastaroaren matrikularen prezioa 500 euro da eta izen-ematea irailaren 26ra arte dago zabalik. Plazak mugatuak dira, baina oñatiarrek lehentasuna izango dute. Langabeei eta ikasleei matrikularen %75 ordainduko die Udalak eta gainerakoek, berriz, erdia, %50.



Zubikoa kiroldagiko igerilekuak, kanpoko berdegunetik. | O.E.

Igerilekuak itxita egongo dira irailaren 25etik urriaren 7ra

O.E. | OÑATI

Udal igerilekuak itxita egongo dira irailaren 25etik urriaren 7ra, garbitze-lanak egiteko. Parte horietan, sakon garbituko dituzte igerileku biak.

Bestalde, egun horiek aprobetxatuko dituzte igerileku txikian konpontze-lanak egiteko. Bi aste horietan, igerileku txi-

kiko lurra ere aldatu egingo dute. Igerileku osoan PVCko lamina bat jarriko da, eta ur-bul-kadarako iragazkiak eta ezto-da-zuloa ere aldatu egingo dituzte. Lan horiek Urteaga Quimica SL enpresak egingo ditu eta aurrekontua 19.993,48 euro da (BEZa kanpo). Ikastaroak urriaren 13an hasiko dira.

Burujabetzari buruzko hitzaldia egingo dute etzi

Burujabetzaren eta eskubideen gaineko hitzaldia egingo dute etzi, irailak 24. Oñatiko kultura etxean izango da, 19:00etan. Hain zuzen ere, hizlaria Francisco Letamendia Ortzi izango da, eta gaztelaniaz jardungo du. Oñatiko Gure Esku Dago taldeak antolatu du eguazten iluntzean egingo den hitzaldi hori.

Zineklubeko denboraldi berria eguenean hasiko da

Zineklubeko denboraldi berria aste honetan bertan hasiko da. Eguenean, hain zuzen ere. Irailaren 25ean, *A la medianoche. Momentos con Javier Arzuaga* filma botako dute. Zuzendaria, gainera, Anjel Gonzalez Katarain, Oñatin egongo da. Ikasturte honetan ere 20:00etan izango dira zineklubeko filmak, eguenean.

Oraindik eman daiteke izena Pake Lekuko ikastaroetan

Aurten ere egongo dira eskulan ikastaroak Pake Leku erretiratu elkartearen. Hauexek dira 2014-2015 ikasturterako antolatu dituztenak: dantza, solfeo, orratz lanak, bitxi-gintza, euskara, euskal dantzak, informatika, marrazketa, yoga, irakur taldea eta memoria tailerra. Izena elkartean eman behar da eta azken eguna irailaren 26a da.

Zabalik dago garaje, kanposantu eta ibi tasak ordaintzeko epea

Dagoeneko zabalik dago garaje, kanposantu eta ibi iraukorrari dagozkien udal tasak ordaintzeko borondatezko epea. Tasa horien ordainketa helbideratuta duten herritarrek euren banketxe edo aurrezki kutxatik jasoko dute ordainketaren agiria. Gainerakoek, berriz, azaroaren 10era bitartean ordain ditzakete.

Barrakak euro baten egongo dira egubakoitzean

Urriaren 7ra arte egongo dira barrakak Oñatin. Aurten, zazpi barraka, lau postu eta txurro saltzailea etorriko dira, gutxienez. Egubakoitzean merkeagoak izango dira barrakak: irailaren 26an, bidaia-txartela euro baten salduko da. Gai nontzeko egunetan, berriz, prezioa 1,80 euro izango da, joan den urtean bezala.

ESKORIATZA

Kiroldegiko zerbitzu guztiak zabalik urriaren 1etik aurrera

Lanak bukatzeaz daude: igerilekua urez beteko dute hilaren 26an

MIREIA BIKUÑA | ESKORIATZA

Bukatzear dagoen udan igerileku barik egon ostean, urriaren 1etik aurrera eraberrituta eta erabilgarri egongo da Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekua. Lanak martxa onean doaz. Hori horrela, hilaren 26an igerilekua urez betetzen hasiko dira, eta ura berotu ostean, urri hasierarako zabalik egongo da.

Uztailean hasi zituzten igerilekua eraberritzeko lanak. Horien

ostean, sakonera txikiagoa izango du putzuak. Aurrerantzean lekurik sakonenean 1,60 metro izango du, eta alboetan, 1,20 metro eta 1,40 metro. Hori horrela, igerilekuaren mantentze gastuak murriztu egingo dituzte: putzura sartzen den ur kantitatea, ura berotzeko behar den gasaren kostua eta ura tratatzeko behar izaten diren produktuen kostua. Bestalde, makina-gelan zoru berri ipini dute.

Izen-emateko epea zabalik

Igerilekua zabaltzen duten egun berean hasiko dituzte ikasturte berriko ikastaroak. Dagoeneko izena eman daiteke horietan: kiroldegian bertan edo *Eskoriatza.net* atarian. Izena ematerakoan ordainketa egin izanaren agiria aurkeztu behar da. Gura duenak bi saio doan egin ahal izango ditu. Horretarako gonbidapenak kiroldegiko sarreraren hartu behar dira.

2014-2015 ikasturteko berrikuntza nagusia Osasun Fitness Zerbitzua da. Iaz fitness zerbitzua zenak astean sei ordu izango ditu aukeran: martitzenetan eta eguenetan 10:15etik 11:15era eta 18:30etik 20:30era. Bestalde, zumba eta body-balance daude ekin-tza berrien artean.

Pultsazioen kontrola

Bestelakoan, iazko eskaintza bera izango dute eskoriatzarrek aukeran: pilatesa, body-tonoa, gimnasia abdominal hipopresioa eta spinninga. Azken hori, Joseba Iñurrategi pilotalekuko gelan emango dute, eta parte-hartzaileek sentsazioen eta pultsazioen kontrola eramateko sistema erabili ahal izango dute.

Bestalde, urriaren 11n fitness jaia egingo dute.

ESKORIATZA

Hondarribira irteera egingo dute Amuska elkarteok

Amuska emakumeen elkar-tereko kideak Hondarribi eta Irun alderako irteera egingo dute urriaren 11n (irteera, 08:00etan). Interesatuak urriaren 1a baino lehen egin behar dute ordainketa Laboral Kutxa-ko 30350044850441021091 zenbakian, 12 euro sartuta.

Epailegaien zerrendak ikusgai daude udal bulegoetan

Epaile izan daitezkeen eskoriatzarren zerrenda ikusgai dago udal bulegoetan hilaren 24a arte, 09:00etatik 14:30era arte. Epailegaiak aukeratzeko zozketa publikoa Donostiako Justizia Jauregian egingo dute hilaren 26an.

Herri palestinarri laguntzeko 1.000 euroko laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiak palestinarrentzat anestesiarako makina bat erosteko abiatutako diru bilketan parte hartzea erabaki du Eskoriatzako Udalak. Gizarte Zerbitzuetako proposamena aintzat hartuta, 1.000 euroko laguntza emango dute.



Torrebasoko jolas parkea. | MIRARI ALTUBE

Umeendako elementu gehiago Torrebasoko jolas parkean

M.B. | ESKORIATZA

Torrebasoko jolas parkean ziburu berriak daude: bi ziburu ipini dituzte; bat sarea duena, eta baita karrusel bat eta eskalatzeko sei metroko sare bertikala ere.

Parte-hartze prozesua

Torrebasoko parkearen abiapuntua gurasoekin egindako parte-hartze prozesua da. Eskoriatzan

dauden jolas parkeen diagnosi bat egin zuten eta 6 urtetik gorako umeendako gune baten beharra zegoela herrirari ikusi zuten. Era berean, adostu zuten naturan kokatuta egon behar zuela horrek, ohitura osasuntsuak bultzatzeko. Torrebasoko jolas parkearen albotik pasatzen da bidegorria eta neska-mutikoak bizikletaz joan daitezke haraino.

ARETXABALETA

Murrukixoren egutegiaren azala aukeratzeko lehiaketa

M.B. | ARETXABALETA

Murrukixo mendizale elkarteak 2015eko egutegiaren azala irudikatze lehiaketa deitu du.

Interesatuak euren proposamenak bidali behar dituzte urriaren 21a baino lehen Murrukixoren lokalera (martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara) edo *murrukixo@hotmail.com* helbidera.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, lau erretratu aurkez

ditzake eta formatu digitalean, gainera. Argazkiarekin batera, egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa) eta erretratuaren deskribapena bidali beharko dira. Atal horretan, argazkia non eginda dagoen eta zer ikusten den azaldu beharko du egileak.

Lehiaketara aurkezten diren lanen artean onena, Murrukixoren mendi irteerak batzen dituen



Murrukixoren 2014ko egutegiko azala. | MURRUKIXO

egutegiko azala izango da. Era berean, 100 euro jasoko ditu sari moduan.

Mendi irteera Otzaurtera

Bestalde, Murrukixo mendizale elkarteak 2014ko mendi irteerarekin segitzen du. Hori horrela, urriaren 4an, Otzaurte eta Lizarrusti inguruetarako ibilaldia egingo dute. Egun horretan, 08:00etan irtengo dira Azbeo autobus geltokitik. Zegama aldera egingo duten ibilaldia parte hartu gura dutenek, hilaren 30a baino lehen eman behar dute izena Murrukixoren lokalean, 19:00etatik 20:00etara, zortzi euro ordainduta

ARETXABALETA

'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlan, hilaren 25ean, Zariaian

Txalo Produzioak taldeak *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlan taularatuko du egunean, hilaren 25ean, Arkupen, 19:00etan. Aitziber Garmendiak eta Iker Galartzak topo egingo dute kanposantu baten, eta handik aurrera sortutako istorioak izango dira protagonista. Garmendia neska pimpiarra da eta Galartza base-rritarra. Maila soziokultural ezberdineko bi lagun aurrez aurre. Ezberdinak diren bi mundu elkarren ondoan ikusteko aukera egongo da.

Gazteendako zumba eta spinning ikastaroak gertu

Ibarra kiroldegiak gertu ditu gazteendako zumba eta spinning ikastaroak. 12 eta 15 urte bitarteko nerabeek dagoeneko zabalik dute izena emateko epea: kiroldegiko sarreraren egin beharko dute. Eta argibide gehiago gura dituenak bertara jo dezala.

Urriaren 2an hasiko dira 2014-15 ikasturteari dagokion eskolak ematen. Gazteendako zumba eskolak martitzenetan emango dituzte eta spinningekoak eguenetan. Biak ala biak, 17:15etik 18:15era arte.

NIRE USTEZ

HECTOR PRIETO

Bizi momentua

Aurretik zer bizi izan dudana pentsatzen ematen dut denbora luzea; beste batzuetan, bihar zer egin behar dudana pentsatzen.

Eta azkenean, une batez geratzea lortzen dudanean, ondo-

rioztatzen dut benetan garrantzitsua dena eta bizi duguna oraingo momentua dela.

Gizakiok kezkatzen gaituzten kontuetan pentsatzen hasi naiz: boterea, dirua eta fama. Historian zehar gizakiak aurrerapen handiak egin ditu, baina kontu ezin daitezkeen gerrak hasi ere bai.

Eta nik galdetzen dut: zertarako? Bizitza korapilatzen jarduten dugulako eta ez gare-lako jabetzen edozein momentuan buka daitekeela.

Itxi begiak eta pentsa 2014RC izena duen asteroideak, irailaren 7an sateliteen orbiten azpi-

tik pasatu zenak Lurretik 40.000 kilometrorra bakarrik, gure planetaren aurka talka egiten duela. Zalantzas betetako etorkizun horretan pentsatzen desgertuko ginatela.

Hortaz, bizi ezazue momentua indar guztiarekin, joandakoa ez delako itzuliko eta etorkizuna ez delako ziurra. Egia da arazoak beti sortzen direla, baina bizitzaren parte dira.

Baina kontuan izan behar dugu edozein unetan jo gaitza-keen asteroidez beteta daudela gure bizitzak; zure bizitzak merezi izana zure eskuetan bakarrik dago.



Patata taldeko kideak epaimahaiko neska-mutikoen eskutik lehen saria jasotzen. | LZ

ELGETA

18 tortillaren artean Patata taldearena, aurten, Elgetako lehiaketan goxoena

Lau umek epaitu dute tortillen itxura, eta haien gurasoek zaporea: originaltasunaren saria Miarma i Ole taldeak eraman du etxera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Giro polita sortu du, beste behin, tortilla lehiaketak. Zapatu arratsaldean 18 talde aurkeztu ziren gaztetxeak Sagardo Egunarekin batera antolatzen duen lehiaketara, eta sukaldari trebetasunak praktikan jartzeaz gain irudimena ere landu zuten, tortilla oso politak aurkeztu baitzituzten hainbatek.

Tortilla eskasenera ere saria

Herriko lau neska-mutikok epaitu zuten itxura, eta originaltasunaren saria Miarma i Ole taldeak eraman zuen. Tortillen zaporea epaitzea hiru gurasoren lana izan zen, eta Patata taldeko Maialen Garatek, Xabier Irazabalek, Iratxe Castanok, eta Mikel Zubizarretak jaso zuten.

Zapore eskasenera ere saria eman zioten Elgetan. Euskal neskek taldeko kideek hartu zuten hori. Hurrengo urteko lehiaketara begira tortilla hobeto egiten ikasteko patata poltsa eta arrautzak jaso zituzten opari.

Goiena.eus atarian ipiniko dituzte ikusgai tortilla lehiaketako sailkapena eta talde guztien argazkiak; antolatzaileek bidaltakoan izango da hori.



Miarma i ole taldeko neskek jaso dute originaltasunaren saria. | LZ



Lau neska-mutikok eta haien gurasoek epaimahai lanak egiten. | LZ

LEINTZ GATZAGA

Nazioarteko ikasleak egongo dira egunotan Gaztainuzketan

Kuznetsov berogailuen gaineko ikastarorako 27 ikasle etorri dira, egubakoitzean etorri ere

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Eguen iluntzean eta egubakoitz goizean zehar iritsi dira Gaztainuzketara Kuznetsov berogailuen gaineko ikastaroan parte hartu behar duten ikasleak; nor bere lurraldetik. Irlanda, Ingalaterra, Frantzia, Polonia, Eslovakia, Hungaria, Italia, Polonia eta Espainiatik etorritakoak dira,

27 guztira (euskaldunak ere bai). Eta Leintz Gatzaga inguruan ibiliko dira irailaren 28ra bitartean.

Jekaterinburg-eko (Errusia) bi irakasleren gidaritzapean, lau berogailu Kuznetsov egiten ikasiko dute ikasleok, Suhari berogailuen enpresak antolatutako ikastaroaren bitartez. Irtsi berri-

tan, oso inpresio ona utzi die Leintz Gatzagak "Asko gustatu zaie hau guztiau: zela jaten den, jendearen jatorria, paisaia... Eta, adibidez, maisuak oso-oso harrizta daude hemen dugun eguraldiaz, ze dagoeneko euren lurraldean 0 gradutik gertu baitabilta", kontatu du Iban Arantzabalek, Suhariroko ugazabak.

Gas mugimendu askea

Hasierako inpresio on horrekin, bada, gas mugimendu askea sistema moduan erabiltzen duten Kuznetsov berogailu alternatiboak zela eraikitzen diren eta haiek zelan funtzionatzen duten ikasiko dute egunotan.

ARAMAIO

Euskara ikastaroetan izena emateko epea ireki du Udalak, hiru maila ezberdinetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Udalak euskara ikasi edo hobetzeko aukera emango die herritarrei. Hiru maila eskainiko dituzte: hasierakoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa. Astero bi ordu egingo dituzte eta eskolak urrian hasiko dira. Guztira 130 ordu izango dira, urritik eta ekaina arte iraungo du-eta ikasturteak. Horretara-

ko udaletxean edo liburutegian eman behar da izena, irailean zehar.

Azken ikasturtean perfil ezberdineko ikasleak egon ziren; batetik, euskara ikasi gura zutenak, zerotik hasi zirenak. Bestetik, euskaraz jakin bai, baina idazten zein irakurtzen arazoak zituzten ikasleak, hau da, alfabetatze maila hobetzeko asmoz izena eman zutenak.



GAIZKA AGIRIANO

Untzillako lurretako tomatetzarra

Kilo eta 200 gramo dituen tomatea eman du Untzillako eliza pareko Agiriano sendiaren ortuak: "Baratza lehen aldiz jarri dugu bertan eta amak tomatea hartu zuenean harrizta geratu zen. Lehen aldiz landatu izanagatik lurra fresko-fresko dago, antza", dio Gaizka Agiriano arrasatearrak. Tomatea lehortu egingo dute, hurrengo urtean haziak eman ditzan. Landarea Barajuen auzukoa da.

ANTZUOLA

Antzuolarrak Eskoziaren erabakitzeko eskubideari babes emateko batu dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Joan den egunean, berrogei bat herritar batu ziren eskoziarren erabakitzeko eskubideari babes emateko asmoz. Elkarretaratzean talde argazkia atera zuten Zurrategin. "Herritarro erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea dagokigu; euskaldunondako eskubidea, noiz?", azpimarratu du Antzuolako EH Bilduk.

Zerbitzu sozialen murrizketa

Antzuolako EH Bilduk lana eta zaintza bateratzeko diru laguntzen gaineko prentsa oharra ere kaleratu du. Bertan dio hainbat zerbitzu sozialek bezala murrizketa handia jasan dutela lana eta familia bateratzeko diru laguntzek: "Lau urtean erdira murriztu dira; ez dugu bat egiten murrizketak dakartzaten politika hauekin."



Eguen iluntzean Zurrategin ateratako argazkia. | ANTZUOLAKO EH BILDUK

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



Markiegi

MARKIEGI JANTZI DENDA
Olarde kalea 2 | Arrasate
Produktu guztietan %10eko deskontua.

MIREN GARAI

MIREN GARAI
Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate
Tel.: 943 799 690
Aurpegia garbitzeko tratamenduekin, eskue-
tako tratamendua doan.

LONBIDE

OINETAKOAK

LONBIDE Oinetakoak
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara
Produktu guztietan %10eko deskontua.



ML Ile-apaindegia
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea,
Arrasate / Tel.: 943 797 965
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan
%20ko deskontua.
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.



NEBRASKA taberna
Zarugalde 35 - Arrasate
Tel.: 943 79 09 39
Mahou garagardo botila, euro bat bazkideentzat
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan
Interneteko menuetan %5eko deskontua



SARA MERENDERUEA Jatetxea
Meatzerreka auzoa 19,
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelehenerik igandera, eguneko menuarekin,
kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren
titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin,
kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren
titular bakoitzeko).



TABERNA-BERRI Jatetxea*
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-
txartela erakutsiz gero;
Astelehenerik igandera, eguneko menuan,
bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian
kafea doan.



ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide
berrientzat soilik).



ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
RPS: 299/13
LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterron-
doa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia
proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan:
begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko
aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositan.



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren
konponketetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erosituta eta kupaia+ Goiena Klubeko
txartela erakutsita, sarrera bat doan.



LASTAI
Koltxoak eta umeentzako artikulak
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atse-
den arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileko
segurtasun - aulkietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta
automobileko segurtasun-aulkietarako
denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan.
(Beherapenetan eta eskaintza berezietan
izan ezik).



PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste
eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria
segurtasun betaurrekoetan).



ALZU, S.L Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.



CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otaldu Zuhaitzia, 25 | Oñati
50€-ko erosketan egiteagatik, %10eko des-
kontua stockean dauzkaten oinetako eta
ehun-gaietan. (ez du balio beste promo-
ziotarako).



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregaia erositan.
% 2ko dendako produktuetan.

RPS: 320/13



NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikuluz guztietan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste
eskaintza batzuekin)

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Asteleheneretan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

RALLYSPRINTA

Kantabriako txapeldunak jaun eta jabe Aramaion ere

- ▶ Antolatzaileek esanda etorri ziren Cabo eta Alonso
- ▶ Bengoa eta Garcia arrasatearrak junior mailan nagusi

MIRARI ALTUBE | ARAMAIO

Motor hotsak, goma erre usaina eta abiadura izan ziren nagusi Aramaion, zapatuan. Uribarri auzoan hasi eta Andra Mariko bidegurutzeraino, 7,8 kilometroko ibilbidea egin zuten Aramaio-ko XIII. Rallysprinta jokatu zuten 65 automobilek. Kantabrietik etorritako Jonathan Cabo eta Urbano Alonso nagusitu ziren lasterketan, zergatik diren Kantabriako txapeldunak erakutsiz.

Ibilbide polita baina zaila

Ibilbide polita da Aramaio-ko auzoen artean egiten dena, eta ikuskizun polita autoek sortzen dutena. Hori horrela, ikusle ugari pilatu zen, aurtengoan ere, bide bazterretan. Inhar Amenabar pilotu aramaioarrak eta era berean antolatzaileak, zera zioen: "Zati politikatu dituzte eta ezin izan dute etorri, baina Kantabriakoekin ere gustura". Jonathan Cabo pilotua eta Urbano Alonso kopilotua etorri ziren Renault Clio Maxi Kit Car autoa-

benetan". Baina hainbat piloturen esanetan zaila ere bai: "Zaila, arriskutsua eta teknikoa". Hori edo beste arrazoi batzuk tarteko hemeretzi autok ez zuten bukatzerik izan. Amenabar pozik zegoen bukaeran: "Kolperen bat edo beste egon da baina ezer larririk ez". Euriaren beldur izan zirela onartu zuen: "Une batean euria hasiko ote zen pentsatu dugu. Baina ez denez horrela izan lasterketa ondo joan da, eta antolaketa kontuei dagokienez pozik gaude emaitzarekin".

Lehia estua lehen bien artean

Azken urteotan pilotu bat gonbidatu izan dute lasterketara; iaz Kataluniatik etorri ziren eta aurtun Kantabrietik: "Iazko kataluniarrek arazo batzuk izan dituzte eta ezin izan dute etorri, baina Kantabriakoekin ere gustura". Jonathan Cabo pilotua eta Urbano Alonso kopilotua etorri ziren Renault Clio Maxi Kit Car autoa-

rekin. Eta horietan izan ziren nagusi (15:27.500). Bigarren postuan geratu ziren Mattin Villares eta Andoni Blas, horiek ere Renault Clio Maxi autoarekin (15:29.700); eta hirugarren, Iban Tarsicio eta Iñigo Peña (15:37.100) Mitsubishi Evo IX ibilgailuarekin.

Kantabriako txapeldunek eta bigarren geratu ziren nafarrek lehia estuan jardun zuten. Lehenengo eta hirugarren txandatan guztiz berdinduta ibili ziren, eta bigarrenean ateratako bi segundori esker irabazi zuten Cabok eta Alonsok.

Debagoienarren emaitzak

Debagoieneko ordezkariak ere izan zen Rallysprintean. Eta bikote bakarrak jaso arren saria lasterketa politikatu egin zituzten gehienek. Pv1 edo lehenengo klasean Arrasateko Unai Bengoa eta Ander Garcia bigarrenak izan ziren, eta Eskoriatzako Gorka Ibabe eta Nekane Santos oña-



Inhar Amenabar eta Agurtzane Zubieta Renault R5 GT Turbo autoarekin lasterketako une

tiarrak laugarrenak. Hain zuzen Bengoa eta Garcia junior mailan ere sartzen dira, eta saria eskuratu zuten hor. Lasterketa "txarra" egin zuten; izan ere, lehenengo txandan kolpea eman zioten autoari eta gero hala moduz ibili zen. Hala eta guztiz, maila horretako gainerako autoek ez

zuten bukatu lasterketa eta sariarekin itzuli ziren etxera, "benetan oso pozik".

Eskoriatzako Joseba eta Aitor Frutos anaiak bigarrenak izan ziren Pv3 klasean; eta Pv10 klasean, Inhar Amenabar eta Agurtzane Zubieta bosgarrenak. Gorka Idigoras eskoriatzarrak eta

U.BENGOA/A.GARCIA | JUNIOR MAILAKO TXAPELDUNAK

"Errepidea oso ondo ezagutzen dugu eta ez dugu jakin hori aprobetxatzen"

Unai Bengoak eta Ander Garciak Pv1 klasean, hau da, lehenengo klasean, eta gazteen mailan korritu zuten.

Gazteen mailako saria jaso duzue.

Bai, hiru izan gara, eta beste biek istripua izan dutenez saria geuretzat.

Zelako lasterketa egin duzue?

Ez da batere ona izan. Lehenengo txandan oso bizkor irten dugu eta dagoeneko lehenengo bi kilometrotara kolpea hartu dugu. Jarraitu ahal izan dugu baina autoa huts egiten hasi zaigu, motorra ez zebilen ondo. Hala, azken txanda esku batekin gidatuta egin behar izan dugu, bestearekin martxak aldatzeko kaxari eusten egon gara martxak irten egiten zirelako. Hala eta



guztiz, lehenengo klasean irabaztetik sei segundotara geratu gara. Pena denbora asko galdu dugulako arazoekin, bestela... Izan ere, errepide hau oso ondo ezagutzen dugu biok, asko ibili izan garelako bertan.

Baina guztia ez da izan txarra...

Ez. Azkeneko txandan egindako saltoarekin geratzen gara, hori izugarria izan da. Ez geneukan ezer galtzeko-eta... Jendea galdezka etorri zaigu zelan egin dugun halako hegalaldia...

Ibilbidea zelakoa dela esango zenukete?

Oso zaila. Euskal Herriko ibilbideen artean hiru zailenen artean dago, baina era berean oso polita da. Arrisku handiko errepidea da eta oso teknikoa.

Hortaz, abantaila zenuten ondo ezagutzen duzuelako, ezta?

Bai, hala da, eta ezin izan dugu behar bezala aprobetxatu abantaila hori. Baina zerbait ateratu dugu behintzat, eta sariarekin oso pozik goaz etxera.

Eguraldiak lagundu du.

Bai, bigarren txandan pentsatu dugu euria egingo zuela, baina garbitu egin du gero.



Eskoriatzako Joseba eta Aitor Frutos anaiak. | 15.



Pv5 klasean lehengo geratu ziren Aingeru eta Angel Castro. | 15.



b batean. | IMANOL SORIANO

Monika Muñozek, ostera, ezin izan zuten bukatu lasterketa.

Amenabar pozik zegoen Zubie- ta kopilotuarekin batera eginda- ko lanarekin: "Orain dela urte- bete kolpea eman nion autoari eta gaur arte ez dut ibili. Ondorioz, lehenengo txandan urduri ibili naiz, baina lasterketak aurre-

ra egin ahala gero eta gusturago jardun dut".


Txapelketa bukatzeko bakarra Aramaioko lasterketa denboral- diko zazpigarren proba izan da. Euskadiko txapelketa bukatzeko bakarra geratzen da, Goierrikoa; azaroaren 15ean jokatu dute.



Saillapen nagusian bigarren geratu ziren Mattin Villares eta Andoni Blas. | I.S.



Lehen hiru postuetako pilotuak eta kopilotuak sariekin. | M.A.



Automobil itxura duen goitibehera Apotzagako errepidean behera ziztu bizian. | IMANOL SORIANO

GOITIBEHERAK

Julen Agirreburualderen goitibehera, bizkorrena

Eskoriatzako lasterketa irabazi du, baita Euskadiko txapelketa ere

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako II. Goitibehera Lasterketak pilotu eta zale ugari elkartu zituen Apotzaga auzotik Intxaurtxueta bidean. Izan ere, han jokatu zen Euskadiko txapelketarako puntuagarria zen lasterketa. 67 goitibehera elkartu ziren, horietatik 21 eskoriatzarrak, eta lasterketa benetan politak egin zituzten askok.

Bergararra hirugarren

Apotzaga auzotik Eskoriatzarako ibilbideak 1.400 metro inguru ditu, eta hainbat bihurgune, batzuk oso dotoreak. Horregatik, dute gustuko lasterkariak: "Asko gustatu zait ibilbidea. Lehenengo etorri naiz Arratiatik eta gustura jardun dut", zioen lasterketa patinen gainean egin zuen mutilak. Bizkaitik bakarrik ez, Nafarroatik eta Logroñotik ere etorri ziren hainbat. "Harrituta gaude kanpoko jende asko etorri delako, baina pozik", zioen Jose Angel Urrutia antolatzaileak.

Motor hotsik ez, baina goma erre usaina bai, eta kolpe txikiak eta irristaketak ugari; baita zibarena egin ere. Modalitate ezberdinetan banatuta jardun zuten, eta argi geratu zen goitibeherarik bizkorrenak neumatika barruan daudela -lehen hiru postuak-. Hala, beste behin, Julen Agirreburualde legazpiarra izan zen txapelduna (01:23.067); bigarren geratu zen Aritza Castresana (01:24.964); eta hirugarren, Bergarako Jokin Gutierrez (01:25.943). Gorka Urrutia eskoriatzarra, ostera, zazpigarrena izan zen neumatikan eta hamargarrena saillapen

orokorrean. Gravity bike -bizikletak- modalitatean Iker Arizti izan zen txapelduna (01:28.568); arinetan, Unai Loiola (01:52.869); drift trike modalitatean, Xabi Aiastui (02:01.535); libreetan, Mikel Arraeta (01:39.896); eta errodamenduekin Jokin Abaitua (01:55.386).

Emakumezkoek, ostera, hiru goitibehera gidatu zituzten. Hona saillapena: lehenengo, Maddi Gutierrez bergararra; bigarren,

Leire Astiasaran eskoriatzarra; eta hirugarren, Yolanda Vita eskoriatzarra. Eta lehen hiru eskoriatzarrendako ere saria egon zen. Onenak izan ziren: Andoni Toston; Gorka Urrutia; eta Mikel Oiarzabal.

Etxeko egongela goitibeheran

Antolatzaileek, iaz legez, goitibehera berezia gertatu zuten: etxeko egongela. Pilotuarekin batera atzeko partean joan ziren bi emakume pijama eta erruloak jantzita, telebistari begira. Antolatzaileen asmoa lehiaketa eta jai giroa bateratzea da, eta horregatik goitibehera barregarrienak saria zeukan. Aurten, baina, oso serio hartu dute txapelketa eta hutsik utzi zuten sari hori.

Antolatzaileak pozik ziren bukaeran aparteko giroa izan zelako lasterketan, istripu larri- rik gabe eta inolako arazo barik bukatu zelako proba.

ESANAK

"Harrituta gaude kanpoko jende asko etorri delako"

J.A. URRUTIA | ANTOLATZAILEA



Maddi Gutierrez bergararra goitibeheran jaisten etzanda. | IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

Antzuolarren hutsegiteek eman diete garaipena hernaniarrei Eztalan

- ▶ Etxeko taldeak ez du aukera handirik izan gola egiteko
- ▶ Hernanikoek partidua lasai eta eroso jokatu dute

EMAITZA

ANTZUOLA

1-4

HERNANI

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Nahia eta ezina. Antzuolarrek dena eman gura zuten eta saiatu ziren arren, ezin izan zuten zapatu arratsaldean etxeko partidua defendatu. Jon Muruamendiaren mutilek aukera gutxi izan zuten, eta ate-area defendatzen ez zuten asmatu. Hernaniarrekin

gainera, gola egiteko aukerak aprobetxatu zituzten. Gol horietako asko, baina, antzuolarren hutsegiteen ondorioz etorri ziren.

Partidu motela eta aparteko erakustaldirik gabekoa izan zen. Hernani nagusi izan arren, ez zen jokaldi dotore askorekin gozatzeko aukerarik izan Eztalan.

Lehen zatian, txukun xamar


Gola sartu arte ondo ibili ziren lehen zatian antzuolarrak, bai defentsan eta baita jokoan ere. Baina falta baten ondorioz egin zieten gola hernaniarrekin. "Gola sartu arte ondo ibili gara, baina falta batean sartu dute eta ostean behera etorri gara pixka bat. Zelai honetan, baina, aukera izatea ez da horren zaila, eta lanean segitu dugu", azaldu du Aitor Godoy Antzuolako kapitainak.

Markagailuan 0 eta 1 zela atse-dendaldia iritsi zen.

Bigarren zatian, gol zaparrada

Partiduak, baina, itxura kaxkarragoa hartu zuen bigarren zatian. Lehen zatian egindako hutsegite berdintsuagatik etorri zen-eta hernaniarren bigarren gola. "Sartu dituzten gol gehienak gure erruagatik izan dira. Entrenamendutan landu beharko dugu, eta gure artean hitz egin".

Imanol Arantzabalen golaren ostean (1-2) partiduari buelta emateko aukerak zabalik zeuden oraindik. "Hirugarren gola etorri denean bi goleko alde horrek pisia ekarri digu eta igarri egin



Antzuolako eta Hernaniko jokalariek baloia eskuratzeko lehia. | IMANOL SORIANO

AITOR GODOY | ANTZUOLAKO KAPITAINA

"Gauzak hobetzeko daude baina denboraldia hasi besterik ez da egin"

Partiduaren bukaeran, Aitor Godoy taldeko kapitaina ez zen emaitzarekin bat ere gustura azaldu. Taldea oraindik "osatzen" dagoela azaldu du eta horrek puntuak eskuratzeko "oztopatzen" diela.

Taldea osatzen zabilzate. Asko aldatu da? Nola eragin dizue?

Jende asko etorri da kanpotik. Herriko gutxi gaude eta zelai txiki honetan jokatzera ohitu gabe daude oraindik jokalariek. Baina kalitatea badago eta entrenatzaileak gogotsu daude. Denboraldia hasi besterik ez da egin eta partiduak irabazi behar ditugu.

Zuen arteko komunikazioa falta zaizue?

Jende berria dago, baina joango gara elkar ezagutzen eta komunikazioa indartzen. Gogoz eta ilusioz gaude eta hori da garrantzitsua. Gauzak hobetzeko dau-



MAIDER ARREGI

de, baina esandako moduan denboraldia hasi besterik ez da egin. Nola ikusi duzu zure burua partiduaren?

Aurrean jolastean zelai honetan ez dago baloia askotan ukitzeko denbora. Zenbait gauza hobetzeko ere badituzte. Pixka bat txispa gabe gaude baina hobetuko dugu.

OHOREZKO ERREGIONALA

UDA hiru puntu lortu dituen bakarra denboraldiko bigarren jardunaldian

M.A. | ARRASATE

Debagoieneko futbol talde gehientsuenendako ez da oso borobil hasi denboraldia. Aretxabaletak, ordea, dagoeneko bi partidu irabazi ditu eta bigarren postuan dago sailkapen orokorrean. Zapatuan, Donostian, Martuteneren aurkako partiduan ere bikain aritu ziren aretxabaletarrak. Partidu osoan zehar nagusi izan zen UDA eta bukaeran, 0 eta 3 irabazita, hiru puntuekin etxera. Hirugarren jardunaldian, Zarautz hartuko dute etxean.

Bergarak, aldiz, ezin izan zuen Anaitasuna mendean hartu. Gol bakar batekin, partidua

erabakita utzi zuten-eta azkoitiarrek. Bergararrek datorren astean gogor lehiatu beharko dute punturen bat eskuratzeko eta sailkapen orokorrean pixkanaka gora egiteko.

Berdinketa Aloñarendako

Aloña Mendik, atzo, Zarautzen jokatuako partidua bana berdintzea lortu zuen. Hala, oñatiarrek puntu bat eskuratu dute eta sailkapen orokorrean hamahirugarren postuan daude. Datorren asteko partiduan, baina, dena eman beharko dute puntu gehiago eskuratzeko. Anaitasunak Azkoagain futbol zelaia bisitatuko du.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondrak 1-2 galdu du etxean Tolosaren aurka

Aukerak izan zituen Mondrak, baina denak aprobetxatu ez eta atzo, Mojategin, Tolosa nagusi izan zen. "Jokalariek hasi berriak urduri zeuden eta euren artean gutxi hitz egin zuten. Aukerak izan zituzten lehen eta bigarren zatian, baina, gol bakarra egin zuen Barberok", kontatu du Ramon Azkarate klubeko kideak.



JOSETXO ARANTZABAL

da", zioen kapitainak. Hala, hernaniarrek bigarren zatia eroso eta lasaitasun handiz jokatu zuten. Partidua menderatua zuten eta bazekiten. Horrek antzuolarrei min handia egin zien. "Bi jokalariek min hartu dute, eta gainera, 86. minutuan jokalariek bat kaleratua izan da. Ea datorren astera begira zorte handiagoa dugun. 15 jokalariek gaude eta dena eman beharko dugu". Datorren astean punturen bat lortzea izango dute helburu antzuolarrek Hondarribian. Biak, baina, punturik gabe daude eta lehia bizia izango da.

FITXA TEKNIKOA

Antzuola: Unai, Jon, Andoni, Markel, Danel, Aitor, Ibai (Mikel, 73.min) Oinatz (Julen, 85.min), Jokin, Julen, Jon A. (Imanol, 84.min).

Hernani: Iker, Gaizka, Sergio, Unai (Ander, 85.min), Aritz, Aitor, Iñigo, Andoni (Imanol, 75.min), Xabier (Paul, 83.min), Liker (Jon, 68.min), Aitor E. (Asier, 87.min).



Aretxabaleta kirol elkarteko kirolari guztiak (karatekoak izan ezik) elkarrekin, Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO

AURKEZPENA

Herriko Plaza kirolariz bete du UDAk denboraldi berria aurkezteko

la 400 kirolari elkartu dira, horietatik 300 baino gehiago futbol jokalaririk

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kirolariz beste zen Aretxabale-tako plaza egubakoitzean. Elkar-tean dauden talde guztiak aurkeztea zen helburua, eta karateko kideek bertan egoterik izan ez bazuten ere, gainerakoak han izan ziren: futbola; areto futbola; gimnasia erritmikoa; eta pilota.

Futbola da elkarteko izarra. 8 urtetik hasita 320 jokalaririk inguru ditu honako mailetan banatuta: futbol eskola; alebinak; infantilak (bi talde); kadeteak (bi talde); gazteak (bi talde); eta seniorrak (bi talde). Partiduetako kamiseta urdinarekin elkartu ziren guztiak, entrenatzailea eta taldearen arduraduna alboan. Eta horien artean alebinen entrenatzaile ardura hartu berri duen Jose Javier Barkero. Adrian Merino presidentea pozik agertu zen Barkeroren itzulerarekin: "Itzuli egin da eta guk ateak zabaldu dizkiogu, halaxe izan behar zuen eta. Oso pozik gaude; asko daki, profesionala da eta asko lagunduko digu".

Areto futboleko taldeko kideak ere elkartu ziren, 20 inguru. Baita gimnasia erritmikoko 40 bat neska, saioetako jantziarekin. Eta pilota taldeko kideak. Karatekoek bakarrik egin zuten huts, baina horiek ere, 30en bat kidek, orain hasiko dute denboraldia.

Bertikal babeslea

"Aurten ere babesle, eta luzaroan izatea gurako genuke. Ia UDAko Bertikal, Eibarko Servando izaten den", esan zuen Oscar Encinak, Bertikal enpresako ugazabak. Joko berriak erakutsi zituzten, eta UDAko koloreekin pertsonalizatutakoa.



Gimnasia erritmikoko neska taula gainean. | I.S.



Futboleko ohorezko erregional mailan jokatuko duen taldea. | I.S.



Pilotari gazteak Oihana Mata arduraduna alboan dutela. | I.S.

ADRIAN MERINO | PRESIDENTEA

"Izugarrizko laguntza ematen dute babesleek eta ohiko laguntzaileek"

Adrian Merinok elkarteko azken kontuen berri eman zuen.

Aretxabaleta herri kirolzalea da...

Bai, oso kirolzalea, futbol zalea batez ere.

Bestekirolbatzukere badituzue, ezta?

Iaz egin genuen halako aurkezpena lehenengoz eta orduan futbolariak elkartu genituen. Aurten gainerako sailei zabaldu diegu ekitaldia. Baten batek ez du etortzerik izan baina gainerakoak badaude.

Eta aurten ere Bertikal duzue babesle nagusi.



Hori da, ohikoekin batera. Izugarrizko laguntza da elkartearendako; izan ere, horiei esker ditugu: kuotak txikiagoak, entrenatzaile onenak, lbarraren mantenu hobea...

Erronkak denboraldiari begira?

Futboleantzerik emaitza hobetzea onartu genuen batzar orokorrean; zaila izango da hori, baina ohorezko erregionalen talde honek ez du mugarik. Umeek, ostera, ahalik eta gehien ikas dezatela eta ondo pasatu.

IGOR ARENAZA | FUTBOLEKO KIROL ZUZENDARIA

"Eskua Proiektuarekin jarraituko dugu, bereizten gaituen proiektua da-eta"

Kirol zuzendariak erronken gainean jardun zuen.

Aurten ere futbolarri mordoa, ezta?

Bai, talde mordoa ditugu futbol eskolatik hasita. Politika da Aretxabaleta moduko herri batek halako harrobia izatea.

Neska animatua nahian ere bazabiltzate...

Bai, erronka hori da zelan barneratu neska. Beste elkarte batzuekin egon dira saiakera batzuk eta ea aurrera begira egoera aldatzen dugun.



Eskua Proiektuarekin jarraitzeko asmotan?

Bai, bereizten gaituen proiektua da eta entrenatzaileengandik hasita ume, guraso eta elkartearendako ere garrantzitsua. Emaitzak luzera ikusiko dira.

Eta futboleantzerik duzuen erronkak?

Oinarrizko futboleantzerik da ikastea: formazioa eta pertsona moduan haztea. Seniorretan emaitzak dira garrantzitsuak, baina lana ondo eginez gero etorriko dira.



Famili argazki handia, 18 taldeetako kideekin, zuzendaritzak eta entrenatzaileek lagunduta. | JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOA

Ilusioa bezain handia da Ointxen aurten aurkeztu duen jokalaria taldea

► Klubeko 18 taldeen aurkezpena egin zuen atzo Arrasateko Ointxe-k; inoizko jokalaria gehien

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Bularraldea ondo puztuta esan dezakete Ointxe klubekoek talde handia dutela. Atzo egin zuten talde eta kategorien aurkezpena eta esan dezakete Ointxeren proiektuan ia 200 kirolarik hartzen dutela parte, txikienen eskolatik hasi eta EBA mailako taldera arte. Hain zuzen, MUK Santurtziren kontrako partidua baino lehen egin zuten aurkezpena, 18 talde eta ilusioa trumilka. Familia argazki ederra atera zuten kirolariek, zuzendaritzak eta entrenatzaileek. Gerra-oihu duten "Ointxe, ointxe, ointxe! Mondra!" ozen botata, borobildu zuten aurkezpen jendetsua.

Garaile, azken segunduan

Euskal Kopako partiduari dago-kionez, doi-doi eta azken segunduan irabazi zieten Larreategiren mutilek Santurtzikoei. Azken aurreko 12. segunduan bateko aldearekin galtzen zegoen MU baina azken bi segundotan entrenatzaileak agindutako jokaldiari esker, asmatu, bi puntu eskuratu eta 77-76 irabaztea lortu zuten etxekoek. Entrenatzaileak, bere aldetik, lehen zatiaren hasieran egindako joko ona nabarmendu du; Santurtzi talde "handia" baita. Hiru aste besterik ez daramatza taldeak lanean eta Larreategik itxura ona hartu dio jada.

Atzokoa Euskal Kopako lehen faseko azken partidua izan zuen MUK. Fase hau amaituta esperoan daude bi talderik onenak zeintzuk izango. Hala ere, nahiz eta oraingoan irabazi, aurreko partiduko 26 puntu negatiboek itxaropen gutxi uzten diete printzipioz.



MU taldea, EBA mailan dago aurten. | JOSETXO ARANTZABAL



Santurtziren aurkako partiduarn, MUKren saskiratze bat. | JOSETXO ARANTZABAL

GORKA ZURUTUTZA
KIROL KOORDINATZAILEA

"Lanak, lehenago ala beranduago, fruitua ematen du normalean"

Josu Larreategik orain 4 urte ekindako proiektuak eman ditu jada bere fruituak. Atzo 18 talde eta ia 200 jokalaria aurkeztu zituzten. Lan onak erakutsi du bidea. Gorka Zurututza da kirol koordinazioaz arduratzen dena.



Harro egoteko moduko aurkezpena egin du Ointxek. Talde potoloa duzue, ezta?

Oso pozik daude jokalaria kopuruarekin, inoiz izan dugun handiena da. Orain, baina, beti esaten dugun moduan, lanean jarraitu beharra dago.

Boladan al dago, bada, saskibaloia?

Izan liteke. Futbola beti futbola izango da, azken finean, baina guk jarraitzen dugu eta ematen du azkenaldian jendea animatzen zaigula. Bereziki azpimarratu beharra dago orain dela 4 urte Josu Larreategik ekin zion Saski Eskola proiektua. Aurkezpenean ikusi duguna horren emaitza da, zalantza barik. Horren azpian lana egin beharra dago. Lanak, normalean, lehenago ala beranduago fruitua ematen du. Ahalegin guztiak, ondo etortzen dira.

Begirada guztiak EBA ligan dauden arren, adin guztietan dituzue taldeak.

Guk garbi dugu EBAKo sari bat izan dela eta berdin-berdin izan daitezke urte bat, bi ala hiru; ezin jakin. Guk argi dugu oinarrian jarraitu beharra dagoela lana egiten. Zuzendaritza mailan eta entrenatzaileen artean oso garbi idugu guk hori. Garrantzitsuen behetia da eta hori deskuidatzen bada, gero ez dago ezer egiterik.

Oinarriak zeintzuk dirak?

Guk klubean bi entrenatzaile erreferente ditugu: Josu eta Iñaki. Guk esan ohi dugu saskibaloia izan ohi dela onenari kopiatu eta ahal dena egitea. Modelo bat badugu klubean eta hori ezartzen saiatzen gabilta. Denbora behar du horrek, noski.

Eta EBA ligan, ze itxaropen?

Zaila da esaten. Urte gogorra izango da. Etxekoekin jokatzeko dugu baina ilusio handia daukagu. Azkeneko partidura salbatzeko aukerarekin iritsen bagara, pozik egongo gara. Hori izango da saririk handiena. Saillapenaren erdian, azken aurreko ala hirugarren geratu... hori beste kontu bat da. Taulan gorabehera asko daude eta hori balioa da. Salbatzera heltzen bagara, emaitza ona izango da.

KIROLA KALERA

Nahi adina kirol gustu eta adin guztientzako

Kirol jarduerak doan probatzeko aukera dago egunotan, Agorrosinen

MAIDER ARREGI | BERGARA

Domeka goizean, kirola izan zen Bergarako erdiguneko protagonista. Karatea, defentsa pertsonala, pilota, spinninga, eskalada, saskibaloia, patinajea... nahi adina kirol gustu eta adin guztiak asetzeko. Pilotaleku kanpoaldean txikiek karate erakustaldia egin zuten. Jende ugari erakarri zuen horrek; baita aurretik helduagoek egindako defentsa pertsonalaren gaineko erakustaldiak ere.

Seminarioko patioan, eskalada egiteko aukeraz gozatu zuten askok. Slackline delako modalitateak ere gaztetxo zein guraso ugari erakarri zituen soka gainera igo eta oreka mantentzeko saiakerak egitera. Kirol zinegotzi Lauri Azkargortak hain zuzen, adin guztietako jendea probatzera animatu gura izan dutela azpimarratu zuen. "Nahi duen orok

probatu ditzake kirol modalitate guztiak. Klubean egiten den lana herriari erakutsi nahi diegu".

Ate irekiak

Agorrosinen, kirol jarduera ezberdinen doako saioak izango dira

egunotan; mendi irteera ere antolatu dute. Bestalde, Iñaki Ugarteburu kirol teknikariak jakinarazi zuen eskola kirolaren programa soinketa eskoletara zabaldu nahi dutela eta eskaintza zein den erakutsi.



Saskibaloia partidua egin zuten gaztetxoek. | MAIDER ARREGI



Eskalada egiteko aukera izan zuten Seminarioko gunean. | MAIDER ARREGI



IÑAKI UGARTEBURU
KIROL TEKNIKARIA

"Herrian egiten dena erakutsi nahi dugu gaurkoan kirola kalera aterata. Jendea animatu gura dugu kirola egin dezan. Herritarrek ondo pasatzea da gure helburua; kirola ikusiz eta kirola eginez disfruta dezatela".



JOKIN ETA PEIO
BERGARARRAK

"Guri txirrindularitza gustatzen zaigu gehien; beno, futbola ere gustuko dugu egia esan. Gaur, baina, kirol ezberdinak probatzen ibili gara. Karatea nola egiten duten ere ikusi dugu. Aukera polita dela uste dugu".



SAIOA ETA AINHOA
BERGARARRAK

"Karatea ez da kirol erraza; dedikazio eta entsegu ordu asko behar ditu maila perfektionatzeko. Guri asko gustatzen zaigu baina denbora izanez gero beste kirol batzuk probatzera ere joango gara gaurkoan".



Karate erakustaldiak jendea erakarri zuen pilotaleku kanpora. | MAIDER ARREGI

TXIRRINDULARITZA

Eneko Lizarralde bergararra garaile Oñatiko lasterketan

118 txirrindularik hartu dute parte Lehendakari txapelketan, denboraldiko azken lasterketan

MAIDER ARREGI | OÑATI

Zapatuan jokatu zen Lehendakari Txapelketa Oñatin, denboraldiko azkena. Gipuzkoa taldeko Eneko Lizarralde bergararrak eskuratu zuen garaipena.

Lasterketa nahiko azkarra izan zen. Pelotoia, aldiz, helmugara oso zatituta heldu zen. "Lasterketa azkarra izan da; 43,2 kilometro orduko batz besteko abiadura egin dute. Helmugara, baina, pelotoia oso zatituta iritsi da", azaldu du Aloña Mendi txi-

rrindularitza taldeko lehendakariak, Kepa Umerezek.

Guztira, 118 lasterkarik parte hartu zuen denboraldiko azken lasterketan. "Udanan gora pelotoia apurtu egin da, eta hor hartu du aurrea Eneko Lizarralde. Talde txiki bat ihes eginda ibili da azken kilometrotan eta lau iritsi dira azkenik, metara, elkarrekin", gaineratu du Umerezek.

105 kilometroko ibilbidea egin zuten txirrindulariek Udana eta Atagoiti igoz, besteak beste.



Eneko Lizarralde bergararra garaipena ospatuz helmugan. | IMANOL SORIANO



UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:

Baita hemen ere: 



TXIMELETAK. Alemaniako Mainau irlako tximeleta museoa eginiko argazkia. Argazkia: Danel Etzaniz / Eskoriatza



BANAUE. Filipinak. Egun pasa mendian ibili ondoren, arratsaldeko ekaitza bota aurretik zeuden eguzki izpi bereziak. Argazkia: Xabier Mondragon / Bergara



DELHIKOMERKATUA. Argazkia Delhiko espezie merkatuan aterata dago eta gomendio bakarra begiratu gabe errepeidea pasatzea da, hori bai, poliki poliki... Argazkia: Mikel Uribarren / Arrasate



AIREPORTUAN ZEHAR. Gibraltar, aurtengo abuztuan aterata. Gibraltarren sartzeko beharrezkoa izaten da bertan dagoen aireportuko pista zeharkatzea. Argazkia: Aitor Zubia / Arrasate



TXAKURRA HONDARTZAN. Conil, aurtengo abuztua. Beagle hondartzan, ilunkaran. Argazkia: Beatriz Cantera / Eskoriatza



GORA ESKUAKI! Ekainean Basabeazpi ikastolako kurtso bukaerako jaialdian, nire semea Mikel dantzan. Argazkia: Miguel Angel Alvarez / Aretxabaleta




EGUZKIA HARTZEN. Zerbitzariak bakarrik falta dira, azken hauei daikiri bana zerbitzen. Kuriosoa estampa. Donostia, abuztuko edozein egunetan. Argazkia: Aimar Elortza / Arrasate



TOKYO. Tokyon ateratako argazkia, Hinjuku auzo inguruan. Argazkia: Gaizka Unzueta / Arrasate



BERO-BERO. Nazare, Portugal. Hiru katakume parrilaren berotasuna aprobetxatzen. Argazkia: Amaia San Torcuato / Bergara



ERREPIDEAREN KURBAK. Errepidean aurrera, kurbarik kurba. Argazkia: Iban Morales

X. GOIENA LEHIAKETA

blogak.goiena.eus/argazkiak



udakoargazkiak  udakoargazkiak



MARIGORRINGOA. Landan uztail bukaeran marigorringoa bitxiloretik jaisten. Argazkia: Ainhoa Markaide / Arrasate



AGUR EGUZKIARI. Abuztuan hondartzatik bueltan ataratako argazkia. Ilunabarra Zumaiatik Getarirako bidean. Argazkia: Asier Murguzur / Arrasate



KOLORETAN AMESTEN! Sucren (Bolivian) ateratako argazki kurioa. Bertan, haur boliviarrak amaren dendan. Argazkia: Elene Berezibar / Aretxabaleta




ZAIN. Burdeoseko "Mac" denda kanpoan barrura sartzeko itxaroten dagoen jendea. Argazkia: Sara Mantxola



HODIBARRUAN. Kanpinetik hondartzarako bidea halako hodi handitik barrena joanda egin behar zen. Gu baloiarekin argazki "berezia" ateratzen saiatu ginen. Argazkian, ni neu agertzen naiz. Argazkia: Uxue Ugalde / Oñati



KONTXARA BEGIRA. Miramar jauregitik Kontxarako bistekin disfrutatzen bikotea. Argazkia: Itziar Larrañaga / Oñati



EZKUTATUTA. Karramarroa hondar azpian ezkutatu da gu heltzerakoan. Nojan hondartzan ateratakoa aurtin, irailean. Argazkia: Mikel Lopez de Arkaute / Arrasate



BADATOR ENBATA. Enbata Kontxako hondartzara heltzen da, udako egun berotsu baten ostean, eta sorosle-postuaren sabaia altxatu du. Donostian aterata, aurtengo uztailan. Argazkia: Mikel Maidagan / Arrasate



Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinakoa bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otxalora Lizentziaduna 31, Arrasate.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdina aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira.

Sariak:

- 1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 2. saria:** Orioko Aisia hotela, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
- Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

* Oinarri guztiak: ttiki.com/70956

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:



Erromeria, gaztelu zaharraren aztarnak harrotzeko aitzakia gisa

Jaia indartu dute aurten eta orain erronka muinoaren balio sinbolikoa errotzean dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Iaz proposamenak ezustean harrrapatu zituen herritarrak, baina erantzun bikaina izan zuen gonbidapenak. Aurten gogotsu heldu diote atzera ere Zuztarrak Errotuz elkartekoek eta herriko hainbat kultura taldek, eta "hobetu" egin ei dute. Hala diote elkartetik eta "jende gehiago eta batez ere gazteak" joan zirela zapatuan Goikobaluko erromeriara.

Jai giro betean

Gutxi ukatuko dute Santa Barbarako muinoa Arrasateko txorrik dotoreenetakoa dela. Ederra bezain ahaztua sarri, tamalez. Erromeria berpiztua lekuaren aberastasuna balioestera dator, festarako aitzakia ezin hobea emateaz gain. Eta horretatik, jai girotik, asko izan zuen zapatukoak. Seberretik eguerdian abiatu ziren kalejiran, aldatsari txistularien doinuekin eta umorez ekiteko gertu. Atalataikoan egin zituzten gorainoko azken metroak. Ahaleginaren sari, zain zeuzkaten Goikobalun Aramaioko sagardogileak eta SUDCekoak taloekin; eztarri eta sabelen bizigarri. Albokari, txalapartari eta trikitalariak arduratu ziren soinu-girotzeaz. Mahaia lautada borobilaren ertz osoa hartuta atonduta, bazkaria egin zuten. "Arrasate oso kultura urbanodun herria" izan dela azaldu du Xabier Zubizarreta Zuztarrak Errotuzeko kideak eta erromeria berreskuratzeak "balio handia" duela zentzu askotan.

Iraganari zor

Herriaren zabalkundearekin gaur egungo Arrasaten galdu samar geratu bada ere, Arrasateko bihotzaren zati handi bat izan da Santa Barbara ingurua mendeetan zehar. XII. mendean jada bertan zegoen gazteluaren hondarren gainean egin zuten festa zapatuan eta, horregatik, elkartekoek gotor-



Bazkaltiarrek, mahaiaren bueltan, Goikobalun bertan. | IMANOL SORIANO

lekuaren historia eta ezaugarriak azaltzen dituzten panelak ipini zituzten parkean. Zubizarretak nabarmendu du muinoak duen "balioa ikuspegi sinbolikotik". Horregatik, zentzu bikoitza ematen dio hark erromeriari: batetik, Santa Barbara berriz herrian integratzea bilatzen delako; eta, bestetik, inguruak berak duen balio historiko eta kulturala sustatzeko. Hala, elkartearen helbu-

ru behinena "azterna historikoak berreskuratzen joatea" denez, garai bateko erromeriaz birjabetzearekin batera gazteluaren aztarnak berriz azaleratzea mereziko lukeela noizbait iradokitzen du Zubizarretak. Oraingoz, historiaren harrizko lekukorik ez dago ikusgai, baina, trukean ala zorretan, historiaren aldarri moduan, Nafarroako bandera eskegi eta haizatu zuten Goikobalun.

Jaiak, historiak, zein eguraldi paregabeak animatua, motiboak motibo, erromeria primerakoa egin zuten zapatuan eta iaz proposamen bitxi moduan hartu zena bigarren urtean jada mamitu eta indartu egin da. Ezin pozago, hortaz, Zuztarrak Errotuzeko ordezkariak eta kide izan dituzten elkarte eta talde guztiak aurten.

ESANAK

"Muinoak balio sinboliko handia du Arrasaterentzat"

XABIER ZUBIZARRETA | ZUZTARRAK ERROTUZ



Txistulariek gidatutako erromeria, Gazteluondo kalean. | IMANOL SORIANO



Lide eta Eneritz trikitalarien saioa, zapatu arratsaldean. | JON BEREZIBAR



Txalapartariak Nafarroako bandera ostekaldean dutela. | IMANOL SORIANO



Donostiako Orfeoiko kideak, antzokian. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Donostiar bainoago 'castizo', oraingoan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Luxuzko gonbidatuarekin egin du Goikobaluk ospakizun urteko azken aurreko ekitaldi handia. Donostiako Orfeoia bete egin zuen zapatu iluntzean Amaia antzokia zarzuela, musika arin zein betiko euskal klasikoekin osatutako erreperorioarekin.

Harreman estu eta luzea

Goikobalu abesbatzak eta Donostiako Orfeoia duten harremana

ez da atzo goizekoa. Hain zuzen ere, ekitaldiaren hitzaurrean azaldu zutenenez 1896an egin zuen orfeoia sortzeko hazia izan zen taldeak lehen emanaldia Arrasateko garai hartako euskal jaietan. Garaiko kronikagileek, antza, abesbatza horrek abestu zituen "euskal gauzak" deigarriki nabarmendu omen zituzten. Ia 120 urte geroago, gaur egungo kronikentzako deigarria izan zena zapatuko emanaldirako euskal abes-

FITXA	
ANTZOKIA	
DONOSTIAKO ORFEOIA	
Estiloa: Abesbatza.	
Piezak: Zarzuela, abesbatzak, euskal kantuak.	
Non: Amaia antzokia.	
Eguna: Zapatua, irailak 20.	
Iraupena: Ordu eta erdi.	

batza batek aukeratutako erreperitorio *carpetovetonicoa* izan zen: *La verbena de la paloma*, *Don Manolito*, *La golondrina*... Halako piezekin osatu zuten kontzertuaren lehen erdi osoa. Agian Arrasaten dagoen zarzuelarako zaletasuna kontuan hartu eta keinu moduko bat egin gura zuten Orfeoikoek, ukitu *castizo* erabatekoa izan zuen emanaldian. Hala ere, deigarri eta azpimarragarri gutxi izan zuen zapatuko ema-

naldiaren bigarren zatiak abesbatzen ia derrigorrezko klasiko diren *Edelweiss*, *Negra Sombra*, *Txoriak txori* ala *West Side Story* ezagunaren moldaketak entzun ahal izan ziren-eta.

'Carmina Burana' hurrena

Goikobalu abesbatzari dagokionez eta ospakizun urtea ezin hobeto borobiltzeko, indar eta mimo guztiak prestatzen dabilzan eman-kizunean dauzkate jarriak jada. *Carmina Burana* obra ederra abestuko du abesbatzak. Buru-belarri dihardute entseguekin eta aurreratu dutenez, Tolosako Abesbatza zenaren kide ohiak ere batu zaizkie. Martitzen eta egugetan batzen dira Saiolanen.

Harrera ona izan du Aitor Arregiren laburrak

J.B. | ARRASATE

Txalo beroak eta ikusleen oniritzia jaso zuen Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* film laburrak barikuko estreinaldian, Zinemaldian. Zabaltegi saileko *Challat Tunes* filmaren aurretik izan zuen estreina Arregirenak eta bertakoen arabera, iritzi onak utzi zituen filmak.

Emanaldiak astean

Oñatiarraren film labur berria aste osoan egongo da ikusgai Zinemaldian, hiru saiotan. Hala, emanaldiak hauek dira: gaur, astelehena, 16:00etan Trueba aretoetako bigarren gelan; barikuan, hilak 6, Trueba 1en eta azkenik, azken pasean, zapatuan hilak 27an Anoetako Belodromoan, hain justu ere.

Plentziara joan da pintura lehiaketako sari nagusia

Leticia Gasparrek Unibertsitatearen sarrerari egindako margolanak eskuratu du lehen saria

J.B. | ARRASATE

Parte-hartzaile kopuru polita eta lanen maila ona izan du aurtengo Oñatiko ageriko pintura lehiaketak. Nagusietan lehen saria Plentziara joan da, Leticia Gasparrentzat, eta 16 urtetik beharagoetan Martin Uriartek jaso zuen saria atzo. 36 parte-hartzaile egon dira aurtengo; nagusietan 22 eta gaztetxoetan 14.

Unibertsitateko sarrerari egindako lan batek eskuratu du 600 euroko sari nagusia aurtengo; Leticia Gasparrenak. Bigarren Raimundo Arcos bilbotarra geratu da (400 euro) eta Imanol Kerexeta azpeitiarra hirugarren (300 euroko saria).

Gaztetxoei dagokienez, Martin Uriartek irabazi du lehiaketa eta 100 euro jaso ditu sari modura. Bigarren eta hirugarren lekuetan

Ines Uriarte eta Maddi Altorgirre geratu ziren eta garaikur bana eraman zuten etxera neskatxo oñatiar biek.


Bixente Elgero antolakuntzako kideak nabarmentzen duenez aurreko urteetatik hazi egin da partaidetza eta pozteko modukoa da hori. Zaletasunaren sasoi ona erakustearrekin batera Oñatira kanpoko margolari asko etortzea ere nabarmentzekoa iruditzen zaio Elgerori egun hauetan han eta hemen, herri askotan, pintura lehiaketa asko egingen baitira.

Erakusketa Kultura Etxean

Atzoko lehiaketako margoekin eta pintura ikastaroko gainontzeko lanekin gaur erakusketa irekiko dute Kultura Etxean. Lanak urriaren 12ra arte egongo dira bertan 18:00etatik 20:00etara.



Margolari bat Patruze kalean. | JOSETXO ARANTZABAL



Margolari familia, Unibertsitate aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL

GURE MUSIKA TALDEAK

AIN_1



Ain_1 laukotea Elekrika grabazio estudioan. | JAGOBA DOMINGO

"Fase baten amaiera izango da 'Badoa, badirau' diskoa; 'gero arte' bat izango da"

- Barriusorekin Azpeitiko Elekrika estudioan grabatu du laukoteak
- Azaroan lan berria esku artean izatea espero dute

G.A./J.D. | ARRASATE

Estudioiko bigarren lana labean dauka Ain_1 laukoteak. Azpeitiko Elekrika grabazio estudioan sartu ziren maiatzean Ander Barriusorekin *Badoa, badirau* grabatzeko. Teknikariak helduago ikusi ditu grabazioan eta talde bezala hobeto funtzionatzen dutela uste du. Ildo beretik jarraituta, Ain_1ek diskoa lasaiago eta landuago prestatzeko aukera izan du.

Noiz hasi zineten bigarrenarekin? Maiatzean sartu ginen estudioan bigarren diskoa grabatzera eta uztail amaiera aldean nahasketak

entzutera joan ginen. Orain, diskoa azken fasean sartuko da.

Zer aurkituko dugu bertan?

Disko hau prestatzen bi urte eman ditugu, eta lan nahikotxo egin dugu lokalean. Gutxi gorabehera lehenengo diskoko ezaugarriak mantentzen dituen arren, aldaketa batzuk sumatu dituzte entzuleek. Esaterako, beste instrumentu batzuk sartu ditugu kantuetan; gitarra elektrikoa eta harmoniuma, adibidez. Diskoa gehiago lantzen saiatu gara; lokalean esperimentatu egin dugula esan genezake. Kantu batzuk guztiz aldatu

dira lehenengo ideiatik emaitzara. Oinarri batetik, ideia moldatu, apurtu eta berriz hasteraino heldu gara. Sortze prozesuak lan handiagoa eman digu, estiloetan eta kantuetan arreta handiagoa jarri dugu kantu bakoitza berezia izan dadin saiatu gara, batzuetan dakarren buruhaustekin, baina gustura geratu gara. Diskoa osoa izango da? Ez dakigu; ezberdina badela uste dugu.

Zer da *Badoa, badirau*-rekin lortu nahi izan duzuen?

Ez dugu inolako helbururik jarri, nor bere ikuspuntu eta detaileak

eman dizkie kantuei, eta, horren guztiaren emaitza da diskoa.

Nola joan da grabazioa?

Bigarren disko honetako grabazioan lokalean sartu ditugun orduak asko nabaritu ditugu. Entseguetan lan handia egin dugu eta kantuak errazago grabatu ditugu, konfiantza handiagoarekin. Aurreko lana ere Barriusorekin grabatu genuen, elkar ezagutzen genuen, eta guztia errazagoa izan da. Horrez gain, behin estudiotik pasatuta, hurrengo bat irudikatzea errazagoa izaten da, badakizu zer egin behar duzun eta nola funtzionatzen duen. Gure ustez, alde batetik, esperientziari esker eta, bestetik, lokalean egindako lanari esker grabazioa oso ondo joan da, detaileetan arreta handiagoa jartzeko aukera izan dugu.

Nondik nora doa diskoa?

Hamar bat kantu ditu diskoak, eta bertan, guk idatzitako kantuez gain, Jon Mirandek idatzitakorik ere badago. Interesgarria pentsatu zitzaigun Miranderen letra bat musikatzea, literaturatik eza-gun genuen-eta. Horrez gain, aurreko lanean bezala, Jon Olanoren hitzak ere badaude. Abes-

tiak lehenengo pertsonan daudela esan genezake; edozein sortzailearen nahia inguratzen zaituzten errealitateei kantatzea dela uste dugu. Hala ere, denetik dago; egunerokotasuneko kontuak, maitasun kontuak, euskalkian ere abestera animatu gara... egia esan, disko honek badu kontaketa bat emakumetasunetik egindakoa eta emakumeentzakoa.

Zein kontzeptu dago bigarren diskoaren atzean?

Ain_1 momentu honetan amaierako fase batean dagoela esan genezake, eta kontzeptu horretatik heldu da *Badoa, badirau* titulu. Hasiera baten, etentxo bat egiteko asmoarekin gabiltza; beraz, diskoaren aurkezpeneko kontzertuak emozionalki politak izango direla pentsatzen dugu. Nolabait, agurtzen egongo gara, eta hori berezia izango da.

Nola irudikatzen dituzue agur kontzertu horiek?

Borobiltze antzerako bat izango da. Nolabait, eten baten baten aurrean edo fase baten amaiera aurrean kokatzen zarenean, sentsazio polita da; atzera begiratzea, datorrenari gogor heltzea... Kontzertuak, gainera, bereziak izatea nahi dugu, jotzen ditugunak aukeratzeko da gure asmoa, gustura sentitzen garen espazioetan jotzea da gure asmoa, lagunez inguratuta... finean, guk geuk eta ingurukoek ahalik eta gehien disfrutatu ahal izateko. Gozatzeko eta gozarazteko asmoarekin egindakoak izango dira *Badoa, badirau*-ren aurkezpen kontzertuak.

"Gozatzeko kontzertuak izango dira hurrengoak"

Maria Jose Lera | Golden 5 hezkuntza proiektuko sortzailea

"Umeen lorpenak eta gaitasunak txalotzen ikasi beharko genuke"

Psikologian oinarritutako heziketa programa da Golden 5; egitasmoaren helburu nagusia da ikasleen zein irakasleen motibazioa hobetzea

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Baikortasuna kutsatzen du Maria Jose Lerak. Oñatiko Txantxiku ikastolara berriki egindako bisita baliatu dugu zenbait galdera egiteko.

Zein da sekretua? Nola hobetzen da motibazioa?

Umeen lorpenak eta gaitasunak txalotzen ikasi beharko genuke. Ohikoena izaten da gabeziak nabarmentzea, eta eskolan ere hori gertatzen da. Baina motibazioz eza, azken finean, sintoma bat besterik ez da. Sorkuntza, iniziatiba, pentsamendu kritikoa, segurtasuna... sustatu nahi badiugu, umeak gustura eta motibata egon behar du eskolan. Nola lortzen da hori? Lorpenak txalotuta eta zailtasunak gainditzeko baliabide egokiak eskainita.

Sistemak ez du hori ahalbidetzen?

Hezkuntza sistema formalak sariaren eta zigorraren eredu jarraitu ohi du. Ariketa gainditzeko baduzu, saria duzu —nota ona, prestigioa...—, eta gainditzeko ez baduzu, zigorra —nota txarra, etiketa...—. Sistema horrek ematen ditu emaitzak, baina epe laburrean. Frogatuta dago epe luzera ez dela eraginkorra. Eskola, gainera, eremu publikoa da. Ezintasunak eta zailtasunak behin eta berriz nabarmentzen baditugu, azkenean, segurtasunik eza eta autoestimazio arazoak sortzen ditugu. Helburua bada motibatzea



Maria Jose Lera, Oñatiko Txantxiku ikastolan. | L.Z.

"Erronkak planteatu behar dira, eta gaindi daitezkeen ariketak ipini"

eta ume guztien gaitasunei zukua ateratzea, animatu eta lagundu egin behar dugu, baikortasunetik. Mezuak izan behar du: "Zuk ahal duzu!".

Baina batzuetan ezin du. Nola jokatzen behar dugu orduan?

Erronkak planteatu behar dizkiegu, eta gaindi ditzaketen ariketak ipini. Irakasleak edo gurasoak eskaileratxo egokia diseinatu behar du; hau da, ariketa plangintza egokia egin.

Eta gurasoei zer esango zenieke ikasturte hasiera honetan?

Ez ahaztu gu garela gure seme-laberen erreferente nagusia. Txalotu gehiagotan ondo egindakoak eta lagundu zailtasunak dituzten alorretan. Lorpenak ikusten ikasi behar dugu etxean ere. Aldaketa txiki horrekin soilik umearen jarrera aldatu egiten da.

Gorka Torre: "Irakaskuntzak ez du ikasketa egiten"

Hezkuntza eskolarretik hezkuntza herritarra pasatzea aldarrikatzen du Bizi Tokiko ordezkariak

L.Z. | ARRASATE

Haurrak herriaren baitan hezi behar direla dio Bizi Toki eskolako Gorka Torre *Guraso.com* atarian. Azaltzen du sortzen direnetik erabiltzen dutela metodo zientifikoa umeek. Galderak egin, teoria edo hipotesiak asmatu, horiek frogatzeko irakurri, behaketa egin, esperientziak planifikatu... Prozedura ez kontzientea dela dio, baina oso eraginkorra. "Baliteke beren ikasketek kontziente bilakaraztea umeekiko egiten dugun huts pedagogiko handienetakoa izatea", adierazten du. Izan ere, eskuratze naturala,

informala aldarrikatzen du Torre. "Nork bere baitatik zerbait ulertzea azalpena eskuratzea baino hobea da beti".

Ez irakaslerik, ez ikasgelarik

"Haurren hezkuntza bermatzeko ez da irakasle izendaturiko pertsonarik behar", dio Torre. "Hau da, jakintzaren hedapenean espezializatua den jenderik ez da behar, ez eta ikasle izendaturiko haurrik ere". Ikasgela tradizionalak ere auzitan ipintzen dituzte Bizi Toki proiektutik. "Biziki onuragarria da hezkuntzaz ez egitea bereiz den espazio batean kokatzen den

jarduera bat. Klaserik ez egitea. Haurrak eskolaren hormen artean egotea ez behartzea. Bai, ordea, sortzen diren unetik herritarren arteko harremanetan etengabe murgildurik egoteko parada ematea haurrei".

Ikasgaiak adinka sailkatzea ere ez dute egoki ikusten. "Une egokia haurra gai batekin oso interesatua dagoen unea da", dio Torre. "Haurrek beren inguruko jardueretan esku hartu nahi dute. Esplorazio sena badute. Haur zaharagoek eta helduek burutzen ditugun jardueretan esku hartzeko aukera eman behar zaie, beren gaitasunen arabera. Ikasketa horiek iraunkorrak eta ongi barneratuak dira".

Guraso.com atarian aurkituko duzue Gorka Torre egindako gogoeta oso-osorik, eta, gai sakondu gurasu gero, liburu bat ere gomendatzen du: Pedro Gartzia Olivoren *La bala y la escuela*, hain zuzen ere.

2013ko 'Haur eta gazte literatura irakur gida' sarean dago

L.Z. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiak 2013an argitaratutako haur eta gazte literaturako 60tik gora titulu biltzen dituen gida kaleratu du. Yera Sanchez ilustratzailearena da azala, eta sarean dago eskuragai.

Haur eta gazte literaturaren inguruko hamahiru lagunek osatu dute aukeraketa egin duen mintegia, eta 60 liburu baino gehiago irakurri, irakurketak kontrajarri eta baloratu dituzte. Besteak beste, hizkuntzaren erabilpena, kalitate literarioa eta gaiari ematen zaion tratamendua hartu dituzte kontuan gida zerrendatzeko.

2001ean hasi ziren Huzezi fakultateko Haur Liburu Mintegiko kideak literatura gida kaleratzen. Egitasmo horretan elkarlanean jarduten dute Deba-goieneko udal liburutegietako eta ikastetxeetako ordezkariekin batera.

2013an euskaraz publikatu diren argitalpenak dira gida berriaren oinarria, eta, orokorrean, bi modutan sailkatzen dituzte irakurri dituzten lan horiek guztiak: *Liburu gomendagarriak* eta *Oso gomendagarriak*. Azken horiei, gainera, aztertzaileek iruzkin bana gehitu diete.

Gida www.mondragon.edu atarian dago eskuragarri PDF formatuan.



Irakur gidaren azala. | YERA SANCHEZ

ERREZETA

Sagutxoak arrautza eta atunarekin

L.Z. | ARRASATE

Proposamen freskoa eta dibertigarria egiten dizuegu *Guraso.com* atarian. Oinarrian arrautza egosia eta atuna erabiliko ditugu sagutxoak egiteko. Arrautzak erditik zabaldu eta gorringoa atunarekin eta maionesarekin nahastuko dugu. Arrautza erdiak nahasketarekin bete eta buruz behe ipiniko ditugu. Gero, sagutxo itxura emango diogu. Begiak, belarriak eta buztana egin behar ditugu. Irudimen apur batekin eta etxean daukagun edozein osagairekin egin daiteke. Begiak egiteko, esaterako, espezie bat erabil dezakegu: iltzea, adibidez. Belarriak errefauarekin —rabanoa— egin daitezke, eta buztana perrexil adartxoekin. Emaitza txukuna da eta elikagai aldetik errezeta osasuntsua. Bada, sagutxoaren irudirik ikusi nahi izanez gero, jo *Guraso.com* atarira.

IRTEERA FAMILIAN

Elorriagatik Zumaiara itsas-labar artean

L.Z. | ARRASATE

Itziar eta Zumaia artean dagoen errepedetik Elorriaga auzora egingo dugu. Bertako atsedeen-gunean utziko dugu autoa. Komunak, iturri bat, mahaia, ziburuak eta ibilbideen panel informatiboa aurkituko ditugu bertan. Lehenengo, Elorriagako ibilbide zirkularra egingo dugu begiratoki ikusgarrira iristeko. Atsedeen-gunera itzulita Zumaiara doan bidea hartuko dugu —GR-121, marka zuri-gorriak—. Baserri eta mahasti artean egingo dugu ibilbidearen lehen zatia. Ibilbideak bidegurutze batera eramango gaitu, ezkerrean eserleku bat dago. Ezkerrean egiten duen bidexka hartuko dugu eta itsas-labar artean Zumaiaraino iritsiko gara. Proposamena da San Telmo ermita bisitatzea eta Itzurungo hondartzan bainua hartzea. Sei bat kilometroko bidea da.



ETXEKO SUKALDERAINO

Jose Mari Velez de Mendizabal | Enpresaria eta kultura dibulgatzailea

- ▶ Sukaldean asko ibili ez arren, paellagile ontzat du bere burua
- ▶ Lanbidez enpresaria izan da, baina kultura dibulgatzea du bere grina

"Beti pentsatu izan dut oso euskaldun atipikoa naizela"

MAIALEN TORRES | ARAMAIO

Urte luzez enpresa kudeaketa eta zuzendaritzan egin zuen lan Jose Mari Velez de Mendizabalek (Aramaioko, 1949), baina tartean beste hainbat alorretan ere aritu da, batez ere hain gogoko duen kultura dibulgazioan. Liburu ugari idazle da, baita kontaezinezko artikuluen egile ere.

Jose Mari Velez de Mendizabal zelakoa da?

Pertsona arrunta naizela esango nuke, 23 urterekin lanean hasi zena. Urte asko eskaini dizkiot nire grina izan den kultura dibulgazioari, baina ni zerbait izan banaiz, enpresaria izan naiz, lanbidez horixe egin dudalako.

Zein harreman daukazu sukaldearekin?

Errespetua diot sukaldeari. Hala ere, ez naiz oso zalea, ezta edari zalea ere. Horregatik, beti pentsatu izan dut oso euskaldun atipikoa naizela.

Zein da zure espezialitatea?

Paellagile ontzat dut neure burua. Urtean lau bazkari egiten ditut hamabosna lagunekin eta kritika onak jasotzen ditut.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Berak nahi duenera, aukeratzen utziko nioke.

Eta etsairik handiena zertara?

Etsaia lagun bihurtzeko aukerarik balego, paella on batera, bestela, ezertara ez.

Zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan esertzea?

Ez naiz oso bazkari eta afari zalea, baina egitekotan, gertuko lagunekin egingo nuke, lasai hitz egiteko aukera izaten dugulako. **Kultura dibulgatzaile izateak zer eman dizu?**

Satisfazio asko eman dizkit. Duela 15 urte Aramaioko seme kuttun izendatu izanak harrotasunez bete ninduen, eta zer esanik ez jasotzera noan Urrezko Zeledoi sariak, Aramaioko giza talde batek nire hautagaitza aurkeztu duelako. Errekonozimendua da niretzat, zerbait ondo egin izanaren erakuslea.

Eta zer kendu dizu?

42 urtez eskaini diot nire denbora librea kultura dibulgazeari, eta gustura aritu izan naiz, baina sakrifizioak ere egin ditut. Hala ere, familiak beti eman izan dit babesa eta haiei esker izan dut aukera gustuko nuena egiteko. Horregatik, zordun natzaie.

Etorkizunean, zer?

Kultura dibulgatzen jarraituko dut ahal dudan artean.


Iratxoek hiru desio eskatzeko aukera eman dizute...

Osasuna, osasuna eta osasuna. Bizitzak heriotzara garamatza, baina momentu hori iritsi arte osasuntsu egon nahi nuke.

Zure bizitzako anekdota bat?

Asko ditut, lanagatik hara eta hona bidaiatzea tokatu baitzait. Bosnian gerra piztu zenean, esaterako, hantxe nintzen sarrailek saltzen.

Damu zara..



Jose Mari Velez de Mendizabal. | GOIENA

"Gustura aritu izan naiz, baina gauza askori uko egin behar izan diot"

Ez dut damurik. Bide bat aukeratzean besteari uko egin behar zaio, baina horrelakoa da bizitza. Damutzekotan garaiz damutu beharra dagoela uste dut, aldatzeko aukera den artean.

Zer errepikatuko zenuke?

Egoera sozio-ekonomiko berdinetan berriz jaioko banintz, bizitza bera aukeratuko nuke. Baliz-

ko askatasunaren paradisuan jaio izan banintz, berriz, auskalo zein bide hartuko nukeen!

Zerk beldurtzen zaitu?

Heriotzara osasunik gabe iristek. Bizitza duina bezain garrantzitsua da heriotza duina.

Nora egingo zenuke ospa?

Munduan zehar asko ibilitakoa naiz, eta, leku asko ezagutu ondoren ere, gusturen egoten naizen tokia Ullibarri-Ganboako etxea da. Nire babeslekua da eta paradisuan bezala sentitzen naiz han.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Ez dut sekula aholkurik ematen. Kasu bakoitzean zer egingo nukeen esaten dut, baina erabakiak norberak hartu behar ditu.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

AHUNTZ-GAZTA ETA KALABAZIN PIZZA

Pizza. Horrenbeste pasio eragiten dituen plater italiar hori. Niretzat ez dago ezer goxoagorik etxean egindako masa

fin hori baino. Barrukoa edo gainekoa, berriz, berdina zait. Izan ere, horren moldaeraza da, ezen pizzaren masak edozein osagai onartzen duela.

Oraingo honetan, erabaki dut pizza egitea kalabazinarekin eta ahuntz gaztarekin eta ezkaiekin (tomilloa) aromatizatutako olioarekin.

Zapore oso fina duen afari ezin goxoagoa aterako zaigu.

Fitxa

- ▶ **Denbora:** 60 minutu.
- ▶ **Zailtasuna:** ★★★★★

OSAGAIK

- ▶ Irina, 200 g.
- ▶ Legamia freskoa, 10 g.
- ▶ Ur epela
- ▶ Kalabazin bat.
- ▶ Ezkaia (tomilloa).
- ▶ Ahuntz-gazta.
- ▶ Oliba-olio birjina estra, hiru koilarakada.
- ▶ Tomate birrindua.

Prestaketa

- Hiru koilarakada olio jarri behar dira katilu batean, ezkaiekin batera. Gero, ondo nahastu behar da hori guztia, eta olioak zaporea har dezan utziko dugu. Horrela, olioak aromatizatu egingo dugu.
- Pizza-masa prestatzeko: beste katilu bat hartu, irina bota bertara, eta dezilitro bat ur epelean desegindako legamia ere bai. Horri gehitu behar zaizkio 1/2 dezilitro olio eta gatz apur bat, eta guztia ondo nahastu behar dugu.
- Gero, masa landu, ondo egin arte; eta behin ondo eginda dagoenean, ordu erdiz pausatzen utziko diogu. Gero, masa arrabolaz (rodilloarekin) zabaldu egin behar da, borobil itxura emanda.
- Tomatea jarri pizzaren masaren gainean, eta alde zurratik 180 graduan berotutako labean sartuko dugu, bost minutu inguru. Bien bitartean, kalabazina zuritu egingo dugu eta gero, xerra finetan zatitu.
- Gauza bera egin behar dugu ahuntz-gaztarekin. Eta trikimailu bat, ahuntz-gazta zatitzailekoan ez dadin apurtu: bustitako edo berotutako labana batekin moztu.
- Pizza labetik ateratzen dugunean, tomatearen gainean kalabazin-xerrak eta gazta-xerrak jarriko ditugu. Gero, hori berriz ere labean sartu behar dugu, eta bertan izan beste hamar minutu.
- Labetik atera eta pizza zerbitzatu baino lehen, aromatizatutako olio isuriko diogu gainetik.
- Ikusiko duzue zer gauza goxo aterako zaigun! Beraz, on dagizuela.



Labetik atera ostean pizzak duen itxura. | THE COOK ROCKER

Laster, bilaketa hobeak eta talde solasak Twitterren

J.B. | ARRASATE

Ia oharkabean, baina azken urtean aldaketa ugari egiten dabil *Microblogging* plataformak, eta eskaintzen dituen zerbitzuetan zabaldu egin dituzte aukerak. Hala, lanean jarraitu eta Twitterreko Anthony Noto finantza-zuzendariak aurreratu duenez, epe ertainerako berrikuntza handiak dauzkate prest. Datorren urtean bilaketetarako algoritmo berria hasiko dira erabiltzen sare sozialean eta bilaketen emaitzak erabiltzaileen arteko harremanen eta gai zehatzen arabera antolatuko dira. Horretarako, txioak ere sailkatu egin beharko dituzte garrantziaren arabera, denborari euts diezaioten. Halaber, aurreratu dute taldeen artean mezu pribatuak bidali ahal izateko aukera gaitzekotan direla. Zerbitzu horrekin, Twitter zuzenean sartuko litzateke mezularitza aplikazio tradizionalen eremuan. Notok aurreratu zuenez, taldeko elkarrizketetan sakondu gura dute Twitterren, ezagarrari sozialez baliatuz eta kontaktuen artean.



iOS 8a, zenbait mugikorretan. | APPLE

Oinarrizko aukera aberatsagoak dakartza iOS 8 kaleratu berriak

Notifikazio, teklatu eta bilaketetan aukerak areagotu dizkio Applek sistemari

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Joan den eguaztena ezker, modu mailakatuan, iOS sistemaren erabiltzaileek azken eguneraketa instalatzeko aukera izan dute: iOS 8a; Appletik esan dutenez,

sistema eragilearen historian egon den eguneraketarik handiena dena. Horregatik bakarrik ez da berezia azken eguneraketa; izan ere, erabiltzaileek eskuz eman behar dute abisua eta txan-

dari itxaron 4,6 GB eskatzen dituen deskargarako.

Notifikazioak

Sistemaren beraren eta aplikazioen notifikazioen kudeaketan

dator, erabilgarritasunari begira, aldaketa nagusia. Ezarpen aukerak areagotu eta pantaila blokeatzen bertan erantzuteko moduak dakar iOS 8ak. Bilaketetan ere aukera gehiago ematearen aldeko apustua egin, eta Interneteko, Wikipediako eta, besteak beste, Appleren mapetako emaitzak ere erakusten ditu. Siri ahots-asistenteari ere arreta eman, eta aurrerantzean Shazam erabiliko du; Sirik abestiak atzeman ditzake, eta domotikaren lotutako proiektuak ere iragarri dituzte.

Idazketa

Teklatuan ere aldaketa egin eta hitzen iradokizunak egiten ditu sistema berriak, erabiltzaileak berba guztia idazten amaitu barik txerta dezan. Argazkiei dagokienez, kamerari funtzioak gehitu eta argazkiei ukituak egiteko aukerak ere areagotu dituzte, besteak beste.

Aplikazioei dagokienez, ostera, berrikuntza bat, Health delakoa, da nabarmenena. Aplikazio horrekin eta bestelako gailuekin lotuta (urrats kontagailuak, pisuak, makinak...) erabiltzailearen osasun-egoera eta mota guztietako datuak kuantifikatzea da asmoa. Etorkizuneko negozioetako bat ei da osasunari lotutako aplikazioena, hain zuzen.

Modeloei dagokienez, iOS 8-a iPhone 4S-tik gorakoek instalatzea dezaite, iPad 2tik gora eta iPad Miniak eta iPod Touch-etan bosgarren belaunaldikoek soilik onartzen dute eguneraketa.



Fundazioko kideak, domeinu berrien jabe batzuekin. | PUNTUEUS

PuntuEus Fundazioak '.eus' domeinu berriak eskatzeko epea ireki du

Elkarte, erakunde eta instituzio publikoek lehentasuna izango dute, azaroaren 18ra arte

J.B. | ARRASATE

Irailaren 16tik eska daitezke .eus domeinu berriak. Fundazioak fase berriari ekin dio honela: *Abiarazte fasea*. Bereziki, elkar-

te, enpresa eta instituzio publikoek eskaria egiteko fasea da oraingoa. Fundazioak segituko du prozesua bideratzen, eta, hala, PuntuEus-er bertara egin behar dira eskae-

rak. Azaroaren 18ra arte iraungo du fase berri horrek eta eskaera onartzen dieten webguneak abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, aktibatuko dituzte. Orduetik aurrera Erregistro Orokorra zabalduko da eta ohiko erregistradoreek eskainiko dute .eus domeinu izendapena. Preziosa, kasu horretan, erregistradoreek eurek ezarriko dute, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera.

2.000 urte amaierarako

Martitzenean, fase berria aurkezteko egindako agerraldian, Josu Waliño PuntuEus Fundazioko zuzendariak azaldu zuen urte amaierarako 2.000 domeinu berri aktibatuko direla espero dutela. Horren harira, Waliñok domeinuaren "erabilgarritasuna" azpimarratu zuen, eta nabarmendu .eus ez dela soilik "euskararen inguruko domeinua, euskal jendarte gizartearen domeinua" izan behar duela, "euskal kulturarena".

Momentu honetan 92 entitatek dute .eus domeinu izendapena. Aitzindarien taldea delakoa osatzen dute bederatzi enpresa, 23 erakunde publiko, 14 hedabide eta euskalgintzako 46 entitate horiek. Orain, bigarren fase baten eta irekiera osoa izan bitartean, elkarte, enpresa eta instituzio publikoek egin ahal izango dute eskaria, Fundazioaren baldintzen arabera. Marka erregistratuek, interes publikodunak eta tokiko markek izango dute lehentasuna fase berri horri dagokionez.



Universkal Mobile Keyboard. | MICROSOFT

Gailu eta sistema guztiekin dabilen teklatua da Microsoften apustua

J.B. | ARRASATE

Beharbada, beste edozein konpainiak aterako balu, ez luke produktuak halako arretarik erakarriko, baina, Microsoftek kaleratuta, beste gauza bat da. Apustua berezia da, eta, normalean, handikiek sistema itxien alde egiten badute, oraingoan, Microsoftek produktu unibertsal baten alde egin du, orain arte ez bezala. Zer esanik ez erabiltzaile askoren eskaerei ez diela entzungor egin oraingoan. Sistema eragilea edo marka edozein delarik ere, gailu batera baino gehiagora konekta daitezkeen teklatu eramangarria aurkeztu berri du Microsoftek.

Joera aldaketa nabaria da eta tabletek poliki-poliki merkaturatu kuota handia jan diete ordenagailu eramangarriei. Teklatua izan da eragozpenetako bat orain arte, eta Microsoftek planteamendu unibertsal batekin egin gura dio aurre arazo horri. Hardwarearen aldeko apustua daigarria da negozio irtenbide bezala Microsoften kasuan, baina baliteke, estrategia bezala, Troiako zaldi bezala funtzionatzea. Universal Mobile Keyboard teklatua gailu independente eta autonomoa da eta botoi bakarrarekin mugikor edo tableta batetik beste-rako aldaketa egiten du.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Txabelita koitadua

Telebista izar berri baten distirak itsutu egin nau. Bere distirak baino, bere soldatak itsutu nau. Txabelita, Isabel II, Isa... Hamaika izen dituen txoni merke eta ez jakin bat, horietako bat dugu Isa, baina horrek *pedigria* dauka.

Pantojak Fujimoriren Perutik ekarri zuen neskati-la hura hazi egin da, eta uni-bertsitatera joan edo modulu bat egin beharrean, telebista aukeratu du ogibide gisa. Informatiboak? Analsi mahai batean? Zertarako! Bere CVan noren alaba den jartzen duen bitartean *Telecircon* lana emango diote. Bere odol garbiari esker, Isa, Vasileren *Nancy peinados de moda* berria da, eta bost bat minutu irauten dituen "saio" baten truke 900 kobratzen ditu, hau da, gutxieneko soldatetik urrun geratzen diren 7.200 euro jasoko ditu hileko.

Asko dela uste duzue? Txolin halakook! Ez duzue bere familia ezagutzen! Amatzoren fidantza eta anaiaren *bollikaoak* erosten xahutuko du Isak horrenbeste neke eta izerdi kosta zaion dirua. Bera izango banintz, Lola Floresek egin zuen moduan, eurotxo bat eskatuko nioke "espainolito" bakoitzari, krisitik irten ahal izateko.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 22	MARTITZENA, 23	EGUAZTENA, 24	EGUENA, 25	EGUBAKOITZA, 26
Bizipoza jaia Asteburuan Arrasaten ospatu den Bizipoza jaian jasotakoak erakutsiko dira asteleheneko saioan. 20:00	'Berriak' Debagoiengan egunean zehar gertatzen diren albiste garrantzitsuenak jasoko dira albistegian. 14:30	'Tertulia' Eskoziarrek ezetz esan diote independentziari eta alderdi politikoe-tako ordezkariak gaia aztertuko dute. 22:00	'Amaia DJ' Gaztetxoek Whatsapp eta sare sozialen bitartez eskatutako kantuen bideoklipak jarriko dira saioan. 19:30	Sukaldaritza Legatza nola prestatu ikasi ahal izango da <i>Debagoiena zuzenean</i> saioko sukaldaritza tarlean. 20:00
12:00 Debagoiena zuzenean 13:00 Motokrosa 13:25 Zorion Agurrak 13:30 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Kontzertua 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Ertzak 18:00 Motokrosa 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Idemtitateak 19:30 Harmailatik 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Harmailatik 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Motokrosa 23:50 Debagoiena zuzenean 00:20 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Harmailatik 13:00 Motokrosa 13:25 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik 15:30 Onein 15:55 Zorion Agurrak 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Amaia DJ 17:30 Ikusi irratia 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Harmailatik 19:30 Idemtitateak 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Ertzak 23:00 Debagoiena zuzenean 23:30 Berriak 23:30 Harmailatik 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Ertzak 13:30 Harmailatik 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Idemtitateak 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Harmailatik 17:30 Ikusi irratia 18:30 Berriak 19:00 Antzerkia 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Tertulia 23:00 Berriak 23:30 Debagoiena zuzenean 00:00 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Tertulia 13:30 Ur eta lur 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Tertulia 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Varsoviako abesbatza 18:10 Motokrosa 18:30 Berriak 19:00 Idemtitateak 19:30 Amaia DJ 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Amaia DJ 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Tertulia 00:30 Debagoiena zuzenean 01:00 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Amaia DJ 13:00 Ikusi irratia 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Amaia DJ 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Tertulia 18:00 Idemtitateak 18:30 Berriak 19:00 Amaia DJ 19:30 Erreportajea 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Erreportajea 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Amaia DJ 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Mugikortasun Asteak emandakoa berbetagai gaurko irratsaioan

Udaleko Ingurumen saileko teknikari Nerea Laspiur Arrasate Irratian izango da gaur, astelehena, Mugikortasun Astearen balorazioa egiteko. Kulturaten gaur zabalduko den bizikleta bideen alternatiben gaineko erakusketari buruz ere jardungo da 11:00etatik aurrera.

Xaiko taldearen 'Therapy' diskoa zozketatuko da

Egubakoitzeko zozketan Xaiko taldearen *Therapy* diskoa irabazteko aukera izango dute Arrasate Irratiko entzuleek. Zozketan parte hartzeko 943 25 05 05 telefonora deitu behar da ala bestela *irratia@goiena.com* helbidera mezua bidali behar da. Animatu, parte hartu eta zorte on!

Donostiako Zinemaldiaren berri, martitzeneko saioan

Arrasate Irratian, Donostiako Zinemaldian gertatzen ari dena gertutik jasoko da asteon. Imanol Gallego kazetaria Donostiako Zinemaldian dago eta bertatik kontatuko ditu, besteak beste, *Loreak* euskarazko filmari buruzko kontuak. 107.7ko uhinetan martitzeneko *Uda giroan* irratsaioan izango da hori, 11:00etan.

TELE-ALBISTEAK

Antzuolak Hernaniren aurka jokatutako partidua laburpena ikusgai, gaur

Futbol kontu gehiago, Aramaioko ralliesprinta edo saskibaloia ere ikusgai

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Kirol kontu ugari izan dira asteburuan Debagoiengan eta horiek guztiek zer eman duten ikusi ahal da gaur, astelehena, *Harmailatik* kirol saioan.

Besteak beste, futboleant, erregional ohorezko mailan, Antzuolak Hernani hartu zuen etxean zapatuan eta partidua laburpena eskainiko da Xabier Urtzelatik aurkeztutako saioan. Bestalde, Aretxabaletak egubakoitzean aurkeztu zituen denboraldi berriko taldeak eta han jasotakoak ere erakutsiko dira saioan.

Aramaion, bestetik, egutegiko azken ralliesprinta jokatu zen zapatuan eta protagonisten hitzak entzuteko aukera izango da.

Ointxe taldeak ere, asteburuan aurkeztu du denboraldiko talde



Antzuola eta Hernaniren aurkako partiduko une bat. | IMANOL SORIANO

berria eta Euskal Kopako partidua ere jokatu du. Horiek zer eman zuten ere jasoko da *Harmailatik* kirol saioan.

Bergaran, oster, *Kirola Kalea* ekimena izan dute asteburuan eta aurtengoak zer eman duen ikusi ahal da gaur.

Egunero egingo zaio Donostiako Zinemaldiari errepaso, telebistan

Telefono konexioez gain, eguaztengan 'Loreak' filmari buruzko erreportajea ikusi ahal da

A.T. | ARRASATE
Donostiako Zinemaldia gertu gertutik jarraitzen dabil Imanol Gallego kazetaria Donostiatik bertatik, eta han jasotako berri emango du egunero Goiena telebistan *Debagoiena zuzenean* saioan, astelehenetik egubakoitzera 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean.

Telefono konexio bitartez Zinemaldian egon denaz eta egongo denaz hitz egingo du saioan, alfonbra gorria zapaldu duten izarren txutxu-mutxuak ere kontatuko ditu, eta nola ez, Zinemaldiko filmen nondik norakoen berri ere emango du. Egunez egun, gertatutakoaren errepaso zehatza egingo du, hortaz, Gallego kazetariak Goiena telebistako saioan.



Filmeko posterra. | FILMAFFINITY.COM

'Loreak'-en erreportajea
Martitzenean estreinatuko da euskarazko *Loreak* filma eta estreinaldian eta galan jasotako irudiekin eta protagonisten hitzekin osatutako erreportajea eskainiko da eguaztengan.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Beñat Gamito Bengoa
Irailaren 25ean, 11 urte.
Zorionak, Beñat eta egun polita pasatu. Etxekoen partetik.



ARRASATE
Danel eta Jon Zubia Carrasco
Danelek irailaren 8an, 3 urte eta Jonek 24an, 5 urte.
Zorionak etxekoen partetik. Muxu handi bat!



ARRASATE
Araitz Gartzia
Irailaren 24an, 2 urte.
Zorionak, printzesa! Bi urte bete berri eta egunetik egunera polit eta maitagarriago. Muxu potolo bat etxeko guztien eta, batez ere, Shaneren partetik.



BERGARA
Aitana Mendiarras Paya
Irailaren 24an, 4 urte.
Zorionak, printzesa. Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxekoen eta, bereziki, Alexen partetik.



OÑATI
Mikel eta Enaitz Igartua
Zorionak, bikote! Mikelek 37 urte betetzen ditu irailaren 23an eta Enaitzek, berriz, 2 urtetxo irailaren 19an. Zorionak, bixoiri, familia danaren partetik!



OÑATI
Maialen Maiztegi Lete
Irailaren 23an, 7 urte.
Zorionak eta muxu potolo bat Oñatiko eta Antzuolako familia danaren eta, batez be, Leireren partetik. Ondo pasatu eguna.



BERGARA
Uxue Montalvo Ruiz de Egino
Irailaren 23an, 6 urte.
Zorionak, Uxue! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat Peruren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Maddi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 22an, 8 urte.
Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
Elene Taboada Muruamendiarras
Irailaren 22an, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna, etxeko guztien eta, bereziki, Sararen partetik!



OÑATI
Eñaut Beitia
Irailaren 22an, Eñautek 3 urte. Zorionak, polittori! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta muxuak Uxeren, aitaxoren eta amatxoren partetik!



ARETXABALETA
Aimar Iturbe Murgiondo
Irailaren 22an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat familia osoaren partetik.



ARRASATE
Elene Ormaetxea Artola
Irailaren 22an, 6 urte.
Zorionak, sorgintxo! Honezkeru bi esku biher ditudugu zure urtiak kontetako! Patxo handi-handi bat danon partetik!



BERGARA
Martin Alzola Aitzerreka
Irailaren 22an, 5 urte.
Zorionak, Martin! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Enara Garcia
Irailaren 21ean, 2 urte.
Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure bazkari eta merendolan! Mila kilo zorion aitaxoren, amatxoren eta Aneren partetik!



ARETXABALETA
Josu Barandiaran
Irailaren 21ean, 4 urte.
Zorionak, Josu. Urtetxo bat gehiago... Oso ondo pasatu zure urtebetetze-ana eta ederki pasatuko dugu. Amatxo, aitaxo, ltsasne, aitita, amama, tia eta tio.



OÑATI
Elene Agirrebalzategi
Irailaren 20an, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu potolo-potoluak zuretzako etxeko danen eta, bereziki, Malenen partetik.



ARRASATE
Danel Castillo Romero
Irailaren 19an, 4 urte.
Zorionak, bihotza! Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat etxekoen eta, bereziki, Oihanen partetik.



ARRASATE
June Canales Diez
Irailaren 18an, 6 urte.
Zorionak, poxpolina! Primeran pasatu urtebetetze eguna. Sei "superpatxo" potolo familia guztiaren partetik.



OÑATI
Ainara Azkoitia
Irailaren 18an, 34 urte. Zorionak, amatxo! Prestatu txokolatzeko pastel handi bat, eguna guztiz borobilduteko, eta segi oin artian moduan, sarritan haserre iten badozu be, asko maite zaitugu-ta! Izar, Julen eta aitaxo.



OÑATI
Malen Salazar Guridi
Irailaren 18an, 7 urte.
Zorionak, Malen printzesa! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potoko bat Garitxoren eta etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu!



ARETXABALETA
Izaro Altube Uribe
Irailaren 17an, 2 urte.
Zorionak, bihotza! Oso oso ondo pasatu eguna. Muxu potolo-potolo bat aitaxoren eta amatxoren partetik.



BERGARA
Unai Agirrebeña Altuna
Irailaren 16an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Imanol Loiti Montero
Irailaren 15ean, 10 urte.
Zorionak Imanol, 10 urte! Hau da hau mutiko puxka! Segi horrelako majo! Muxu handi bat.



OÑATI
Izar Ugarte Muñoz
Irailaren 23an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu urtebetetze egunian. Sei muxu potolo familia guztiaren eta, bereziki, Heleneren partetik.



ARETXABALETA
Monika Beltran de Heredia Altube
Irailaren 22an, 10 urte. Zorionak! Etxeko txikixena, baina eskuak bete jatzuz. Hala eta guztiz, zu zara gure txikixa! Patxo potolo-potolo mordua!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.eus atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion
agurra bakarrik
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak hurrengo
astean argitaratuko
ditugu.



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoiengan.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKER ONA

Narciso Beitia Elkorobarrutia
Astaisolo baserrikoa



2014ko irailaren 16an hil zen, 103 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Beti izango zaitugu bihotzean.

Leintz-Gatzagan, 2014ko irailaren 22an.

JAIOTAKOAK



Odei Diez Uribeetxebarria

Aretxabaleta 3,410 kilo. Irailaren 14a. Gurasoak: Olaia eta Javi. Argazkian, Odei, amama Manolirekin.



Aiane Carrera Becerra

Durango 3,570 kilo. Irailaren 14a. Gurasoak: Lorena eta Roberto. Argazkian, Aiane txikira amarekin.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik, zorionak!
Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



Izei Belategi Sdupe

Aretxabaleta 4,100 kilo. Irailaren 14a. Gurasoak: Edurne eta Ander. Argazkian, Izei, aitaren besoetan.



Ariane del Canto Vicente

Arrasate 3,200 kilo. Irailaren 13a. Gurasoak: Sonia eta Abel. Argazkian, Ariane txikia aitarekin.

Jaio da!




Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK



* Eskoriatza-ko elizatea	Bizkaiko herria	Sos
Dozena	Meatokia	Bozka
Txahal		
Mendiko atea		
Upak, kupelak	Bukatu	
Izenondoa	Zezen zikiratuak	
		Han dagoenak
Mozkor		Bokalik gabeko zahia
Jakia		Ernel
Talde terrorista	Lehor	
Ku Klux Klan	Sufrea	
	Putreak	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

K	A	I	V	S	K	K	K
R	O	I	D		V	V	
V	A	I	G	V	K	L	E
H	Z		E	L	E	D	E
			O	T	E	T	E
U	T	I	V	W	V	U	
R	O	R	Z		Z		
I	A	B	I	W	H		
D		B		M			

BILA-BILA 7



Etxeko leihoak garbitzeko, olatuak


Itsasoaren ondoan bizi izatea da askoren ametsa; eta ondoan beharrezan, gainean izango balitz? Ondo lotuta egongo da, behintzat...
www.nopuedocreer.com



"Mozambiken, lehoiek egunero jaten dituzte pertsonak"

JAVIER DURAN | AUZITEGIKO ANALISTA

Tordesillasen egiten duten Vega-ko zezenak aurten ere harrotu ditu hautsak. Askorentzat basakeria den ekitaldiak baditu aldekoak ere, eta horietako bat da *La mañana de la 1* saioko tertuliakidea. Emandako arrazoiak, baina, ez dirudi oso konbentzigarria.
TVE -1



Max. 23°

Min. 14°

Zaparradak noiznahi botako ditu. Ostarte zabalak ere izango dira. Ipar-ekialdeko haizea.
euskalmet.net

goiena

2014-09-22

Mikel Losada 35 urte dituen Ermuko aktoreak ume lapurtuei buruzko 'Tres mentiras' pelikula estreinatu berri du; eta, antzerkia alde batera utzi gabe, beste bi pelikula ere filmatu ditu | TXOMIN MADINA

"Pertsonaia honekin kontentzioa landu behar izan dut"

1. Ez da nolana hikoia Tres mentiras pelikulan lantzen duzuen gaia... Ez da, ez. Oso gai interesgarria da. Egon dira gaiaren inguruko telesailak-eta, baina pelikulan beste era baten lantzen da. Harritu egin nau halako kasuak ezagutzen dituen zenbat jende dagoen inguruan.

2. Erantzukizun berezia sentitzen du batek horrelako proiektu baten parte hartzean?

Nire lana aktorea izatea da, ez daukat horrelako erantzukizunik: fikzioa egiten dut; gidoia pasatzen didate eta hori egiten dut. Norbaiti ondo badatorkio, ondo.

3. Anjel ertzaina zara pelikulan. Nolako prestakuntza eskatu dizu?

Zaila izan da, pertsonaia honek ez ditu-eta bere emozioak azaltzen. Normalean beste era bateko pertsonaia egin ditut, dena kanporantz azaltzen dutenak. Hemen kontentzioa landu behar izan dut.

4. Urtebete pasa da filmatzea bukatu zenutenetik estreinaldira. Nola eroaten dituzu itxaronaldiok?

Ahaztu egiten zara. Beti gura duzu ikustea pelikula nola geratu den eta zure lana nolako izan den. Luzea izan da, baina estreinatu delako pozik gaude!

5. Nola egin gaur egun jendea zinema aretoetara erakartzeko?

Atzetik telebista kate bat ez baduzu, zaila da. Guk beste gauza bat dugu: pelikula on bat egin dugula uste dugu, eta Goya saria duen Nora Navas ere hor dago.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Denbora batez, aberatsak pobre bihurtuko nituzke, eta alderantziz; horrela, mundua pixka bat aldatuko litzateke"

AGM

6. Aktore baten curriculumean ohikoak dira antzeppenetik kanpo egindako lanak. Zurean ere bai?

Ez, soilik honetan egin dut lan. Zortea izan dut: 17 urterekin lehen kontratua izan, eta orain arte.

7. Nola definituko zenuke orain bizi duzun momentu profesionala?

Gure lana ez dago erraza, BEZarekin jipoitu gaituzte. Badu gauza onik: orain mugitu beharra dugu, geure proiektuak egin... Ni une onean nago: alokairua ordaintzen dut, zinea eta antzerkia egiten dut, nire proiektuekin ere banabil...

8. Orain artean egindako zein pertsonaia erakutsi dizu gehien?

Denetatik, baina oso pozik nago *Fausto ciudadando ejemplar* antze-lanarekin: demokrazia ustel honi eta humanitate kontuetan egon den balio galerari buruz egiten dugu berba, eta asko ikasi dut.

9. Zinea, telebista, antzerkia. Zer da bakoitzaren onena?

Antzerkian, publikoa gertu duzu, eta egun baten gertatzen dena hor bakarrik gertatzen da. Zinean, lana erlaxatuagoa da, diru gehiago ematen du eta jendeak uste du aktore hobea zarela. Telebistak dirua ematen dizu, eta beste biak egiteko fama. Hirurak gustatzen zaizkit.

10. Askorentzat, Kutsidazu bidea Ixabel-eko Juan Martin izango zara oraindik ere...

Bai, baina ez dit ardura: asko maite ditut pelikula eta pertsonaia.

IXIDOR SOLUPE



Hirugarren Mundu Guda?

Abuztuaren 4an eta irailaren 1ean, Lehen eta Bigarren Mundu Guden mendeurrena eta 75. urteurrena bete ziren, hurrenez hurren.

Albert Einsteinek, 1949an eskaintako elkarrizketa baten adierazi zuen: "Hirugarren Mundu Gudan, ez dakit zer motatoko armekin gudukatuko den, baina, laugarrenean makilak eta harriak erabiliko dira".

Pasa den uztailan, Amnesty Internationalek bere aldizkarian Roberto Montoya idazle eta kazetari argentinarra elkarrizketatu zuen guda tresna metodo erailtzailerien inguruan; bereziki drone edo piloturik gabeko hegazkinei buruz jardun zuten. Zioenez, gizakiak hil eta ikaratzeaz gain, dronek sorrarazten duten sakoneko beldurra da berauen erabiltzaileen zigorgabetasuna. Ameriketako Estatu Batuak eta Israelez gain, Iran eta Txina ere droneak garatzen ei dabilta. Espainiak ere gogoz dihardu horretan, ustez erabilera zibilerrako. Egungo guda eta gatazkak ikusita (Palestina vs. Israel; Europar Batasuna-Ukrainia vs. Rusia; eta yihadista Estatu Islamiarra vs. Irak-Siria-Nazio arteko koalizioa AEBren eta Europaren lidergoarekin), ez al gaude Hirugarren Mundu Gudaren atarian?

Silhouette

Gustatuko litzaizuke modako aditu batek zure betaurrekoak aukeratzen laguntzea?

Irailak 30

* Hitzordua hartzeko deitu telefonora.

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

MULTIOPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan